

# AUKERATU EUSKADI ELIGE BIENESTAR

Eusko Legebiltzarrerako  
Hauteskunde Programa  
2024

 @eajpnv  eaj-pnv.eus

indar berria



**AUKERATU  
EUSKADI**  
ELIGE BIENESTAR



# AURKIBIDEA

2024-2028

Lau urte erabakigarri, nahi dugun  
Euskadi eraikitzen jarraitzeko

5

Euskadirako gure proiektuaren funtsezko printzipioak

7

Gure konpromisoak 2024-2028 legegintzaldirako

11

## 1.- PERTSONAK HELBURU, KOMUNITATEAN AURRERA EGITEKO ..... 12

OSASUNA. Euskadiren lehentasun handia .....	13
HEZKUNTZA. Bikaintasuna helburu .....	15
ETXEBIZITZA. Eskubide eraginkor baterantz .....	19
ERRONKA DEMOGRAFIKOA. Etorkizuneko Euskadi lantzen .....	22
GIZARTE-ZERBITZUAK. Euskadi, babesten eta zaintzen duen gizarte bat, inor atzean uzten ez duena .....	25
BERDINTASUNA. Beharrezko printzipioa .....	27
LGTBIQ+. Finkatu beharreko eskubideak .....	28

## 2.- EUSKADI BERDEA ETA JASANGARRIA ..... 29

TRANSIZIO ENERGETIKOA. Energia garbia eta subiranotasun energetikoa .....	30
LEHEN SEKTOREA. Euskal landagunearen bihotza .....	31
ARRANTZA. Itsasertzeko Euskadi garatzeko motorra .....	33
HIRI-BERRONERATZEA. Gure auzoetako bizi-kalitatea hobetzen .....	34
MUGIKORTASUN JASANGARRIA. Garraio publikoaren eta mugikortasun aktiboaren aldeko apustu irmoa .....	35
INGURUMENA. Gure ingurune naturala eta gure osasuna zaintzen .....	36
EKONOMIA BERDEA ETA ZIRKULARRA. Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak .....	38

## 3.- OPAROTASUN INKLUSIBOA: EKONOMIA SENDOAGOA GIZARTE BIDEZKOAGO BATERAKO ..... 40

INDUSTRIA. Euskadi berrindustrializatzea .....	41
TALENTUA ETA ENPLEGUA. Gizarte-politikarik onena .....	46
LAN-HARREMANEN ESPARRU PROPIOA. Elkarrizketa gehiago, gatazka gutxiago .....	48
AUTONOMOAK ETA TOKI-MERKATARITZA. Erresilientziaren aldeko apustua .....	49
TURISMOA. Jasangarritasunaren eta kalitatearen aldeko apustu irmoa .....	51
AZPIEGITURAK. Etorkizunerako palanka .....	52
GASTRONOMIA ETA ENOLOGIA. Susturriak dituen Euskadi .....	56
DIGITALIZAZIOA. Teknologia, aukera bikaina .....	57
EUSKAL GIZARTE-SEGURANTZA. Euskal eredu jasangarria .....	59

#### 4.- ELKARREKIN BIZITZEA: ESKUBIDE BERBERAK, BETEBEHAR BERBERAK..... 60

GOBERNANTZA. Eusko Jaurlaritza ireki eta efizientea; burokrasia gutxiago, eta hurbiltasun handiagoa .....	61
SEGURTASUNA. Lurralde seguruagoa .....	62
JUSTIZIA. Justizia-administrazio propioa, azkarra eta hurbilekoa .....	64
ESPETXEAK. Sistema propioa, birgizarteratzea ardatz harturik .....	65
MEMORIA HISTORIKOA ETA BIZIKIDETZA. Bakea, justizia eta ongizatea .....	65

#### 5.- IDENTITATE ETA AINTZATESPEN NAZIONALA ..... 67

AUTOGOBERNUA. Ongizatearen sinonimoa .....	68
KULTURA. Euskadi, abangoardia maite duen antzinako nazioa .....	69
KIROLA ETA SELEKZIO NAZIONALAK. Nazio bat, selekzio bat .....	70
EUSKARA. Edonoiz, edonon .....	72

#### 6.- EUSKADI MUNDUAN ..... 73

KANPO-HARREMANAK. Euskadi, munduari begira dagoen Europako nazioa .....	74
DIASPORA. Zortzigarren herrialdea .....	75
NAZIOARTEKO SARE ETA ERAKUNDEETAN PARTE HARTZEA. Euskadi, ahots propioarekin .....	76

AUKERATU  
EUSKADI  
ELIGE BIENESTAR



2024-2028  
Lau urte erabakigarri,  
nahi dugun Euskadi eraikitzen jarraitzeko

2024-2028

Lau urte erabakigarri,  
nahi dugun Euskadi eraikitzen jarraitzeko



Kaixo!

Imanol Pradales naiz, EAJ-PNVren lehendakariagaia, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako, non Euskadik bere etorkizuna erabakiko duen.

Santurtziarra naiz, auzo apal batekoa, Mamarigakoa. Nire haurtzaroa eta gazte denborak oroitzean, eta hamarkada hauetan Euskadi nola aldatu den ikustean, hunkitu egiten naiz. Gaur Euskadi Herri modernoa da, ongizate maila altukoa, eta sozialki kohesionatua. Gure gurasoek dena eman zuten gaur ezagutzen dugun Euskadi honengatik. Orain gure belaualdiak Herri hau eraikitzen jarraitzeko aukera eta erantzukizuna dugu.

Ilusioz eta konfiantza osoz diot hau. Egiten jakingo dugunaren ilusioz eta konfiantzaz. Ondo egingo dugu. Une honetarako prestatu gaituzte. Eta erronka honi baiezkoa esaten diogu. Egingo dugu; prest gaude.

Ongizatean hazteko unea da. Euskadi berri bat eraikitzeko unea: ongizatearen Euskadi berria, fidagarria eta globala.

Nire ametsa eta konpromisoa Euskadi berri hori da. Bitzita proiektua askatasunez garatzeko lekurik onena izango den Euskadi.

Kalitatezko enplegua eta aberastasuna sortzen duten enpresa lehiakorrek osatzen duten Euskadi; Euskadi digitala, jasangarria eta berdea; zerbitzu publiko onenak eskaintzen dituen Euskadi, segurua, sozialki bidezkoa, kohesionatua, eta berdinzalea. Hezkuntzarik onena duen Euskadi, etxebizitza eta emantzipazio aukera onenak eskaintzen dituena, zaintza sistema onena duena. Eta bereziki, bikaintasunezko Osakidetza izango duen Euskadi, bizitza osoan gure osasun fisiko eta emozionala zainduko dituena.

Hori da nahi dudana Euskadi, eta konpromiso hori hartzen dut. Nazio bat, hizkuntza eta kultura propioduna, Autogobernu hobe eta gehiagorekin, bere indar guztia zabalduko duena, hemen, European, eta munduan.

Euskadi hori eraiki nahi dut. Eta zurekin batera eraiki nahi dut. Erabakitzeke unea da. Zuk erabakitzen duzulako zure etorkizuna eta Euskadiren etorkizuna.

Eraiki dezagun elkarrekin ongizatearen Euskadi berria, fidagarria eta globala.

Imanol Pradales Gil  
EAJ-PNVren Lehendakariagaia

AUKERATU  
EUSKADI  
ELIGE BIENESTAR



Euskadirako gure proiektuaren  
funtsezko printzipioak

## Euskadirako gure proiektuaren funtsezko printzipioak

Hauteskunde Programa hau osatzen duten konpromiso guztiak funtsezko printzipioetan daude oinarriturik. Printzipio horiek daude autogobernua berreskuratu zenetik EAJ-PNVk bultzatu duen ereduaren oinarrian, eta printzipio horiek dira, halaber, Euskadiren etorkizunerako gure ikuspegia.

### 1.- EUSKADI, GURE ABERRIA

“Euskadi, gure aberria” euskal herritar guztien ongizatearekiko konpromisoa da.

Euskadi askotariko identitateak elkartzen dituen herri bat da, baina berezko erro kulturala, linguistikoa eta nazionala dituen. Euskadik oinarritzko balio gisa hartzen ditu bizikidetzeta eta elkartasuna, eta ulertzen du lana eta ahalegina direla horiek lortzeko beharrezko erremintak.

Autogobernu sendoa daukagu, eta ahalik eta gehien zabaldu behar dugu, euskaldunok erabaki dezagun geure politiken etorkizuna, guk geuk finkatzeko gure herriaren norabidea. Euskadi justuagoa eta kohesionatuagoa lortu nahi dugu, pertsonek ilusioz betetako bizi-proiektu bat garatu ahal izan dezaten eta, beren erabaki eta ekintza bakoitzarekin, herria hobetzen lagundu dezaten.

### 2.- EUSKADI, ONGIZATE-GIZARTEA

Osakidetzeta, euskal hezkuntza-sistema eta gure gizarte-zerbitzuen sistema dira euskal gizarteak Euskadiko gizarte-ongizatea bermatzeko baliatzen dituen tresna nagusiak. Ongizatearen hiru zutabe horiek sortzeko eta finkatzeko prozesuan, funtsezkoa izan da EAJ-PNVren lidergoa.

Indartu eta bultzatu egin behar ditugu zutabe horiek, aurrerantzean ere euskal gizarte osoak etorkizunean dituen beharrei eta eskaera berriei erantzuten jarraituko dutela bermatzeko.

### 3.- EUSKADI, ETORKIZUNEN HERRIALDEA

Euskadik aukeraz eta etorkizun oparoz beteriko herria izaten jarraitu behar du, gazteak eraldaketaren eragile izan daitezen. Ikuspegi aurrerakoiarekin eta inklusibotasuna ardatz nagusitzat hartuta, Euskadik belaunaldi-aniztasuna ospatu behar du, eta arrakastaz gainditu behar du erronka demografikoa.

Belaunaldien arteko erreleboari helduko diogu, eta, horretarako, gure gazteek lan-merkatuan sartzea erraztuko dugu,

Euskadin bertan egin ahal izan dezaten bizitza osoa eta asegarria lortzeko bidea. Horrekin batera, apustu irmoa egin da etxebizitza eskuragarria lortzea bermatzeko duen politikaren alde, euskal gazteei beren etorkizuna Euskadin eraikitzeko eta, hala, gure jaiotza-tasak berreskuratu ahal izateko.

Belaunaldi-errelebo horretan, beharrezkoa izango da nazioarteko talentua erakartzea ere. Horretarako, immigrazio-politika inteligente eta planifikatua bultzatuko dugu, euskaldun bihurtu nahi dutenen integrazioa zainduko duena.

### 4.- EUSKADI, BERDINTASUNAREN ALDEKO HERRIA

Apustu sendoa egiten dugu berdintasuna gizartearen bizkarrezur izango duen herri bat eraikitzen jarraitzearen alde. Guk sinesten dugun etorkizunean, euskal herritarrek aukera berberak dituzte beren bizi-proiektua garatzeko, edozein izan ere beren jatorria, generoa edo tasuna.

Etenik gabe lan egingo dugu gizarte-arrakalak desagerrarazteko eta ekitatea arau izango duen Euskadi bat eraikitzeko. Hori horrela, politika inklusibo, justu eta solidarioetan islatuko da benetako berdintasun eraginkorrerako bidea, eta bizikidetzeta eta elkarrekiko errespetua bermatzeko ditugu gure gizartean.

### 5.- EUSKADI, ERANTZUKIZUNA ETA EFIZIENTZIA KUDEAKETA PUBLIKOAN

Ondotxo dakigu kudeatzen dugun euro publiko bakoitza euskal herritarren eta gure enpresen ahalegin fiskalaren ondorio dela. Horregatik, argia eta gardena izango da gure jardun politikoa, baliabideen kudeaketa arduratsu eta efizientearekin konprometitua.

Erabateko osotasunez administratuko ditugu baliabide publikoak; bermatzeko dugu inbertitutako euro bakoitza gizarte-ongizatera bideratzen dela eta modu ekitatiboan banatzen dela. Eta, eginahal horretan, euskal gizarteko sektore guztiei entzuzko diegu.

Erakunde eta administrazio sendoak eraiki ditugu, eta gure gizartearen motor dira, kalitate goreneko zerbitzu publikoen bidez. Zerbitzuaren kalitate horri eutsi behar diogu, eta, aldi berean, malgutasun eta efizientzia handiagoak behar ditugu, aldaketak bizkor gertatzen diren inguruabarrotan, hala bermatzeko baitugu gure sektore publikoak Euskadiren motor izaten jarraitzea. Negoziaezina da esparru publikoaren segurtasun juridikoa, baina negoziaezinak dira, halaber, esparru publikoak lorturiko efizientzia eta inpaktua.



## Euskadirako gure proiektuaren funtsezko printzipioak

### 6.- EUSKADI, EUSKARAREN ETA KULTURAREN HERRIA

Euskara da gure hizkuntza; euskara jakitea bultzatu behar dugu, eta haren erabilerari prestigioa eman euskal gizartearen eremu guztietan.

Kulturaren alorrean, gure ondarea babestean eta abangoardia artistikoa sustatzearen arteko bat-egiteak Europako erreferentzia kultural bihurtu behar du Euskadi.

### 7.- EUSKADI, LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATU SOZIALA GARAPEN EKONOMIKOA BERMATZEKO

Errezeta ekonomiko sinplistik eta engainagarriak agintzen dituztenek ez bezala, EAJ-PNVn argi dugu zer defendatzen dugun: aberastasuna sortzeari utziz gero, miseria banatzera kondenatuta egongo gara.

Ondotxo dakigu administrazioa ezin dela izan jarduera ekonomikoaren bermatzaile bakarra, eta, horrenbestez, EAJ-PNVn lankidetzaren publiko-privatu sozialaren botere eraldatzailean sinesten dugu, garapen jasagarriaren eragile ekonomiko gisa. Gure herri-ikuspegian, ekimen pribatu eta sozialak eta sektore publikoak orpo lan egin behar dute elkarrekin, berrikuntza bultzatzeko, enplegua sortzeko eta lehiakortasuna indartzeko.

Beharrezkoa da lankidetzarako herri egokia sortzea, eta, horretarako, aliantza estrategikoak sustatzea enpresen eta gizarte osoaren mesederako. Enpresek, errentagarriak izateaz gain, konpromiso are handiagoa izan dezaten zerbitzu ematen dioten gizartearekin. Eta gizarte-ekonomiako erakundeek egunez egun erakutsi dezaten kooperatibismoaren balioa.

### 8.- EUSKADI, HERRIALDE SEGURUA

Herrialde segurua gara, baina are seguruagoa izan nahi dugu.

Euskal herritarrek kalean beldurrik gabe ibiliko diren herri bat nahi dugu. Segurtasuna ez da izango helburua bakarrik, baizik eta engaiamendu hautsezina gure herritarren ongizatearekin eta lasaitasunarekin. Guztiontzako ingurune segurua sortzea da gure konpromisoa. Zero tolerantzia delinkuentziarekin.

Segurtasun-politika integrala bultzatuko dugu, prebentzioa eta edozer mehatxuren aurreko erantzun eraginkorra uztartuko dituen. Bide horretan, lehentasuna izango du euskal segurtasun-indarren lankidetzak (autonomikoak eta toki-koak), bai eta segurtasun publikoa bermatzeko teknologietan eta sistemetan egindako inbertsioek ere.

### 9.- EUSKADI, KALITATEA ENPLEGUAN ETA SOLDATETAN

Euskadiko langile guztientzat soldata duinak bermatuko dituen ekosistema ekonomiko bat osatu behar dugu. Enplegu egonkorak, seguruak eta baldintza bidezkoak dituztenak.

Horretarako, lan-harremanen euskal esparrua bultzatuko dugu, eta lankidetzaren estuan lan egingo dugu gizarte-eragileekin ekonomia indartzeko eta, hartara, Euskadin langile guztien lan-duintasuna nagusi izaten laguntzeko.

Enplegu duinak eta estimulatuzaileak, pertsonen garapena bultzatzen dutenak. Eta pertsonak helburu dituzten erakundeetan.

### 10.- EUSKADI, 2030 AGENDAREKIN

Euskadin konpromiso irmoa hartu dugu 2030 Agendarekin, eta Euskal Agendaren lehentasun bihurtzen ditugu haren helburuak. Gure politiketan jada islaturik dago Garapen Jasagarriko Helburuen garrantzia, etorkizun ekitatiboa, berdea eta jasagarria lortzeko bide-orri gisa.

Gure politikak eta ekintzak helburu horiekin lerrotatuz lan egingo dugu, eta lehentasun gisa izango ditugu pobrezia desagerraraztea, genero-berdintasuna sustatzea, klimaren aldeko ekina eta komunitate inklusiboa eraikitzea. Aldi berean, garapen ekonomiko jasagarria eta inklusiboa sustatzen jarraituko dugu.

Euskadik, konpromiso horiek betetzeaz gainera, gidari izan behar du konpromiso horiek aplikatzeko nazioarteko bidean. Egungo ongizatea bermatu nahi dugu euskal eragileen lankidetzaren bidez, betiere herritarren partaidetzarekin gure politikak diseinatuz eta gauzatuz eta komunitate gisa ditugun erronka globalei aurre eginez. Eta, horrekin batera, legatu positiboa utzi nahi diegu biharko euskaldunei.

**IMANOL**  
LEHENDAKARI  
**PRADALES**

AUKERATU  
EUSKADI  
ELIGE BIENESTAR



GURE KONPROMISOAK  
2024-2028 LEGEGINTZALDIRAKO





PERTSONAK HELBURU,  
KOMUNITATEAN AURRERA EGITEKO



## OSASUNA

### Euskadiren lehentasun handia

Gaur egungo egoeran, Euskadiko eta, oro har, herrialde aurreratuetako osasun-sistemek aurrez aurre dituzten erronkak kontuan izanik (hala nola zahartzea, gaixotasun kronikoak eta osasun-kostua areagotzea, osasun-arloko profesionalen falta, gizarte-eskakizun zorrotzagoak zerbitzu publikoekin...), gure osasun-sistemaren kalitatea eta prestigioa hobetzen saikondu behar dugu.

Osakidetza Beberidge ereduaren oinarritutako Osasun Zerbitzu Nazional gisa sortua da, eta haren ezaugarri nagusiak dira biztanleriaren estaldura unibertsala, prestazio-zorro zabala, zerga orokorren bidez finantzatua izatea, irisgarritasun handia osasun-zerbitzu planifikatu eta sektorizatuera, besteak beste euskal osasun-sistemaren bihotz gisa jarduten duen lehen mailako arreta, eta giza baliabide eta bitarteko estruktural nagusiki publikoak.

EAJ-PNVn, uko egiten diogu Osakidetzaren ustezko pribatizazioaren gaineko diskurtso interesatua onartzeari. Lehenik eta behin, interes politiko argi bat ezkututzen duen gezur biribila delako. Osakidetzak inoiz baino langile gehiago, finantzaketa handiagoa eta egitura publiko sendoagoa ditu. Eta, bigarrenik, ez diolako uzten zerbitzu publiko izateari, nahiz eta enpresa pribatu batek eman zerbitzu horren elementu osagarrietako bat (hala nola goi-teknologiako instalazioen mantentze-lan espezializatuak, garbitasuna, segurtasuna...).

Osasun zerbitzu publiko bikaina dugu, ia 40 urtean eraiki duguna. Sistema hori hobetzen segitu behar dugu, eta etengabea izango da egoera hori, egoerak eta beharrak ere aldakorrek baitira. Beharrezkoa da zenbait alderdi hobetzea, hala nola itxaron-zerrendak murriztea arreta espezializatuko kontsultetan, proba diagnostikoetan eta ebakuntza kirurgikoetan, eta arindu egin beharko dugu, orobat, lehen mailako arretako lan-karga, baina beti konbentzimendu batetik abiatuz: abiapuntua oso ona dela sinetsita, eta ez beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta bakarrik, baita mundu mailan erreferentzia diren osasun-sistemen ondoan ere.

Hasiko den legegintzaldiari eta ondorengoei ekiteko orduan, ezinbestekoa da osasun-eredu bat izatea, "herri-proiektu" gisa islatuko dena eta ekitatez hedatuko dena hiru lurralde historikoetan. Bide horretan, kontuan hartuko dira udalak baliabide eta inbertsioak banatzerakoan, bai eta foru-aldundiak ere, batez ere osasun-arreta, gizarte-arreta eta arreta komunitarioa bateratzeari eta erantzukizunei dagokienez. Bateratze hori gero eta garrantzitsuagoa izango da euskal gizartean, kontuan izanik jendarte zahartua dela eta gero eta askotarikoagoa dela soziologikoki zein kulturalki.

Euskadiko egungo osasun-eredua 4 ardatzetan dago oinarrituta: osasuna, gizartea, komunitatea eta hezkuntza. Eredu kontrastatua da, denboran zehar harmonikoki garatu dena eta ongizate-eredu finkatu bat duen gizarte baten premiei

erantzuten diena. Eta eredu horrek ere bizi du osasun-arloko profesionalen mundu zabaleko defizita.

EAJ-PNVn, osasun-eredu hori defendatzen dugu, euskal herritarrei bermatzen diena osasun-estaldura unibertsalerako duten eskubidea, eta, era berean, zerbitzu-zorro zabala duen osasun-zerbitzu askotariko bat eskaintzen diena. Presente ditugu euskal gizarteari askotariko arloetan eragiten dioten aldaketak, bereziki gizartearen zahartzea eta osasun-zerbitzu publikoen eskaera gero eta handiagoa. Horregatik, pertsonak helburu dituzten politikei lehentasuna emateko konpromisoa hartzen dugu, hobeto aurre egiteko eguneroko osasun-arazo arruntei; hori horrela, epe laburrean ez ezik, epe ertain eta luzean ere jardungo dugu, Osakidetzak euskal gizartean izaniko izen ona eta itzala berreskuratzeko.

Epe laburrean, neurri hauek ezartzeko konpromisoa hartzen dugu, Osakidetza indarberritzeko:

- 1.- Lehen mailako arretako atentzioa eta irisgarritasuna hobetzeko eta itxaron-zerrenda kirurgikoak murrizteko Talka Plana egingo eta gauzatuko dugu, Osakidetzako profesionalekin orpoz orpo. Familia-medikuak gehienez ere 48 orduko epean artatuko du edozein pertsona, eta itxaronaldi kirurgikoetako zerrendak 2 hilabetetik behera murriztuko ditugu, batez beste 50 eguneko helburura hurbilduz; horretarako, berrantolaketa eta behar diren langileen kontratazioa bultzatuko ditugu.
- 2.- Behar eta nahi dugun osasun-sistemari buruzko Euskal Akordioa sustatuko dugu, gizarte-eragileek eskatzen duten bultzada berritzailea emanez. Ezinbestekoa da oinarritzko elkarriketa eta akordioa ezartzea osasun-sistema osatzen duten eragileen artean: administrazio publikoak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak), eragile politikoak eta sozialak, elkargo eta elkarte profesionalak, unibertsitateak, pazienteen elkarteak, farmaziak... Abiapuntuko baldintza da hori, konfiantza sortzeko eta aurrean ditugun erronkei berme osoz heltzeko. Kontua ez da unean uneko eta aldi baterako akordio bat lortzea, baizik eta lanerako eta lankidetzarako esparru iraunkor bat definitzea eta egikaritzea.
- 3.- Prebentzioaren arlora bideratuko ditugu inbertsio gehienak, eta adin guztietan osasuna sustatzeko eginahalean murgilduko gara, haurtzarotik hasita.
- 4.- Konpromisoa hartzen dugu gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen tratamenduan eta zaintzan espezializatutako arreta medikoko erakunde bat sortzeko, eta ez dugu baztertzeko horretarako ospitale espezifikoko bat martxan jartzea. Epe luzerako maneiua, diziplina askoko tratamendua eta etengabea jarraipena behar duten pazienteei arreta ematea litzateke ospitale-eredu horren ardatza. Zentro horrek diziplina anitzeko talde bat izango luke, oinarri gisa

## OSASUNA

### Euskadiren lehentasun handia

harturik errehabilitazioa, zainketa aringarriak eta gaitz eta gaixotasun kronikoen kudeaketa.

5.- Osasun mentala eta emozionala lehenetsiko ditugu. Osasun-sistema publikoaren bidez tresnak eta baliabideak eskaintzeko konpromisoa hartzen dugu, bereziki gazteei zuzendurik.

6.- Suizidioaren arloko laguntza psikosozialeko unitate bat sortuko dugu, suizidio-biktimaren ingurunea artatuko duena eta laguntza espezifikoa eskainiko diona gaixotasun mental horren doluan. Pertsona horien arreta espezializatuak gaixotasun hori ikusaraztea ahalbidetuko du, eta haien ongizate integrala bermatuko.

7.- Pertsonal-politika berria, bikaintasun-zerbitzua bermatzeko, baita talentua erakartzeko eta atxikitze ere. Pertsonalaren politikekin loturik, urte luzeak daramatzagu borroka politiko, sindikal eta batzuetan profesionalen, eta kontuan izan behar dugu langileak ezinbesteko ardatza direla bikaintasunezko zerbitzua bermatzeko eta biztanleek halaxe sentitzeko. Elkarrizketa soziala jarriko dugu abian Osakidetza eragileekin, eta ahaleginak eta bi egingo ditugu lan-baldintzen akordioa berritzeko. Era berean, estrategia bat diseinatuko dugu profesionalen talentua atxikitze eta erakartzeko, ez medikuntzakoa bakarrik, baita erizaintzakoa ere, eta kontratazio egonkorra lehenetsiko dugu.

8.- Lehen mailako laguntzako profesionalak kokapen geografiko berean jarraitzea sustatuko dugu, eta, era berean, ordainsariak handituko, lan-malgutasuna areagotuko eta lan-gainkarga murriztuko dugu. Horrekin batera, kontzientzia piztuko dugu herritarren artean, zerbitzuon erabilera egokiaren inguruan.

9.- Etengabeko Arreta Guneen (EAG) mapa berrikusiko dugu, gehiago behar ote diren balioesteko edo lehenetik dauden osasun-profesional eta mediku iraunkor gehiago behar ote diren balioesteko; hala, hil ala bizikoak ez diren larrialdietako arreta-zentro horiek pazienteei ematen dieten zerbitzua hobetuko da eta, ondorioz, ospitaleetako larrialdien karga arinduko.

10.- Osasun-profesionalen prestakuntza-plana. Osakidetza profesionalekin lankidetzan, prestakuntza-plan propio bat garatuko dugu, Osakidetzan zerbitzu berriak eta hobeak eskaintzeko espezializatzea erabakitzen duten profesionalak saritzeko, eta, horrekin batera, gure osasun-sistemari munduko gainerako herrialdeetan bikaintasun-praktika berriak ezagutzeko eta aplikatzeko aukera emateko.

11.- QBihotz programa abian jarriko dugu, eta Quantum Machine Learninga aplikatuko dugu patologia kardiobas-

kularren eta bihotz-biriketako geldialdiaren pronostikoa egiteko eta garaiz detektatzeko; horrek mesede garbia egingo die patologia horiek dituzten pazienteei.

12.- Parte-hartze aktiboa bultzatuko dugu pazientearen eta zainzaileen artean, aldaketa-eragile diren heinean, eta, ildo horretan, gehiago entzungo diegu eta aurrea hartuko diegu haien beharrei.

13.- Osakidetzako ginekologia-zerbitzuen ugalkortasun-programak handitu eta hobetuko ditugu, Euskadin amatasuna eta aitatasuna laguntzeko.

Epe ertain eta luzera, erreforma hauek egiteko eta proiektu hauei ekiteko konpromisoa hartzen dugu:

1.- Inbertsio-plana. Inbertsio-plan bat egiteko konpromisoa hartzen dugu, xede gisa harturik ekipamenduak berritzea, lehen mailako arretako azpiegiturak modernizatzea eta azpiegitura estrategiko berrietan inbertitzea. Horretarako, 250 milioi euro bideratuko ditugu egungo azpiegiturretan eta ekipamenduetan mantentze- eta egokitze-lanak egiteko, eta beste 1.000 milioi euro ekipamenduak berritzeko eta azpiegitura estrategiko berriak eraikitze, besteak beste:

- Basurtuko, Usansolo-Galdakaoko, Donostiako, Txagorritxuko (II. fasea eta aparkalekua), Zumarragako eta Arrasateko ospitaleak handitzeko, eta, horretaz gainera, ospitale berri bat eraikitze Tolosan.

- Logistika-zentro bat eraikitzeo Iurretan.

- Modernizazioa eta lehen mailako arretako azpiegitura berriak, besteak beste, Durangon, Irunen, Laudion, Donostian, Gasteizen eta Bilbon.

2.- Osasun-administrariaren figura ezartzea. Osasun-administrariaren figura berria sortuko dugu lehen mailako arretan. Profil berri horrek lehen iragazki gisa funtzionatuko du, paziente lehen mailako arretako erizainarengana, lehen mailako arretako medikuarengana edo kontsulta telematiko batera bideratzeko. Halaxe lortuko dugu lehen mailako arretako sistemaren gainkarga murriztea. Helburua da osasun-langileek zeregin burokratikoetan ematen duten denbora murriztea eta denbora gehiago eskaintzea kalitatezko arreta pertsonalizatuari.

3.- Aldizkako lan-eskaintza publikoak egingo ditugu, gure osasun-sistemaren bikaintasunerako ezinbestekoak diren plantillen egonkortasuna eta nahikotasuna bermatzeko.

4.- UPV/EHUko Medikuntza Fakultateko plazak ugarituko ditugu. Eskumenik ez dugun bitartean, gogotik eskatuko diegu Espainiako Gobernuari barneko mediku egoiliarren (BAME) plazak areagotzeko, plaza horiek euskal osasun-sistemaren beharrei erantzun diezaieten.

## OSASUNA

### Euskadiren lehentasun handia

5.- Ohe-sistema bat ezarriko dugu Pediatrian egonaldi luzea egiteko ospitaleratuta dauden haur gaixoen zaintzaileentzat.

6.- Osakidetzaren eginkizuna hobetuko dugu, produktu klinikoak ikertzeko eta garatzeko funtsezko tresna den aldetik, bioteknologiako startupekin eta sektoreko agente biosanitarioekin lankidetzan.

7.- Pazientea bikain koordinatutako diziplina anitzeko taldeen bidez tratatzea. Sistema horren helburua da ikuspegi komun bat izatea; hau da, pazientea ospitaleraten denetik alta hartu arte guztian, inplikaturiko osasun-adarretako espezialista guztiak ikuspegi komun eta global berbera izatea, eta guztiak ere norabide berean lan egitea arreta hobea lortzeko eta diagnostikoko eta tratamenduko arreta-prozesu laburragoak eskaintzeko.

8.- Sareko lan-eredua. Sarean lan egingo duen osasun-sistema bat sortuko dugu, arreta espezializatuaren kasuan bereziki. Hari esker, ESletatik (Osakidetzak erabiltzen duen eskualde-sistema) kanpoko hitzorduak eskainiko dizkiegu pazienteei, baldin eta hala azkarrago lor badezakete arreta espezializatua.

9.- Etxeko ospitaleratze-programa bat sortuko dugu, pazienteei aukera emango diena ospitalean jasoko litzuzkeen antzeko zainketa eta tratamendu medikoak jasotzeko, etxean jarraitzeak ematen duen erosotasunarekin. Arreta-formatu horrek tradizionalki ospitalean eman izan diren zerbitzuak eskaintzen ditu etxean bertan, hala nola sendagaiak ematea, bizi-zeinuen monitorizazioa eta arreta mediko espezializatua. Horri esker, saihestu egiten da paziente ospitale batean fisikoki egoteko beharra.

10.- Digitalizazioaren alorreko inbertsioa egingo dugu, erakundeak hobeto kudeatzen laguntzeko, datuetan oinarrituta: osasun-karpeta, sentorika eta historia klinikoarekiko konexioa, terapia digitaletarako aplikazioak, adimen artifiziala... Era berean, ESI digital baten sorrera aztertuko dugu, eta command center bat bultzatuko dugu osasun-sistemaren historia klinikoa eguneroko praktikan ustiatzeko.

11.- Big Data eta konputazio kuantikoa ezartzea euskal osasunean. 4.0 Osasun Plana taxutuko dugu, Big Data anonimizatuak baliatuz, eta konputazio kuantikoko teknologia ezarriko dugu gure osasun-sisteman. Horri esker, pazienteentzako arretaren kalitatea hobetzen eta osasun-gastuaren jasangarritasuna hobetzen lagunduko dugu.

12.- Antolamendu-berrikuntza aplikatuko dugu profesionalen eskutik Osakidetzaren barruan.

13.- Balioetan oinarritutako arreta sustatuko dugu. Horretarako, osasun-emaizten arabera neurtu behar da erakundea, eta ez hainbeste jardueraren arabera.

## HEZKUNTZA

### Bikaintasuna helburu

Euskadin, Hezkuntza Lege berri batekin ekingo diogu lege-gintzaldi honi. Lege hori lortzeko, buru-belarri lan egin dute Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza-sektoreak, familiek... Izan ere, EAJ-PNVn ondotxo dakigu hezkuntzak gu guztion beharra duela. Lege horrek egonkortasuna eta estrategia emango dizkio Euskal Hezkuntza Sistema osoari. Beharrezko tresna izango da definituriko asmoetan aurrera egiteko, eta hura izango dugu gidari datozen hamarkadetan erantzun beharreko hezkuntza-erronkei aurre egiteko. Lege horrek, orobat, euskal eskola publikoaren protagonismoa azpimarratzen du, ikasle guztien hezkuntza-sistamarako sarbide unibertsala bermatzen duen oinarritzko erreferentzia gisa.

EAJ-PNVn, defendatzen dugu hezkuntza eta aurrerapena sinonimoak direla maila guztietan gizarte gisa, eta aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa esan nahi dutela. Etorrizuneko ikuspegia duen hezkuntza-eredu baten alde egiten dugu, euskal gizartearen erronkei aurre egiteko. Kalitatezko hezkuntza-sistema, inklusiboa, ekitatiboa eta lankidetzakomunitarioan oinarritua. Familien eta udalerrien erantzunkidetasuna bilatzen ditugu, bai eta irakasleen konpromisoa ere.

Kalitatezko hezkuntza-sistema inklusibo baten alde egiten dugu etapa guztietan, hasi Haur Hezkuntzako lehen ziklotik (0-3 urte), harik eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara eta ondoko etapara arte, guztia ere etorkizuneko aukerak sustatzeko eta ikasle guztien hezkuntza-arrakasta maximizatzen buru-belarri lan egiteko. Sistema horrek hezkuntza bilakatu du palanka garrantzitsuen gure herriaren sustapen soziala lortzeko.

Herri honetako kohesio sozialarekin konpromisoa duen hezkuntza-sistema bat, ikasle guztiei aukera berberak eskainiko dizkiena, eskola-bereizkeriaren aurkako tresna ukigarriekin eta eskolatze inklusiboaren eta bizikidetzak positiboaren aldeko lanarekin. Sistema horrek euskara lehenetsiko du ikas-kuntza- eta bizikidetzak-hizkuntza gisa. Hezkidetzaren aldeko apustua egiten duen sistema; ikastetxeen gobernantzak hezkuntza-proiektuaren lidergo inklusiboa eta demokratikoa bermatuko du, eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea ahalbidetuko. Abangoardiako Euskal Hezkuntza Proiektua, marka propioa duena.

## HEZKUNTZA

Hezkuntza-sistemaren lehen etapak bereziki garrantzitsuak dira gure haurren garapenerako. Jakintzak eskuratzea da kontua, baina baita bizitzan zehar funtsezkoak izango diren balioak gureganatzea ere.

EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu hezkuntza-sistemaren lehen etapetarako:

## HEZKUNTZA Bikaintasuna helburu

1.- Hezkuntza-eredu propio bat eratzen jarraituko dugu, ikasleak gizarte konprometitu eta aurreratu baterantz bideratuko dituzten balioekin.

2.- Kohesioa eta berdintasuna egituratzen dituen eskola-eredu inklusiboaren aldeko konpromisoa hartzen dugu, hiru elementu hauek barnean harturik betiere: bizikidetzaren positiboa, hezkidetzaren eta kulturartekotasuna. Eta, bide horretan, familien inplikazioa bilatuko dugu beti, bai eta komunitatearen eragile guzti-guztiena ere.

3.- Eskola Bereizkeriaren kontrako Itun Soziala bultzatuko dugu hezkuntza-eragile guztiekin.

4.- Ikastetxeen eta irakasleen arteko lankidetzaren sareak bultzatuko ditugu, ikaskuntzan arrakasta-ereduak transferitzeko.

5.- Hezkuntza-esparru eleaniztun berri bat garatuko dugu. Esparru hori hizkuntzen tratamendu integral eta integratuari eta curriculumaren transbertsaltasunari jarraikiz egin beharko da, hezkuntza-espazioa eta ikaskuntza-baliabide guztiak barnean hartuta. Euskarak izan behar du ardatza. Alde horretatik, Euskara eta Hizkuntzak Ikasteko Institutua sortuko dugu, zeinak bere gain hartuko baitu arlo horretako estrategia eta jardura nagusiak lantzeko eginkizuna. Era berean, ingelesa menderatzea indartuko dugu derrigorrezko hezkuntzako ikasleentzat.

6.- Irakurketa Planetan ekimen estrategiko berriak txertatuko ditugu, eta ardatz transbertsal bihurtuko dugu hezkuntza-curriculumeko arlo guztietan. Aldi berean, proposamen metodologiko egiaztatutako bultzatuko ditugu, arrazoiketa matematikoa sustatzeko eta etapa guztietan hobetzeko irakasgai horren ikaskuntza.

7.- Irakasleen prestakuntza eguneratuko dugu Euskal Unibertsitate Sistemako eragileekin lankidetzan, etengabeko kualifikazioa duten, aniztasunean oinarritutako hezkuntzarekin konprometituta dauden eta ikasteko modu eta metodologia berrietan trebatuta dauden irakasleak izateko. Ikaslab erremintaren bidez, ikaskuntza-metodologia berri horiek ikastetxeetan aplikatzeko espazioak bultzatuko ditugu, berrikuntza eta sormena sustatzeko eta irakasleentzat talde-lana indartzeko.

8.- Hezkuntza-proiektu bereziak indartuko eta bultzatuko ditugu, erreferentzia direnak, konplexutasun handiko ikastetxeetan.

9.- Bikaintasuna eta ekitatea bermatuko ditugu hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat zerbitzuetan eta laguntzan ere. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak

dituzten ikasleak hautemango ditugu, eta hezkuntza- eta komunitate-baliabideak bermatuko ditugu premia horiei erantzuteko.

10.- Beka- eta laguntza-sistema zabal baten alde egiten jarraituko dugu, hezkuntzarako sarbidean desberdintasunak saihesteko. Sistema hori zabal daiteke zerbitzu osagarrietara, eskolaz kanpoko jardueretara eta eskola-materialera ere.

11.- Hezkuntza-orientazioko zerbitzuak indartuko eta hobetuko ditugu, eta, hala, ahalik eta garapen handiena ziurtatuko dugu ikasle guztien artean, bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz eta lanbide-ibilbide egokiak aukeratzea ahalbidetuz.

12.- Hiri, herri eta komunitate hezitzaileak sustatuko ditugu, eta, bide horretan, tokiko administrazioen parte-hartzea bermatuko dugu, Udal Hezkuntza Kontseiluen bitartez. Udalekiko, familiekiko eta gizartearekiko erantzunkidetasunean oinarrituriko hezkuntza-proiektu bat izango da, eta lankidetzaren sustatuko du udalerriekin. Hezkuntza-proiektu bereziak indartuko eta bultzatuko ditugu, erreferentzia bihurtuak, konplexutasun handiko ikastetxeetan. Tokiko gobernantzarako tresnak garatuko ditugu, ikastetxeen erantzunkidetasuna eta komunitatearen inplikazioa errazteko, eta matrikulazio-bulegoak gaituko ditugu eskolatze orekatua bermatzeko.

13.- Eredu berritzaileak sustatuko ditugu jantokietako zerbitzu osagarrien kudeaketan, eta ikasle guztien bidezko sarbidea bermatuko dugu; halaber, jantokien eginkizun pedagogikoa indartzearen alde egingo dugu, elikadura-hezkuntza osasungarria eta mahai-ohitura onak sustatuz.

14.- Haurreskolak Patzuergoa proiektua sendotuko dugu, eskolatze goiztiarra eskaintzen duen hezkuntza-eredu doako, inklusibo eta kalitatezko gisa.

15.- EUSLE programa bultzatu eta zabalduko dugu, zeinaren helburua baita erantzun eraginkorra ematea euskal hezkuntza-sisteman sartu berri diren ikasleei, haien hezkuntza-premietara egokiturik, hezkuntza-inklusio arrakastatsua lortzeko.

16.- Osasun Sailarekiko lankidetzaren indartuko dugu, ohitura osasungarriak bultzatzeko eta osasun mentalari eta beste gaixotasun batzuei heltzeko.

17.- Estrategia digitala bultzatuko dugu ikastetxeetan, gaitasun digitaletako programa berriei, programazioko alfabetatze digitalarekin eta pentsamendu konputazionala-



## HEZKUNTZA Bikaintasuna helburu

rekin. Horrekin batera, adimen artifiziala txertatuko dugu ikaskuntza eta ebaluazioa hobetzeko tresna gisa.

18.- Ekimen gehiago txertatuko ditugu STEAM (zientzia, teknologia, ingeniaritza, artea eta matematika) bokazioak sustatzeko.

19.- Hezkuntza-sistemaren nazioartekotzea babesten jarraituko dugu, eta ikastetxeen internazionalizazioa eta ikasleen eta irakasleen trukeak sustatuko ditugu. Nazioarteko Batxilergoa bultzatuko dugu hiru lurraldeetan.

20.- Hezkuntza-proiektu eraldatzaile berri bat bultzatuko dugu Urrutiko Hezkuntzako Euskal Instituturako (UHEI).

21.- Hezkuntzaren alorreko lankidetzak bultzatuko dugu Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearekin.

22.- Gutxienez 800 milioi euro inbertituko ditugu Eskola Publikoaren azpiegiturretan, hezkuntza-eredu koherente eta adostuen alde egiten duten ikastetxe integralak bultzatuz.

### LANBIDE-HEZIKETA

Lanbide Heziketako Sistema da Euskadiko aktibo handienetakoa bat. Gure produkzio-sistemaren premiei estu lotutako Lanbide Heziketa, berrikuntza, kalitatea eta ikasleenganako orientazioa dituen esparru iraunkor batean kokaturik.

EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu gure Lanbide Heziketaren bikaintasun-mailari eusteko:

1.- Euskadiko Lanbide Heziketa munduko erreferentzia gisa kokatuko dugu laugarren industria-iraultzari —eta bosgarren hasiberriari— erantzungo dion prestakuntza garatzeko bidean, eta, ildo horretan, garapen profesionalaren paradigma berri bat planteatuko dugu, nazioarteko proiektzioa bultzatuz eta Euskadi osoaren lehiakortasunaren inguruko balio-katea babestuz eta indartuz.

2.- Lanbide Heziketa dualaren sistema indartuko dugu, ikusirik sistema horrek emaitza bikainak ematen dituela gaikuntzari eta ikastetxeen eta enpresen arteko harremanari dagokienez.

3.- Lanbide Heziketako zentroak erakunde adimendun bihurtuko ditugu, eraldaketa digitalaren garapen osoaren buru izan daitezzen LHko sistema osoan. Eraldaketa horretan, ETEei eta mikroETEei ere lagunduko diegu, teknologia adimendun aurreratuenekin lan egin dezaten; hala, beharrezko ezagutza praktikoa eskuratuko dute, oso bestelakoa

izango den mundu baten erronkei eraginkortasunez erantzuteko.

4.- Industria, osasuna eta nekazaritza adimendunei eta halako sektore berriei erantzungo dien Lanbide Heziketa bultzatuko dugu, baita sektore estrategikoetako eta gorabidean dauden sektoreetako beste prestakuntza batzuei erantzungo diena ere; bide horretan, talentu berritzailea sustatuko dugu, emakumea industria- eta zientzia-sektoreetan sartzea indartuko dugu, eta gorabidean dauden sektoreetan enpresa berriak sortzea bultzatuko dugu.

5.- Euskal Lanbide Heziketaren gaitasunak hobetzen jarraituko dugu, errendimendu handiko prestakuntzaren bidez. Prestakuntza hori pertsonen premietara egokituko da garapen pertsonal eta profesionalerako, eta gure enpresen lehiakortasuna bultzatuko eta indartuko du. Gainera, unibertsitatearekiko ibilbideak, loturak eta lankidetzak zabalduko ditu, prestakuntza-maila handiko pertsonak lortzeko.

6.- Etengabeko ikaskuntza sustatuko dugu Euskadiko Lanbide Heziketaren bidez; prestakuntza-eskaintza oso malgu, doitu eta eskuragarri bat eskainiko dugu lanean ari diren edo langabezian dauden pertsona guztientzat, trebakuntza horrek beren lan-eremurako indartu ditzan.

7.- Pertsona behartsuei edo premia bereziak dituztenei lagunduko dien Lanbide Heziketa inklusiboa bultzatuko eta sendotuko dugu.

8.- Ekintzailatza-kultura bultzatuko dugu Lanbide Heziketako ikasleen artean, enpresak sortzeko proaktiboak izan daitezzen.

### UNIBERTSITATEA ETA ZIENTZIA

Goi-mailako hezkuntza da gizartearen bilakaeraren bultzatzaile nagusietako bat, eta funtsezko faktorea sistema sozioekonomiko oparoa eta lehiakorra bermatzeko. Lan-merkatuaren eta gizartearen eskaerei erantzuten dieten ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak dituzten profesionalak prestatzeaz gainera, jakintza sortzen du ikerketaren, berrikuntzaren eta teknologia-transferentziaren bidez.

EAJ-PNVk Euskadiko gainerako hezkuntza-sistemarekin konektatutako unibertsitate-sistema baten ikuspegia bultzatu du, eredu propio batean ainguratuta, zeinean funtsezkoak baitira unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana eta halako elementuak. Nazioartean ere konektatuta dagoen unibertsitate-sistema bat, garapen profesionalerako eta he-

## HEZKUNTZA Bikaintasuna helburu

rrialde gisa dugun lehiakortasunerako funtsezkoa den mugikortasuna bultzatzen duena.

Mundu osotik, goi-mailako titulazio-tasarik handiena duen lurraldeetako bat izatea lortu dugu, baina erronkak harago joan behar du: munduko erreferentzia izan behar dugu gure unibertsitate-sistemaren kalitateagatik. Horretarako, EAJ-PNVn konpromiso hauek hartzen ditugu:

1.- Konpromisoa hartzen dugu 2026-2030 aldirako Euskal Unibertsitate Sistemaren Plan berriak 2.500 milioi euroko inbertsio-ahalegin publiko-pribatu partekatua izan dezan. Plan horri esker, gutxienez 100 milioi euroko inbertsioak bermatuko dira hiru lurralde historikoetan unibertsitate-azpiegitura publiko berriak hobetzeko eta eraikitzeko, eta, finean, UPV/EHUK gizarteari eskaintzen dion zerbitzua sendotzeko.

2.- Unibertsitate Sistemaren Planeko baliabideak bikoiztuko ditugu unibertsitate guztietan, eta gutxienez hiru unibertsitate-makroproiektu bultzatuko dira euskal unibertsitate-prestakuntza nazioartean posizionatzeko eta kualifikazio handiko euskal eta nazioarteko talentua sortzeko ditugun beharrei erantzuteko.

3.- Ikasteko beken eta laguntzen sistema zabalduko dugu. Laguntzak jasotzeko prozesua arinduko dugu, eta haien zenbatekoa hobetuko dugu, urtean % 6 handituta. Gainera, euskal unibertsitateetan ikasketa ofizialak egiteko beka edo laguntza bermatuko da, plaza berretsi ondotik. Tresna espezifiko bat sortuko dugu, gazteek finantzaketa jaso ahal izan dezaten unibertsitate-ikasketak, ikasketa teknikoak edo profesionalak Euskaditik kanpoko beste ikastetxe bazuetan egiteko, eta, finean, talentua sortzen laguntzeko.

4.- Helburu gisa ezartzen dugu unibertsitate-eragileekin akordio zabal bat lortzea, ikasleei arreta berezia eskainiz. Akordio hori Euskadiko eta Nazioarteko Unibertsitate Prestakuntza eta Ikerketaren aldeko Gutun batean gauzatuko da, eta datorren hamarkadarako nazioarteko ikuspegia duen euskal unibertsitate- eta ikerketa-politikaren oinarriak jasoko ditu.

5.- Unibertsitate-prestakuntza dualak eta unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremanek elementu berezi izaten jarraituko dute gure unibertsitate-sisteman. Sakontzen jarraituko dugu lankidetzan aritzeko ikuspegi horretan gure enpresekin eta beste ingurune profesional batzuekin. Jankintza zientifikoa gizartera transferitzea sustatuko dugu, bai pertsoneri, bai enpresei. Ildo horretan, gure unibertsitateek dibulgazio zientifikoaren alde egitea sustatuko dugu, baita herrigintza sustatzen duten proiektuen alde ere, hala nola Basque Quantum Konputagailu Kuantikoa. Horretaz

gainera, azpiegitura zientifiko handi bat jarriko dugu gutxienez, Euskadi nazioarteko erreferentziazko nazio zientifiko gisa posizionatzeko gure ikerketa-arlo enblematikoe-tan.

6.- Euskarazko prestakuntzak funtsezko elementu jarraituko du izaten unibertsitate-politikan. Euskarazko unibertsitate-prestakuntza sustatuko dugu online Euskadiko unibertsitate guztietan, eta, batez ere, bizialdi osoko unibertsitate-prestakuntza. Berezi zainduko dugu gure unibertsitateen internazionalizazio-prozesua errespetuzkoa eta bateragarria izatea nazioarteko euskal unibertsitate-komunitatearekin, zeinean euskara eta euskal kultura izango baitira funtsezko elementuak.

7.- Gure ikertzaile gazteak Euskadin bizitzea nahi dugu, bai eta profesionalki bertan garatzea ere. Estaldura zabalduko diegu prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaile gazteei, eta % 6 handituko dugu urtero doktoratu aurreko eta ondoko programen aurrekontua. Bikoiztu egingo dugu kontratazio-epea gure doktoretza ondoko ikertzaileak itzultzen direnean, eta lau urtera iritsiko da.

8.- 2030erako zientzian, teknologian eta berrikuntzan barne-produktu gordinaren (BPGd) % 3ko inbertsio publiko-pribatua lortzeko helburuaren barruan, Ikerbasque programa areagotuko da datorren legegintzaldian, talentu ikertzailea erakartzeko. Helburua da 2030ean 500 ikertzaile kontratatu izatera iristea. Era berean, "Ikerbasque + Enpresa" programa abiaraziko dugu. Zientziak Euskadiko garapen ekonomiko eta sozialean duen inpaktua bultzatuko dugu, eta, horretarako, unibertsitateetako eta BERC bikaintasun-zentroetako ikerketa-taldeak indartuko ditugu; era berean, zientzia, teknologia eta berrikuntzako gainerako euskal sarearekiko lotura ere sendotuko dugu.

### INBERTSIOA HEZKUNTZA-AZPIEGITURAN

Datorren legegintzaldian, hezkuntza-azpiegitura hauek erai-ki eta/edo planifikatuko ditugu:

1.- Gaur egun egikaritzen ari diren obra aipagarri hauek amaituko ditugu: Etxebarri BHI, Muskiz BHI, Zumaia BHI, Salburua BHI eta Aldaialde HLHI (Gasteiz), Orixe BHI (Tolosa), Musakola HLHI (Arrasate) eta Astigarraga HLHI.

2.- Aurrera egingo dugu gaur egun martxan dauden proiektu aipagarri hauetan: Trueba Institutua (Barakaldo), José Miguel Barandiaran BHI (Leioa), Egape Ikastola BHI (Urnietan), Haizeder HLHI (Ea), Elorrieta-Erreka Mari LHII (Bilbo), Ispaster HLHI, San Jorge LHII (Santurtzi) eta Urkitze HLHI (Bakio).

## HEZKUNTZA Bikaintasuna helburu

3.- Hezkuntza-azpiegitura hauek diseinatuko eta abiaraziko ditugu: hezkuntza-azpiegitura berri bat Sopelan, Murgia IPI (Zuia), Aldaialde BHI (Gasteiz), Astigarraga BHI, Urritxe BHI (Amorebieta-Etxano), Gatika HLHI, Manuela Zubizarreta HLHI (Etxebarria) eta LH zentrua Balmasedan.

## ETXEBIZITZA Eskubide eraginkor baterantz

Etxebizitza-politika publikoaren eginkizun nagusiak izan behar du etxebizitza duina, egokia eta irisgarria eskuratzeko aukera erraztea, etxebizitza hori merkatu librean eskuratu ezin dutenekin pentsaturik. Bereziki, gizarte-premian dauden pertsonengana zuzenduko da, baina baita emantzipatzeko beharra duten gazteengana ere, eskubide subjektiboa aitortzeko atalasearen gaindik geratzen baitira, etxebizitza librean eskuratu ezinik; hori horrela, gure legedian jasota dagoen etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor bihurtuko da.

Etxebizitzaren arloko neurriak bereziki bideratu behar dira gazteengana; izan ere, kolektibo horrek ere beharrezkoa du etxebizitza, emantzipatu eta beren bizi-proiektuak eraiki ahal izateko. Baina bereziki bideratu behar dira, era berean, erdi-mailako klasearengana eta baliabide gutxi edo irisgarritasun-premiak dituzten adinekoengana. Aldi berean, askotariko egoerak aztertu beharko dira: alokairuko etxebizitza publikoen parkea ugaritzea, gazteei etxebizitza bat erosteko finantzaketa eskuratzeko baldintzak erraztea, birgaitze-lanak sustatzea eta alokairua indartzea, guztia ere segurtasun juridiko handiagoa eskainiz, etxebizitza baten jabetzarako eskubidea eta haren funtzio soziala bateragarri egiteko.

Ezinbestekoa da udalen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren hobea ezartzea, etxebizitza sozialak eraikitzeke ordenatuta dagoen lurzorua mobilizatzeko aldera. Baina, horretaz gainera, premiazkoa da etxebizitza hutsak eta lehendik dagoen eraikuntza ohiko etxebizitza gisa erabiltzeko mobilizazio-formula berriak artikulatzea: errentarientzako pizgarri fiskalak, alokairuko bitartekaritza publikoko programak hobetzea (Bizigune eta ASAP), egoiliarren lagapenak baterako ordainketak murriztearen truke, erabiltzen ez diren higiezinak birgaitzea...

Errealitate hori kontuan hartuta, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu etxebizitzaren arloan:

- 1.- Baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortuko dugu, eta etxebizitza sozial bat edo, kasuaren arabera, etxebizitza-prestazioak eskuratzeko bermatuko dugu.
- 2.- Abal-lerro bat sortuko dugu legealdian, 200 milioi euro artekoa, gazteengana soilik bideratua, finantza-erakundeek prezioaren % 100ean finantzatu ahal izan dezaten lehen etxebizitza baten erosketa.
- 3.- Eusko Jaurlaritzak abal-lerro bat sortuko du, errenta-mendu-kontratuen fidantzak estaltzeko.
- 4.- Etxebizitza sozialak eta babestuak eraikitzeke eta sustatzeko politikak bultzatuko ditugu. Etxebizitza-parke pu-

## ETXE BizITZA

### Eskubide eraginkor baterantz

blikoa handituko dugu. Alokairu-araubideko 7.000 etxebizitza eraikitzeke edo gaitzeko plan bat diseinatuko dugu 2030era arte, eta 36 urtetik beherakoentzat gordeko dugu etxebizitza horien % 40.

5.- Neurri gehiago jarriko ditugu abian eskubide subjektiboaren atalasearen gaitetik dauden baina, aldi berean, merkatu librean sartzeko zailtasun handiak dituzten gazte langileei zuzenduta.

6.- Foru-ogasunekin koordinatuta, ohiko etxebizitza eros-teko eta alokatzeko errenta-aitorpeneko zerga-kenkariak eutsiko diegu, etxebizitza-kontua barnean harturik. Alokairuaren merkatua bultzatuko dugu pizgarri fiskalekin eta berme juridiko handiagoekin, eta, foru-ogasunekin batera, errentatzaileei kenkari fiskalak egitea aztertuko dugu, errentariok 35 urtetik beherakoak, 65 urtetik gorakoak edo diru-sarrera txikiak dituzten pertsonak direnean.

7.- Etxebizitza Parke Publikoa baliatuko dugu truke-bitarteko gisa, adinekoen eta/edo mugikortasun urriko pertsonen jabetzako etxebizitzaren kasuan. Pertsona horiek irisgarritasun-baldintza egokiak dituen etxebizitza bat eskuratu ahal izango dute, etxebizitza administrazioaren esku uztearen truke, zeinak alokairu sozialera bideratuko baitu.

8.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea ez ezik Etxebizitzari buruzko Legea ere aldatzeko aukera aztertuko dugu, eta beharrezko adostasunak lortuko ditugu, helburu hauekin:

- Udal-eskumeneko hirigintza-tresnak bizkorrago izapidetzea, etxebizitza-eskaintza handiagoa ahalbidetuko duten Plan Orokorren erreformak edo horien aldaketa puntualak errazteko, betiere beharrezko bermeei eutsirik. Lurzoruaren plangintzan eta kudeaketan esku hartzen duten administrazio guztiak koordinatu eta taldekatuko ditugu izapide bateratu baten pean, lurzoruaren kudeatzaileei segurtasun juridikoa eta arintasun handiagoa emateko. Prozedura-izapidetzeak eragiketen segurtasun juridikoa bermatu behar du, baina ezin da izan eragiketen pizgarria kentzeko elementua.
- Erakunde eskudunei, alokairuko etxebizitzaren eskaintzaz gainera, jabetzako etxebizitza publiko babestuak sustatzeko aukera ematea.
- Lurzoru urbanizagarriko eremuetan etxebizitza babestuaren tipologia-estandarrek berregokitzea komeni den aztertzea, halakoak garatzeko zailtasuna egiaztatuta. Bizitoki-larrialdiko egoera baten aurrean, ez genduzte edukit behar lurzoru ordenaturik hutsik, bideraezina baita hori.
- Etxebizitza babestuen jarduketan oreka ekonomikoa lortzea, eta, horretarako, behar bezala eguneratzea moduluak.

9.- Erakundearen arteko konpromisoa bultzatuko dugu (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak), Euskadin etxebizitza babestuak eraikitzeke jada kalifikatuta dagoen lurzoru aktibatzeke formulak bilatzeko.

10.- Zenbait motatako etxebizitza babestuak sustatuko ditugu: Babes Publikoko Etxebizitza Sozialak (alokairuko edo jabetzako), araubide bereziko Babes Publikoko Etxebizitza Tasatuak eta araubide autonomikoko Babes Publikoko Etxebizitza Tasatuak. Hau da, areagotu egingo dugu Etxebizitza Sailaren ahalegina, udalen edo sustapen pribatuaren esku geratu diren tipologia kontuan hartuta, lagungarriak izan baitaitezke etxebizitza sozialen edo erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintzara iritsi ez diren gazteak emantzipatzeko, batez ere etxebizitza berrien edo bigarren eskuko etxebizitzaren merkatu libretik kanpo geratzen diren udalerrietan.

11.- Udalekin lankidetzara proaktiboagoa lortuko dugu, eta, besteak beste, arau orokorrak ezarriko ditugu hirigintza-lagapenen bidez lortu ahal izan dituzten partzelak eskura ipintzea errazteko, edo, bestela, zuzkidura-bizitokirako lurzorua doan lagata babes ofizialeko etxebizitzetarako eta tasatuetarako, tasazio-prezioan salgai.

12.- Babes publikoko etxebizitza bat eskuratzeko gehieneko diru-sarreraren tartea handituko dugu. Egungo gehieneko diru-sarrerekin aukera horretatik kanpo geratzen da biztanleriaren zati bat, eta, aldi berean, zailtasun handiak izaten dituzte etxebizitza libre bat eskuratzeko oro har, batez ere hiri handietan edo metropoli-eremuetan. Orobat, kupo berri bat sartuko dugu (badaude dagoeneko kupoak 35 urtetik beherakoentzat, desgaitasuna edo behar bereziak dituzten kolektiboentzat...), etxebizitza babestuen sustapen bakoitzeko ehuneko bat Etxebizitzaren izena emanda denbora gehien daramaten eskatzaileentzat gordetzea ekarriko lukeena. Itxaron-zerrendak arintzeko modu bat litzateke.

13.- Kudeaketa hobetzeko eta, horrenbestez, higiezin jabeen segurtasun juridikoa indartzeko beharrezko baliabide finantzario eta juridiko berriak emango dizkiogu Alokabideri, eta horrek egun hutsik dauden etxebizitzaren alokairua merkaturatzea bultzatuko du.

14.- Bizigune programa indartuko dugu. Bitartekaritza-programa eraginkorra da etxebizitzarako eskubide subjektibo aitortuta daukaten pertsonen erantzuteko, lurzoru berriak okupatzeko beharra mugatzen duena eta gizarte-kohesioari laguntzen diona. Erreforma hori egin liteke behar diren erreformei —edo horien zati bati— diruz lagunduz, epe luzeagoan etxebizitza eskura izateko konpromisoarekin.

## ETXEBIZITZA

### Eskubide eraginkor baterantz

15.- Bitartekaritza publikoko ASAP programaren baldintzak hobetzea, etxejabe pribatuentzat erakargarriagoa izan dadin. Merkatu librean lehendik dagoen etxebizitza alokatzeko programa bat da, eta Etxebideren eskatzaileentzako eskaintza areagotu dezake, eskubide subjektiboa aitortzeko atalaseen gainera baitaude.

16.- Bizileku-formula berritzaileak zabalduko ditugu, hala nola aldi baterako bizitokiak, etxebizitza kolaboratiboak (cohousing), belaunaldien arteko etxebizitzak eta tutoretzapeko apartamentuak; horri esker, segurtasun juridikoa eskainiko dugu eta bideragarri egingo ditugu errealitate berriei erantzuten dieten proiektu horiek, hala egokitzen denean, kooperatibisten ekarpenen eta hileko kuoten bidez.

17.- Udalerrri jakin batzuetako hirigune historikoetan proiektu pilotuak aztertuko ditugu, baldin eta degradatuta badaude edo hutsik eta hilik geratzen ari badira, hiri- eta gizarte-egokitzapeneko soluzio berrien bidez. Horrek erakundearteko lankidetzak eskatuko du erabiltzen ez diren higiezinak eta/edo etxebizitzak erosteko, horiek berritzea eta alokairuko parke publikoan txertatzeko. Eta, finean, gentrifikazioari aurre egiteko.

18.- Udalekin lankidetzan, aholkularitza eta laguntzak emango dizkiegu etxejabe partikularrei, hirigune historikoetako etxebizitza zaharkituak birgaitzea ahalbidetzeko, bitartekaritza-programa publikoetan sartzeko konpromisoaren truke.

19.- Ekipamendu publikoen edo erabiltzen ez diren instalazioen (egoitzak, eskolak, bulegoak) jabe diren erakunde eta partikularrekin pentsaturik, mapaketa bat egingo dugu eta laguntza- eta aholkularitza-plan bat diseinatuko dugu, etxebizitza-erabileretara bideratzeko eta alokairu-parkea handitzeko. Prozedura arin bat arautuko dugu, eraikinen erabilera aldatu ahal izateko hiri-eremu finkatuetan, erabiltzen ez diren eraikin publikoak eta pribatuak bihurtu ahal izateko. Beharrezkoa da etxebizitza berriak eraikitzea, baina dagoeneko urbanizatuta dauden lurzorua erabiltzea da lehentasuna.

20.- Birgaitzeko esku-hartzeak bultzatuko ditugu irisgarritasun-arazoak eta energia-efizientziarik eza konpontzeko, dirulaguntza eta finantzaketa-lerro berriekin.

21.- Lankidetzak-hitzarmenak sustatuko ditugu foru-aldundiekin, adinekoek jabetzan dituzten etxebizitzak Eusko Jaurlaritzari lagatzeko; ondoren, alokairu-merkatura bideratuko dira, eta etxejabeak zuzenbaterako hori kenduko zaio egoitzari egindako ordainketetan.

22.- Hiriguneetan eta merkataritza-jarduera txikiko eremuetan erabiltzen ez diren etxabeen eta lonjen erabilera-aldaketak bultzatuko ditugu, etxebizitza bihurtu ahal izateko. Horretarako, beharrezko arau-aldaketak sustatuko ditugu.

23.- Azalera handiko etxebizitza zaharren banaketak bultzatuko ditugu, batez ere hiriburuetan. Horretarako, aholkularitza-zerbitzu bat eskainiko dugu, etxebizitzak alokairuko etxebizitza librean bitartekaritza-programetara erakartzeko (ASAP programara, kasu).

24.- Legea aldatzeko aukera aztertuko dugu, foru-aldundiek etxebizitzaren sustapenean segurtasun juridikoarekin inplikatzeko aukera izan dezaten —haiek baitute landa-garapenaren alorreko eskumena—. Hartara, hautabide bat izango da, gazteek ez ditzaten abandonatu landa-ingurune herriak.

25.- Etxebizitza-kooperatibak sortzeko udal-ekimenak aktibatuko ditugu, jabetzan izan daitezkeenak, interesa duten udalei aholkularitza emango dien bulego tekniko baten bidez.

26.- Etxebizitza kooperatibisten sustapenak erabilera lagatzeko erregimenean eraikitzea bultzatuko dugu, eta horrek erraztu egingo du etxebizitza pertsonalizatu baterako sarrera, hileko kuota baten truke. Kuota hori, irabazi-asmorik gabekoa izaki, ohiko alokairuarena baino txikiagoa izango da. Etxebizitza erabiltzeko eskubidea gutxienez 75 urtekoa izango da.

27.- Legegintza-neurriak eta/edo jardunbide egokien gidak ezarriko ditugu, zenbait udalerritan turismo-etxebizitzaren ugartzea segurtasun juridikoz mugatzeko.

28.- Etxebizitza alokatzeko Gaztelagun programako laguntzen irizpideak zabalduko ditugu, eta 30.000 eurora igoko ditugu banakako gehieneko diru-sarrerak.

29.- Emantzipa programaren barruan, 30.000 €-raino handituko dugu urteko diru-sarreraren muga, hilean 300 euroko laguntza bi urtez, 25 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzendurik.

30.- 2015eko Etxebizitzaren Euskal Legearen eta 2023ko estatuko Etxebizitzaren Legearen sintesirik onena aplikatuko dugu, eta gizartearen inpakturik onena izan dezan bilatuko dugu, bai etxebizitzan, bai autogobernua.

## ERRONKA DEMOGRAFIKOA Etorkizuneko Euskadi lantzen

Egoera demografikoa lehenetsuneko kezka da mundu zabaleko gizarte gehienetan, eta bereziki Europan. Gai horiek jorratzea oso konplexua da, eta, aldi berean, aukera-iturria. Bizi dugun desoreka demografikoa, neurri handi batean eta paradoxikoki, Euskadin pertsonen oinarritzko eskubideak babesteko eta hedatzeko garatu ditugun politika publikoen arrakastaren ondorioa da; esate baterako, osasun-arloan garatutakoena, luzatu egin baitira bizi-itxaropena eta desgaitasunik gabeko bizitza osasungarria izateko itxaropena.

Herri gisa, helburu estrategikoa da erronka demografikoari erantzutea. Garrantzitsuenetako bat, zalantzarik gabe, datozen hamarkadei begira. Gaztetu egin behar dugu Euskadi, belaunaldien arteko oreka hori funtsezkoa baita gure ongizate-eredua bermatzeko.

EAJ-PNVren lidergoarekin, Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategia jarri dugu abian. Estrategia horren bidez, desafio horri erantzuteko emaitza onenak lortzen ari diren herrialdeetan abian jarritako politikaildoari jarraitzen zaio. Seme-alabak hazten eta gazteak emantzipatzen laguntzeko politiketan inbertsio mardulak egin dituzten herrialdeak ditugu eredu, ugalkortasun-tasaren bilakaeran inpaktu positiboa sortu dutenak. Herrialde horiek, orobat, immigrazio-politika adimentsu eta ordenatua ari dira martxan jartzen, batez ere beste herrialde bat beren bizi-proiektuaren eszenatoki bihurtzea erabakitzen dutenen benetako integrazioa bilatzen duena; bide horretan, lehenetsi egiten dira beren lanaren bidez gizarte-balioa emateko gaitasun bereziak dituzten pertsonak.

### FAMILIA BABESTEA ETA JAIOTZA-TASA SUSTATZEA

Familiak laguntza ekonomikoak eta zerbitzuak (sozialak, osasunekoak, hezkuntzakoak) behar dituzte beren bizi-proiektua garatzeko, bai eta seme-alabak hazteko eta zaintzeko ere —baldin badituzte—, intentsitate handiagoarekin bizitzako lehen urteetan eta laguntzak haien aniztasunera egokituz. Era berean, beharrezkoak dira kontziliazio erantzunkiderako politikak ere. Jaiotza-tasari buruzko politikak bizi-proiektuen babesaren barruan sartzen dira, eta funtsezkoak dira, migrazio-politikekin batera, euskal gizartea gaztetzea bultzatzeko.

EAJ-PNVk laguntza-ildo horretan sakontzen jarraituko du, eta neurri hauek nabarmenduko ditugu:

1.- Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategiak eremu guztietan eskaintzen duen esparrua garatuko dugu, eta eguneratu, areagotu eta zabaldu egingo ditugu estrategia hori ebaluatzeko prozesu bakoitzean egiten dituen jarduerak.

2.- Zuzeneko laguntza 200 eurokoa izango da hilero ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko. Laguntza hori pixkanaka luzatuko da: gaur egun, seme-alabak 3 urte bete arte kobratzetik, 7 urte bete arte kobratzeraino, eta 10 urtera arte, familia ugarien eta guraso bakarreko familien kasuan.

3.- Haurreskolen eskaintza pixkanaka zabaltzea sustatuko dugu, lurralde-banaketa areagotuz, eta beste aukera batzuk bultzatuko ditugu ordutegi osagarrietan, kontziliazio-aukerak zabaltzeko.

4.- Aitatasun- eta amatasun-baimenak 24 astera arte luzatuko ditugu. Baimen berdinak eta besterenezinak; hartara, estalita geratuko da Osasunaren Mundu Erakundeak haurren bizitzako lehen sei hilabeteetarako gomendatzen duen amagandiko edoskitze eskusiboa.

5.- Ikuspegi demografikoa txertatuko dugu politika publiko guztietan. Izan ere, dimentsio honetako erronka bati erantzuteak esparru guztietatik lan egitea eskatzen du. Laguntza-tresna gisa, etorkizuneko belaunaldien behatoki bat sortuko dugu, ikuspegi demografiko hori landa- eta hiri-dimentsio bikoitzarekin txertatzen laguntzeko.

6.- Estrategiaren erakunde arteko dimentsioa zabalduko dugu, bai eremu fiskalean, bai erronka demografikoari erantzuterakoan erakunde-maila guztietan transbertsalak izan daitezkeen politika publikoen beste jardueratan. Eginkizun horretan, modu aktiboan inplikatuko ditugu foru-aldundiak eta udalak, bai eta gizarte zibileko beste eragile batzuk ere.

### GAZTERIA- ETA EMANTZIPAZIO-POLITIKA

Euskal gazteek laguntza eraginkorrak behar dituzte nahi duten adinarekin emantzipatzeko eta beren bizi-proiektuak autonomiaz garatzeko, gizartean bete-betean parte hartzeko eta beren eskubideak baliatzeko.

Onartu berri den Gazteriaren Legeak eskubide eta laguntza garrantzitsuak ezartzen ditu funtsezko faktoreetan, hala nola etxebizitza eskuratzean, kalitatezko enpleguan edo errentan, besteak beste. Ezinbestekoa da eskubide eta laguntza horiek ahalik eta epe laburrean egikaritzea.

Programa honen beste atal batzuetan gazteentzat deskribatutako neurriez gainera (hezkuntza, etxebizitza, enplegua), EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu gazteei dagokienez:

1.- Gazteentzako kalitatezko enplegua sortzen lagunduko dugu, eta, horri esker, soldata onak, lan-baldintza egokiak,

## ERRONKA DEMOGRAFIKOA Etorkizuneko Euskadi lantzen

anbizio handiko garapen profesionala eta lan-malgutasun handiagoa lortuko ditugu, bai eta lana eta bizitza pertsonala ondo uztartzea ere.

2.- Laguntzak areagotuko ditugu gazteek arrazoizko prezioan eskuratu ahal izan dezaten alokairuko etxebizitza, bai dirulaguntza-programen bidez, bai pizgarri fiskalen bidez, guztia ere foru-ogasunekin elkarlanean.

3.- Legealdian alokairuko 7.000 etxebizitza eraikitzea bultzatuko dugu, eta 36 urtetik beherakoentzat gordeko ditugu horien % 40.

4.- Emantzipa programaren barruan, urteko diru-sarreraren muga 30.000 €-raino handituko dugu, hilean 300 euroko laguntza bi urtez, 25 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzendurik.

5.- Etxebizitza alokatzeko Gaztelagun programako laguntzen irizpideak zabalduko ditugu, eta 30.000 eurora igoko ditugu banakako gehieneko diru-sarrerak.

6.- Abal-lerro bat sortuko dugu, 200 milioi euro artekoa, gazteentzat soilik, finantza-erakundeek prezioaren % 100ean finantzatu ahal izan dezaten lehen etxebizitza baten erosketa.

7.- Udalekin hitzarmenak sustatuko ditugu udal etxebizitza-planak bultzatzeko eta gazteentzako alokairu-etxebizitzak gaitzeko, eta txandakako 3.000 etxebizitza berri sortuko ditugu.

8.- Foru Aldundiekin eta Udalekin lankidetzan, bizkortu egingo dugu GAZ Zerbitzuaren bulegoak abiarazteko prozesua (Gazteriaren-ibilbideak Abiarazteko Zerbitzua), gazteen emantzipazio-prozesuei buruzko informazioa, orientazioa eta laguntza pertsonalizatua eskaintzeko, eta eskura jarriko dizkiegu baliagarri dituzten baliabide guztiak.

9.- Beka-programak indartzeaz gainera, epe luzera itzultzeko mailegu-programa bat sortuko dugu gazteen prestakuntza-proiektuak finantzatzeko, hala nola graduondoko ikasketak edo hizkuntzak ikastea. Baliabide ekonomikoaren eskuragarritasuna ezin da oztopo izan gazteek prestakuntzarik onena lortzeko.

10.- Gazteen enplegua babesten jarraituko dugu, lehenbiziko lan-esperientzia lortzeko. Aldi berean, enpresetako praktika-programak kontrolatuko ditugu, tresna horren abusu-egoerak saihesteko.

11.- Basque Green Talent (enplegu berdea) programa jarriko dugu martxan, gazteak ekonomia zirkularraren aukeretan trebatzeko.

12.- Belaunaldi-erleboko programak areagotuko ditugu bereziki zahartutako sektoreetan, hala nola lehen sektorean eta merkataritza txikian.

13.- Finantzaketa-tresna espezifiko bat bultzatuko dugu ekintzaile gazteei zuzendurik.

14.- Gazteriarekin herri-itun bat lortzeko akordio-prozesua amaituko dugu. Ildo horretan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan, elkarrizketa-espazioak bultzatuko ditugu, gazteek politika publikoak elkarrekin sortzen parte har dezaten, helburu gisa harturik haien beharrei erantzutea.

15.- Aisialdiko hezkuntza indartuko dugu, eta, horretarako, lankidetzan jardungo dugu gazteen autonomia, parte-hartzea eta konpromiso soziala sustatzen laguntzen duten aisialdiko sare eta taldeekin.

### EUSKADIKO GIZA KAPITALA INDARTZEA ETA ORDEZTEA

Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategiaren lehenetsuneko jarduera-ardatz berritza hartuko dugu Euskadiko giza kapitala indartzea eta ordezteko, gure lan-merkatuan belaunaldien arteko erreleboan eta eskulanaren defizitean sortzen diren zailtasun gero eta handiagoi erantzuteko. Defizit horrek eragina du gure lehiakortasunean eta ongizatean.

Ardatz horretan, zenbait lan-ildo izango ditugu.

- Talentua: kualifikazio handiko profesionalak erakartzea.
- Migrazioa: kualifikatutako eta kualifikatu gabeko profesionalak modu planifikatu eta ordenatuan erakartzea, eta haien erabateko integrazioa ziurtatzea.
- Itzulera: hezkuntza- edo lan-arrazoiengatik kanpora atera ziren euskal herritarrei Euskadira itzultzen laguntzea.
- Atxikipena: garapen profesionala lortzeko, Euskadin geratzeko aukera erakargarri bihurtzea.
- Diaspora: kanpoan dauden euskal komunitateei lotutako pertsonak Euskadira erakartzea.
- Gure pertsonen potentzial profesional guztia aprobetxatzea:

## ERRONKA DEMOGRAFIKOA Etorkizuneko Euskadi lantzen

- Gazteen enpleguari loturik, lan-baldintzak hobetzea.
- 55 urtetik gorakoak kontratatzeko pizgarri berriak.
- Enpleguan nahi ez den partzialtasuna murriztea.
- Dagoeneko Euskadin bizi diren etorkinen titulazioaren homologazioa bizkortzea.

### IMMIGRAZIOA, ASILOA ETA INTEGRAZIOA

Euskal errealitatea aldatu egin da, eta gora egin du Euskadira beren bizi-proiektua garatzera, elkarrekin bizitzera eta gure gizartean aktiboki parte hartzera etortzen diren pertsonen kopuruak. Historiako euskal gizarterik anitzena gara dagoeneko.

Guztiantzako herri bat eraiki nahi dugu, eta kulturartekotasuna eta immigrazioa kokatuko ditugu agendaren eta ekintza politikoaren gune nagusi eta estrategiko gisa. Aurrera egingo dugu euskal harrera-ereduan, oinarri gisa harturik inklusioa, gizarte-kohesioa, kulturartekotasuna eta bizikidetzaren, egungo eta etorkizuneko euskal gizartearen eraikuntzaren giltzarri gisa.

Horretarako, EAJ-PNVn konpromiso hauek hartzen ditugu:

1.- Euskal Harrera Eredua finkatuko dugu, Euskadira iristen diren pertsonen autonomia pertsonala, inklusioa eta eskubide eta betebeharren erabilera sustatzeko, eta eredu horri lotutako programen eta laguntza-baliabideen sarea bultzatuko dugu. Euskal Harrera Eredu hori indartzeko, harreraren, asiloaren eta babesaren transferentzia izango dugu (nazioarteko babes), eta indargarri izango dira, orobat, immigratuen arreta soziosanitarioa eta orientazioa, baita haien lan-baimenak ere. Politika hori koordinatzeko eta bultzatzeko tresna gisa, Emigrazioaren eta Asiloaren Euskal Agentzia sortuko dugu.

2.- Migratzaileak eta errefuxiatuak hartzeko programak indartuko ditugu. Harreragune programa pilotua garatuko

dugu, zeina harrera eta laguntza hobetzeko prozesu integral gisa sortua baita heldueran gizarteratzeko prozesuari loturik.

3.- Aholkularitza juridikoko eta laguntza espezializatuko zerbitzuak bultzatuko ditugu gizarteratze- eta bizikidetzaren prozesuetan.

4.- Laguntzeko familia-sarerik ez duten gazte etorkinei helduarora igarotzen laguntzeko programak indartuko ditugu.

5.- Genero-ikuspegia txertatuko dugu migratzaileei zuzendutako politiken diseinuan, emakumeen egoera espezifikoak eta haien errealitatea kontuan hartuta. Zehazki, bermatuko dugu zaintzaile gisa lan egiten duten etorkinek baldintza egokietan, duintasunez eta abusurik gabe dihardutela. Horretarako, adieraziko dugu Euskadin zaintza-langileak behar direla, eta erraztu egingo dugu sektore horretan lan egiten dutenen erregularizazio administratiboa; orobat, langile horien gaikuntza eta lan-merkatura konektatutako prestakuntza bultzatuko ditugu, bai eta trebakuntzan oinarrituriko errotzea ere, eta programak aktibatuko ditugu enpresekin lankidetzan.

6.- Euskadira bizitzera datozenen nortasun-elementuak errespetatu, zaindu eta balioetsiko ditugu, eta, aldi berean, gure nortasunera eta balioetara hurbilduko ditugu, pertsona horiek biltzen dituzten komunitateekin lotura-lana eginez. Zehazki, buru-belarri lan egingo dugu pertsona horiek euskal gizartean erabat onartuta dauden balioak txerta ditzaten, hala nola emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, gure gizartean errespetatzeko eta integratzeko elementu gisa. Euskalduntzeko bideak ere bultzatuko ditugu.

7.- Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Agentzia sortuko dugu, politika hori koordinatzeko eta bultzatzeko tresna gisa.



## GIZARTE-ZERBITZUAK

Euskadi, babesten eta zaintzen duen gizarte bat, inor atzean uzten ez duena

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari, pertsonak dira politiken ardatza eta erdigunea. Gizarte- eta gizarte-koherentzia lortzeko eta pertsonak indartzeko eta haien autonomia sustatzeko, behar-beharrezkoa da eskubide sozialak ezartzea, eta hori lehentasun bat da EAJ-PNVrentzat.

Eskubide horiek bermatzeko, ondasun babesgarri gisa egikaritzen dituzten gizarte-politikak ezartzen dira. Gizarte-politika transbertsual eta sektorearteko osaturiko paradigma berri batean aurrera egiteaz ari gara, inplikaturako administrazio guztiak ahalik eta gehien koordinatuta, inor atzean utzi gabe.

Aurrerabide hori erabakitasunez egikaritzeko, etorkizuneko gizarte-zerbitzuak planifikatu dira bigarren plan estrategikoaren bidez; ildo horretan, kontuan hartu dira egungo beharrak eta etorkizunerako aurreikus daitezkeenak, eta, hala, aurrea hartuko diogu hurrengo hamarkadetan gertatuko den inpaktuari, baby boom belaunaldiko jende gehiagok joko baitu sistemara. Zeregin horretan, ez da nahikoa izango orain arte egindako ahaleginari eustea; horretaz gainera, sistema efizienteago eta jasangarriago bihurtuko duten berrikuntzak txertatu beharko ditugu.

EAJ-PNVn, konpromiso hauen bidez heltzen diogu erronka horri:

1.- Desgaitasunen bat duten pertsonentzako bizimodu independentearen eredia zabalduko dugu komunitatean, erabiltzaileekin, familiekin eta kolektibo ordezkatzen duen elkarte-mugimenduetarekin batera, eta egoera bakoitzean beharrezko laguntzak emango dituen arreta-eredu bat sustatuko dugu, pertsona bakoitzak bizi-proiektu autorrealizatu bat garatu ahal izan dezan, bere ezaugarri pertsonalen arabera. Politikarik egokienak sustatu, indartu eta berrituko ditugu, zerbitzu gehiago eta hobekiak eskaini ahal izan ditzagun kolektibo horren independentzia eta ahalduzko sustatzeko, beren bizitzan jabe izan daitezzen eta haiek erabakitzen duten moduan egin dezaten.

2.- Gizarte Prestazioak Kudeatzeko Euskal Agentzia sortuko dugu, kudeaketa-organo bakar eta independente gisa, Euskal Autonomia Erkidego osoko gizarte-prestazioak planifikatzeko eta ebaluatzeko ikuspegi orokorra izateko. Agentzia hori Ogasunaren alorreko eskumena duen sailari atxikiko zaio, prestazioak gainbegiratzeko eta koordinatzeko, bai prestazio bakoitzari dagokionez, bai prestazio osoari dagokionez. Bateriaezintasunak identifikatzeko eta laguntza eta prestazio guztiak kobartzeko gehieneko zenbateko pertsonal edo familiarra ezartzeko aukera emango du, bermatu ahal izateko baliabideak beti iristen direla gehien behar dituztenengana. Horretaz gainera, agentziak ebaluazio-txostenak egingo ditu genero-ikuspegia aintzat harturik, erraz irakurtzeko moduko irizpideekin, herritar-

rrek prestazio horien zertarako eta benetako inpaktua jakin ahal izan ditzaten, ekitateari eta gizarte-koherentzia dagokionez.

3.- Gizarte-zerbitzuen zorroari buruzko dekretuaren ebaluazioa amaituko dugu, eta, kasuaren arabera, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea eguneratzeko aukera aztertuko dugu.

4.- Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioerako Euskal Sistema zabalduko dugu, eta baliabide berriak bultzatuko ditugu, eskubideei buruzko informazioa herritarrei hurbiltzeko eta benetan balia daitezten sustatzeko. Informazioa —irisgarria eta hizkuntza ulergarrian emana— funtsezko lehenbiziko urratsa da gizarte-zerbitzuen euskal sistemara sartu behar duen edonork sistema hori baliatu ahal izan dezan.

5.- Baliabideak eta laguntzak emango dizkiegu kalteberatasun sozial eta/edo ekonomikoko egoeran dauden familiei, eta haien oinarriko premiak aseko ditugu; era berean, ingurune seguruak eta osasungarriak sustatuko ditugu haurren garapen erabatekorako, haien eskubideen babesa eta sustapena aintzat hartuta politika publiko guztien ardatz nagusi gisa, halaxe baitago jasota etorkizuneko haurrak eta nerabeak bermatzeko estrategian.

6.- Gizarte-berrikuntzaren euskal ekosistema bat bultzatuko dugu gizarte-zerbitzuen eta gizarte-politiken eremuan, erronka sozialei administrazioarteko lankidetzaren bidez erantzuteko, guztia ere orpo orpo lankidetzan hirugarren sektore sozialarekin, enprekin, unibertsitateekin eta beste jakintza-eragile batzuekin. Gizalab Fundazioaren bidez -Politika Sozialeko Berrikuntza Zentroa- gizarte-ekintzailetzaren azeleragailu bat sortu eta bultzatuko dugu, inpaktu-ekonomiaren eta gizarte-berrikuntzaren balioa nabarmentzen duten proiektuei laguntza emateko zaintzaren eta politika sozial eta soziosanitarioen esparruan.

7.- Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen arreta indartuko dugu genero-ikuspegia aintzat hartuta, eta, ildo horretan, gizarretik baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen eta langabezia-egoera kronikoa duten gazte eta helduen lan-kontratazioa sustatuko dugu; bide horretan, arreta berezia jarriko dugu bizitegi-bazterkeriako egoeretan eta etxegabetasunaren prebentzioan, eta pertsona guztiek bizileku bat izateko konpromisoa hartuko dugu.

### ZAINKETAK

Euskadin 40 urte baino gehiago daramatzagu erreferentzia bihurturiko gizarte-zerbitzuen sistema bat eraikitzen, eta

## GIZARTE-ZERBITZUAK

Euskadi, babesten eta zaintzen duen gizarte bat, inor atzean uzten ez duena

gure lurralde-aniztasunak aberastu egin ditu sistema bera eta haren gizarte-politikak.

Baiezta dezakegu bizi-kalitate ona dugula. Halaxe erakusten du Europa mailako adierazlerik garrantzitsuenak, hau da, Zahartze Aktiboaren Indizeak, adierazten baitu Euskadik 37,3 puntu dituela. Hala, Europar Batasuneko herrialdeen batez-besteakoaren (35,7) gainetik gaude, argi eta garbi.

Gehiago eta hobeto bizi gara, eta geure etxean bizi nahi dugu, gure auzoan, ezagutzen gaituzten pertsonen inguratuta. Pertsona horiekin jarduten baitugu interakzioan, haiekin sozializatzen dugu, eta, azken finean, segurtasuna, erosotasuna eta onurak ematen dizkigute gure osasunari eta ongizateari begira. Horregatik, helburu gisa hartu behar dugu mendekotasun-egoerak ahalik eta gehien prebenitzea eta atzeratzea, eta, halako egoerak gertatuz gero, soluzioak eskaini behar ditugu, ahal den neurrian, familia- eta komunitate-ingurune horretan kudea daitezten.

Zaintza profesionalizatzea indartuko dugu, arreta soziosanitariorako eta etxean laguntzeko behar bezalako prestakuntza duten laguntzaile pertsonalen bidez, eta estatutu profesional bat eratuko dugu haien eskubideak aitortzeko.

Gainera, beharrezkoa da erakundeek familiako zaintzaileak zaintzea eta babestea, ez daitezten iritsi osasuna, harremanak eta/edo ekonomia honda dezaketen egoeretara. Azken batean, haien ongizate integrala bilatu behar dugu. Erabakitzen badute mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile nagusi izatea, haien beharretara egokitutako atsedenerako tresnak eta baliabideak eskaini behar dizkiegu, zaintza-prozesu horretan lagundu eta orientatu, eta laguntza ekonomikoa eman. Ildo horretan, denok izan behar dugu erantzunkide familia- eta komunitate-ingurune zainketetan, eta buelta eman behar zaio, halaber, zainketen feminizazioaren egungo errealitateari.

Batzuetan, iristen da mendetasun-egoeran dagoen pertsona etxean behar bezala zaindu ezina, eta, ezinbestean, egoitza-zentro batera joan behar izaten du, intentsitatea dela-eta etxean behar bezala eman ezin zaizkion zainketak bermatu ahal izateko. Ildo horretan, egoitzek arreta integrala eman behar diote pertsonari, haren nahiak kontuan hartuta eta haren lehentasunak eta interesak errespetatuta, mendekotasuna duen pertsona etxean bezalaxe senti dadin. Aldaketa hori ari da dagoeneko gertatzen, eta bizkortu egin behar dugu, foru-aldundiekin orpoz orpo.

Finean, gu guztioi dagokigu modu jasangarrian zaintzen duen Euskadi eratzea, guztiok izango baikara gure bizitzako uneren batean zaintzaileak eta zainduak.

Zainketen politikari dagokionez, konpromiso hauek hartzen ditugu:

1.- Aurrera egingo dugu, gaia kudeatzeko eskumena duten foru-aldundien eskutik, egoitza-sarea zainketetara bideratutako zentro-sare bihurtzeko. Zentro horiek 25 pertsona arteko bizikidetzak unitateak izango dira, komunitateari irekita egongo dira, egoiliarren arteko bizikidetzak bultzatuko dute belaunaldien arteko ikuspegitik, eta laguntza-premiak dituzten pertsonentzako etxe baten antzekoena bihurtuko dira.

2.- Erakundeak koordinatuko ditugu, etxean zaintzak behar dituzten pertsonak adin jakin batetik aurrera etxean behar bezala artatzen direla bermatzeko. Horretarako, sistema berritzaile bat jarriko dugu, zaintzaren pertsonalizazioan eta arriskuak prebenitzeko eta detektatzeko teknologiaren laguntzan oinarritua, eta, horrekin batera, erreferentziako zentro bat eskainiko dugu etxetik gertu, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta haien zaintzaileei zuzenduta.

3.- Nahi gabeko bakardadearen aurkako euskal programa espezifiko bat jarriko dugu martxan, bizitzako etapa guztietan, Eusko Jaurlaritzaren lidergoarekin, udalekin eta foru-aldundiekin lankidetzan, eta hirugarren sektore sozialaren eskutik, guztia ere daukagun lankidetzak publiko-sozialaren eredu sendoarekin.

4.- Eremu soziosanitarioko profesionalen prestakuntza hobetuko dugu —eta, bereziki, egoitzen alorrekoa—, arretaren kalitatea hobetzeko funtsezko elementu gisa, eta iraupen luzeko zainketen eredu berrira egokituko ditugu lan-dinamikak.

5.- Etxebizitza eta bizikidetzarako komunitate-alternatiba berriak bultzatuko ditugu (cohousinga, belaunaldien arteko etxebizitzak...) proiektu publikoen bidez, eta gizarte-ekimeneko proiektuak babestuko ditugu.

6.- Zainketako tokiko ekosistemak bultzatu, indartu eta ebaluatuko ditugu, familiaren, auzoen, arlo soziosanitarioaren, hirugarren sektorearen eta sektore unibertsitario-akademikoaren parte-hartzearekin, guztia ere udalekin eta foru-aldundiekin koordinatuta.

7.- Zaintzaren Itunarekin lorturiko oinarritzko akordioa herri-itun bilakatuko dugu: Euskadi Bizizaintza. Itun horren bidez, zaintzarako eskubidea bermatuko dugu, helburu gisa harturik tokiko ekosistema-sare bat eratzea, guztia ere genero-ikuspegian eta ikuspegi intersektzionalean sakonduz eta sektoreko enplegu-kalitatea hobetuz.

## BERDINTASUNA Beharrezko printzipioa

Euskadiko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak garrantzia hartu du erakundeen eta gizartearen agendan, eta gaur egun balio sozial handiko politika publikoa da. Gaur egun, gero eta handiagoa da berdintasun-politiken eskaria, eta zalantzarik gabeko herri-helburu bihurtu da gure gizartearen. Era berean, gizarte osoak salatzen du indarkeria matxista, eta Euskadiko botere publiko guztiak erakutsi behar dizkiote hortzak giza eskubideen urratze, lehen mailako arazo sozial eta osasun publikoko arazo gisa, eta, ildo horretan, botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazio estrukturalaren adierazpen gisa jorratu behar da.

EAJ-PNVren ustez, feminismoa estrategia politiko eta sozial bat da, gizarte osoak partekatu beharrekoa. Estrategia horren garapenak emakumeen eta gizonen eskubide-berdintasunaren defentsa adierazten eta inplikatzeko du, benetan berdintasunezkoagoa eta bidezkoagoa den gizarte bat eraikitzeko. Xede transbertsala izaki, uste dugu ikuspegi feministak presente egon behar duela gainerako politika sektorialen agenda diseinatzeko eta garatzeko.

Aurkezten ditugun berdintasun-politikek planteatzen dute beharrezkoa dela kontuan hartzea, emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioez aparte, gizakiok baditugula desberdintasunak eta diskriminazioak eragiten dituzten beste aldagai batzuk ere, hala nola adina, jatorria, baliabide ekonomikoak, sexu-aukera eta dibertsitate funtzionala. Horrek zaildu egiten du azterketa, eta, horregatik, egundoko erronka da berdintasun-politikentzat ikuspegi interseksionaletik lan egitea.

Asko egin dugu aurrera gizarte gisa, baina,aldi berean, asko daukagu egiteke. Gure helburua da berdintasun-maila handiena duten Europako eskualdeen artean kokatzea Euskadi. Horretarako, konpromiso hauek hartzen ditugu:

1.- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizten jarraituko dugu, eta ahaleginak eta bi egingo ditugu haietan guztietan okerrena desagerrarazteko: emakumeen aurkako indarkeria matxista. Emakume izatea oraindik ere arrisku-baldintza da mundu zabalean, baita Euskadin ere. Genero-ikuspegia beti kontuan izango duen agenda politiko bat formulatuko dugu. Genero-mainstreaminga izeneko erreminta aplikatu behar da, zeinaren helburua baita genero-transbertsialitatea txertatzea politika publikoen esku-hartze eremu guztietan, esparru estrukturalan esku hartzen duen eragin politikoko estrategia gisa, berdintasunean eraldatzeko orientatzeko.

2.- Autonomia, ahalduntze pertsonala eta kolektiboa, eta emakume guztien aintzatespena sustatzeko ekintzak garatuko ditugu, edozein adinetakoak, gizarte-eremutakoak eta jatorritakoak direla ere.

3.- Lan-merkatu inklusiboa sustatuko dugu, aukera-berdintasun eraginkorra eta diskriminaziorik eza bermatuko dituen pertsona guztientzat, enplegua eskuratzeari, sustatzeari eta mantentzeari loturik. Enpresetako berdintasun-planek legea betetzetik harago joan behar dute. Trakzio-elementu izan behar dute, euskal enpresek emakumeen eta gizonen potentziala baldintza berdinetan garatzen lagun dezaten, gizarte-arrakalak murriztuz eta garapen hori lehiakortasun-elementu bihurtuz.

4.- Indarkeria matxistaren arloan, arreta-zerbitzuak hobetzen jarraituko dugu, administrazioen (Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) arteko koordinazio eraginkor eta efizientearen estrategian oinarrituta, indarkeria matxistaren biktimek eskura izan ditzaten dagozkien zerbitzuak eta prestazioak. “24 orduko krisi-zentro” berriak arreta osoko, profesionaleko eta hurbileko baliabide berriak izango dira hemendik gutxira, emakumeen eta nesken sexu-askatasunaren aurkako indarkeria-kasuak artatzeko. Azken helburua izango da erreparazio osoa ematea emakume biktimei, guztia ere ikuspegi feminista, integrala eta interseksionala kontuan hartuta eta ahalduntze indibidual eta kolektiborako laguntza-prozesuekin.

5.- Uste dugu gizonak funtsezko parte izan behar dutela berdintasunean egindako aurrerapenetan. Genero-berdintasunak gizonari ematen dizkien onurak ikusarazteko politikak sustatzen jarraituko dugu, eta beharrezkoa izango da gizonak kontzientziatzea, parte hartzea eta inplikatzeko emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde, bai eta maskulinitate askotarikoak eta berdintasunezkoak sustatzea ere.

6.- Gure ahaleginak haurtzarora eta nerabezarora bideratuko ditugu. Gure neska-mutilak beharrezko eragileak izango dira, Euskadiko gizarte emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik eraldatzeko prozesuan.

## LGTBIQ+ Finkatu beharreko eskubideak

EAJ-PNVk gidaturiko erakundeetan, aurrerapen handiak egin ditugu LGTBIQ+ komunitatearen eskubideak aitortzeko eta egikaritzeko.

1994ra jo dezakegu, EAJ-PNVk aldaketa horiek nola bultzatu dituen azaltzeko. Vitoria-Gasteiz izan zen bikote homosexualen erregistro zibila ontzat eman zuen lehen udalerrria, José Ángel Cuerda alkate zela. 2000. urtean sortu zen Bizkaiko Foru Aldundiko lehenbiziko Aniztasuneko Zuzendaritza Nagusia. Haren eginkizunen artean nabarmentzen zen LGTBIQ+ eskubideak berariaz babestea, eta lehen euskal erakundea izan zen errealitate horri buruzko sentsibilizazio-kanpainak abiarazten. Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra, orobat, aitzindariak izan ziren trans pertsonen eskubideak aitortzen, eta 2012an onetsi zen transexualak ez diskriminatzeko lehenbiziko legea, zeina berriki egokitu baita, EAJ-PNVren bultzadari esker.

Eta ez dira izan aldaketa bakarrak. Agian hain agerikoak ez diren arren, EAJ-PNV funtsezko pieza izan da askotariko erremintak sortzeko, hala nola Gurutzetako Berdindu genero-unitatea —sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaietarako informazio- eta arreta-zerbitzu publikoa—, hezkuntza-protokoloak, berdintasunezko ezkontza babestea, LGTBIQ+ ekitaldiei laguntzea, gorroto-delituei hartzak erakustea... Era berean, beste administrazio batzuek gidaturiko aldaketak ere babestu ditu, adopzio-eskubidea, kasu.

Finean, LGTBIQ+ komunitatearen aliatu handia izan da EAJ-PNV, eta erreferentzia da esparru horretan. Argi eta garbi aldarrikatu behar dugu hori, gai hori berena bakarrik dela uste dutenen eta ondare bihurtzen saiatzen direnen aurrean. Ildo horretan aurrera egiten jarraitzeko, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- 1.- Tratu Berdintasunerako eta Diskriminazioaren kontrako Legea onetsiko dugu.
- 2.- Estrategia jakin bat bultzatuko dugu, LGTBIQ+ kolektiboaren erronkei modu integralean heltzeko (sailen artean), Garapen Jasangarrirako Helburuen ikuspegitik. Orain arte sailetan bereizita egiten diren ekintzak koordinatuko dituen estrategia bat, zeinak oinarri gisa izango baititu LGTBIQ+ kolektiboak Euskadin dituen beharrak identifikatzeko azterlanak. Estrategia hori baliagarria izango da, halaber, Euskadi LGTBIQ+ pertsonentzako herrialde errespetuzkoa eta abegikorra dela balioesteko.
- 3.- Sentsibilizazio-kanpainak garatuko ditugu, LGTBIQ+ errealitatea eta haien eskubideak ezagutarazteko.
- 4.- Euskal administrazio publikoetako langileei trebakuntza eskainiko diegu; horretarako, LGTBIQ+ aniztasunari buruzko berariazko prestakuntza-moduluak sortuko ditugu eta haien eskubideak babesteko bideak ezarriko dira, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) prestakuntza-planaren barruan.



# EUSKADI BERDEA ETA JASANGARRIA



## TRANTSIZIO ENERGETIKOA

### Energia garbia eta energia-subiranotasuna

Berotze globala gero eta intentsitate handiagoz astintzen gaituen errealitate egiaztagarria da. Datuek erakusten dutenez, atmosferako berotegi-efektuko gasen isurketaren ondorioz, batez besteko tenperatura gaur egun 1 °C baino gehiago igo da industriaurreko garaiekin alderatuta. 2050ean karbono-neutraltasuna lortzeko helburu anbiziotsuei esker, atzeraezina bihurtu da erantzuna.

Bizkor erantzun behar dugu, baina, batez ere, ondo erantzun behar dugu. Trantsizio energetikoak ordenatua eta koherentea izan behar du, eta behar bezala koordinatu behar ditu industria, teknologia, energia eta ingurumena; orobat, aprobetxatu egin behar da kalitatezko enplegua eta oparotasuna sortuko dituen garapen ekonomiko arduratsua babesteko aukera.

Ildo horretan, mugarri izango da Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legea onetsi berri izana. Arau horrek ingurumen-helburuak ditu, baina haren xedeen artean dago, era berean, Euskadiren energia-autonomia areagotzea, esparru geopolitikoan izan daitezkeen gorabeherak hobeto saihesteko. Arau ona da, eta garatu egin beharko da datozen urteetan.

Funtsezkoa da trantsizio energetikoaren arloan, energia-efizientziaren aldeko ahaleginak lasaitu gabe, energia garbia sortzea, baina hori bezain garrantzitsua da kontsumoaren eta garraioaren elektrifikazioa ere. Horretaz gainera, trantsizio energetikoari heltzerakoan, gai izan behar dugu trantsizio hori inklusibo egiteko, saihestekoa baita baliabide ekonomikorik ez dutenek beren gain hartu behar izatea deskarbonizazioaren kostuak.

Jabetu egin behar dugu trantsizio energetikoak Euskadiko eragile askorentzat dakartzan kostuez, eta ez ekonomikoez bakarrik. Burokrazia arintzeko eta tramitazioa murrizteko lan egin behar dugu; izan ere, askotan, EBko politiken ondorioz, zaildu egiten da euskal enpresen egunerokotasuna eta moteldu egiten da haien lehiakortasuna.

EAJ-PNVk gidatuko du trantsizio energetiko-klimatiko hori. Horretarako, konpromiso hauek hartzen ditugu, energia berriagarriak sortzeko eta gure ekonomia deskarbonizatze bidean aurrera egiteko:

1.- Planifikazio-esparru berri bat bultzatuko dugu, eta haren barruan jasoko dira Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Epe Luzeko Ibilbide Orria, 2030erako Trantsizio Estrategiak eta Lurralde Historikoetako eta toki-erakundeetako Klima eta Energia Planak. Plangintza horrek pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko neurriak jasoko ditu, eta koordinaturik egongo da Euskadiko 5.000

biztanletik gorako udalerriekin, klima- eta energia-planak izan ditzaten. Plan horietan berotegi-efektuko gasen isurketen azterketa, elementu kalteberen identifikazioa, klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko helburuak, eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak jasoko dira, eta Udalsarea 2030 Sareak emango die babesa.

2.- Klima-aldaketaren aurkako borrokari loturik, Euskadiko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legean aurreikusitako ekimenak garatuko ditugu, eta dagokien erregelamendua proposatuko dugu.

3.- Energia-efizientzia lagunduko duten inbertsioetarako laguntza-mekanismoak areagotuko ditugu, bai industriaren esparruan, bai jarduera publiko eta pribatuetako establezimendu eta eraikinetan, bai Euskadiko etxebizitzaparkean.

4.- Foru-ogasunekin lankidetzan, trantsizio energetikoa eta klima-aldaketa sustatuko dituen fiskalitate berria bultzatuko dugu. Fiskalitate berri horrek kargak ezarriko ditu berotegi-efektuko gas-emisioak areagotzen dituzten edo haiekiko kalteberatasuna handitzen duten jarduketan gainean, eta, aldi berean, pizgarri fiskalak sustatuko ditu isuriak arintzea, murriztea eta xurgatzea sustatzen duten jardueretarako, bai eta klima-aldaketara egokitzea bultzatzen dutenetarako ere.

5.- Ehun euskal udalerririk Klimarako eta Energiarako Alkaeten Itunean bat egitea sustatuko dugu.

6.- Jasangarritasun energetikoa bultzatuko dugu administrazio publikoaren eraikinetan eta sustapen publikoko etxebizitzetan, birgaitze-soluzioen eta energia-kontsumoko ekipamenduak hobetzearen bidez.

7.- Neurri egokiak ezarriko ditugu etxebizitza berriek autokontsumo termiko handia dutela eta 2040an eraikinen efizientzia-energetikoaren helburuak betetzearekin bat datoze la ziurtatzeko, eta ez diegu eskatuko inbertsio osagarri handirik haien erosleei.

8.- Berokuntzan energia elektriko berdea zabaltzea eta erabiltzea sustatuko dugu, baita autokontsumo termikoa aerrotermiaren bidez erabiltzea ere.

Horretaz gainera, sorkuntza berriztagarriko potentzia-instalazioa ezinbestekoa da klima-helburuak betetzeko, bai eta gure ehun ekonomikoa eraldatzeko eta deskarbonizatze ere; halaber, kalitatezko enplegu-iturria da, eta baliabideak eskaintzen ditu gure ongizate-estatu aurreratuari eusteko eta

## TRANTSIZIO ENERGETIKOA

### Energia garbia eta energia-subirantotasuna

indartzeko. Erabakigarria izango da haren lehiakortasunari eustea, bigarren mailako lehengaiak sartzea, eta prozesuak eta produktuak deskarbonizatzea. Alde horretatik:

1.- Zero kilometroko sorkuntza-proiektu berriztagarrien sustapena areagotuko dugu tokian-tokian, herritarrek, merkataritzak eta enpresa txikiek hurbileko energia eskuratu ahal izan dezaten, gertukoa, berdea eta lehiakorra; industria-eremuetan, berriz, sorkuntza berriztagarriko instalazioak erraztuko ditugu, lehiakortasuna hobetzeko, deskarbonizazioa ahalbidetzeko eta etorkizuneko bideragarritasuna ahalbidetzeko, ongizate-estatuari eusteko enplegua eta baliabideak sortuko direla ziurtatuz.

2.- Energia Komunitateen aldeko apustu irmoa egingo dugu, energia berriztagarrien sorrera handitzeko eta euskal herritarrak arlo horretan ahalduz lortzeko tresna gisa, kontsumitzaile izatetik protsumitzaile izatera igaroz (produktore + kontsumitzaile).

3.- Udalen eta eskualdeen ekimenak babestuko ditugu Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) bidez; horretarako, ibilgailu espezifikoko aktibatuko ditugu inbertsioak finantzatzeko eta haiei lotutako administrazio-izapideak erraztuko ditugu.

4.- Euskadin garatutako proiektu energetikoen sozializazioa areagotuko dugu, eta herritarren eta enpresa-sarearen eskura jarriko dugu Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) parte hartzen duen proiektuetan sortutako energia elektriko berriztagarriaren gutxienez % 30.

5.- Sorkuntza berriztagarriko 900 MW-ko instalazioa bultzatuko dugu, hurbiltasun-sorkuntza maximizatuz (auto-kontsumoa, energia-komunitateak...), tamaina handiako instalazioekin konbinatuta.

6.- Energiaren Euskal Erakundearen bidez, industria intentsiboaren deskarbonizazioan aurrera egitea ahalbidetuko duten proiektuak bultzatuko ditugu, nekez elektrifika daitkeen energia-kontsumoari dagokionez, eta, hala, energia-bektore berriak eskuratzea erraztuko dugu, hala nola hidrogeno berdea edo bioerregaien erabilera.

7.- Mugikortasunean deskarbonizatutako energia alternatiboak erabiltzea sustatuko dugu, erregai fosilen erabilera ordeztzeko eta garraioarekin lotutako isurketak murrizteko.

## LEHEN SEKTOREA

### Euskal landagunearen bihotza

Euskadiko lehen sektorea estrategikoa da, eta hiru alderdi nagusi biltzen ditu. Elikagaiak ekoizten ditu, lurraldea kudeatzen eta paisaia moldatzen du, eta, gainera, ingurune naturala zaintzen du.

Lehen sektorea ez da egon azken urteotan munduak izan dituen ziurgabetasun- eta ezegonkortasun-gertakarietatik kanpo, ezta urrik eman ere. Pandemiaren, gerren eta halako jazoeren ondorioz, neurrigabe garestitu dira lehengai nagusien eta itsas garraioen kostuak. Horregatik, arduraturik gaude sektoreari segurtasun handiagoa eskaintzeko, bai eta lehiakorrago eta jasangarriago bilakatzeko ere, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik.

Datozen urteetan, bi nekazaritza-eredu biziko dira elkarrekin. Gaur egun, Euskadin dugun ereduak lotura handia du gure lurrarekin, tokiko barietateak erabiltzen ditugu eta merkaturatze-bide laburrak dauzkagu. Batez ere euskal biztanleentzako elikagaiak ekoizten dira. Eredu hori kalitate-marken politikaz baliatzen da, zeina gure elikagai-sistema produktiboaren bizkarrezurra baita. Babestu eta zaindu egin behar dugu nekazaritza-eredu jasangarri hori.

Negoziaezina da eredu hori, eta, horri hala eutsirik, autohondadura-kuota handiagoak bultzatu behar ditugu. Kuota horiek teknologia modernoetan oinarritutako nekazaritza eta abeltzaintza sustatzetik etorri beharko dute, elikagaiak kantitate handiagoan ekoizteko, betiere bereizgarri dugun kalitatea zainduz. Lehen sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko, beharrezkoak dira berrikuntza, ikerketa, digitalizazioa eta dibertsifikazioa, baita trebakuntza teknologikoa ere. Aldi berean, gure lehen sektorearen iraupena eta etorkizuna bermatzeko, buru-belarri lan egin behar dugu haren jardueren errentagarritasuna areagotzeko eta sektorean dihardutenen bizi-kalitatea hobetzeko, bai eta belaunaldien arteko erreleboa aktiboki sustatzeko ere; horretarako, jarduera aintzatetsi behar da eta prestigioa eman behar zaio, eta pizgarriak behar dira pertsona gehiago modu eraginkorrean erakartzeko.

EAJ-PNVk baldintzarik gabe babesten du lehen sektorea gure elikadura eta etorkizuna ziurtatzeko, eta konpromiso hauek hartzen ditugu datozen lau urteetara begira:

1.- Elikadura Katearen Legea berrikusiko eta hobetuko dugu, eta eskumen propioko tresnak bultzatuko ditugu, hala nola Jardunbide Egokien Kodea eta Elikadura Katearen Behatokia. Horri esker, kate-maila guztiak integratu ahal izango dira, ekoizpenetik hasi eta kontsumoraino, eragile publiko eta pribatu guztien ekintza koordinatuen bidez alderdi guztiak betetzen direla bermatzeko, eta beharrezko giza baliabideak eta baliabide teknologikoak jarriko dira jardun horretarako.

## LEHEN SEKTOREA

### Euskal landagunearen bihotza

2.- Marken politikari buruzko hausnarketa kolektibo bat bultzatuko dugu, herritarrek marken inguruan duten pertzepzioa hobetzeko eta, hartara, gure produktu propioen salmentak areagotzeko.

3.- Lehen sektorean lan egiten duten pertsonen bizi-kalitatea hobetuko dugu, zerbitzu mankomunatuak emateko tresnen bidez (finantzaketa, ereite-zerbitzuak, uztak, aldi baterako lan-estaldurak...), behar dutenean oporrak edo denbora librea izateko aukera izan dezaten.

4.- Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) Plan Estrategikoa egokitzen lagunduko duten neurriak ezarriko ditugu; autonomia handiagoa eskatuko dugu hura aplikatzeko, eta interpretazioa malgutuko dugu, gure errealitatera egokitzeko.

5.- Ispilu-klausulak ezartzea bultzatuko dugu, hirugarren herrialdeetako inportazioei gure ekoizleei eskatzen zaizkien ekoizpen- eta jasangarritasun-estandar berberak eskatzeko; horri esker, lehia leiala bermatuko eta gure ekoizpena babestuko dugu.

6.- Ekoizleek eta operadoreek administrazioarekin egiten dituzten izapideak eta kudeaketak erraztuko ditugu, administrazioa arintzeko eta sinplifikatzeko lege berri bat sortuta. Lege horrek jarduteko modu efizientea eta arina eskainiko du, mota guztietako pertsoneri egokitu.

7.- Gure lehen sektorearen etorkizuna bermatuko dugu, eta, horretarako, belaunaldi-erleleboa ziurtatuko dugu, Gaztenek Programa berraztertzearen eta sentsibilizazio-programak, neurri pizgarriak eta arau-aldaketak hobetzearen bidez, gazteak lehen sektorerantz sartzeko laguntzeko.

8.- Lehen sektorearen jardueraren errentagarritasunaren aldizkako ebaluazioa egingo dugu, berehala esku hartu ahal izateko laguntza-neurri berrien bidez.

9.- Nekazaritza-lurren kontserbazioa sustatuko dugu, eta erabilera efizientea eta jasangarria ziurtatuko dugu epe luzearako nekazaritza-produktibitatea bermatzeko; horretarako, ustiategi berrietara bideratutako nekazaritza-lurren funtsa bultzatuko dugu eta bideragarri egingo ditugu lehendik daudenak. Neurri horrek eragin berezia izango du abeltzaintza-sektorean eta Arabako Errioxan.

10.- Nekazaritzaren eta parke fotovoltaikoen arteko oreka erraztuko duen teknologia segurua ikertzea eta garatzea bultzatuko dugu. Bi erabilera bateragarri egitea ahalbidetuko duen agrivoltaika garatuko dugu, eta sinergia positibo eta osagarriak sortuko ditugu lehen sektorerako.

11.- Familia-nekazaritzaren eredia bultzatzen jarraituko dugu, eta sektore- eta lurralde-errealitateetara egokituko den laguntza-sistema bat garatuko dugu; hari esker, gauza izango gara nekazaritzaren eta abeltzaintzaren garapen jasangarriari lagunduko dion euskarri finantzarioa eta teknikoa eskaintzeko. Familia Nekazaritzaren Legea sortuko dugu, eredu tradizional horri babesa emateko.

12.- Zerbitzu ekosistemikoak sortzen dituzten nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jardueretan zerga-onurak edo -kenkariak sartzeko aukera aztertuko dugu, foru-ogasunekin lankidetzan.

13.- Ezohiko finantzaketa-sistemak aztertuko ditugu tresna publikoen bidez, finantzaketa-lerro berriak garatu ahal izateko —interesa-tasa bigunekin eta amortizazio-aldi luzeekin—, ustiategiaren errentagarritasuna arriskuan jartzen duten merkatu- eta klima-egoerei erantzuteko.

14.- Gobernantza-esparru iraunkor eta dinamiko bat ezarriko dugu, nekazaritzako elikagaien sektorea ahalbidetuko duena euskal administrazioen eta nekazaritzako elikagaien erakundeen eta arrantza-erakundeen aurrean. Horretarako, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako eta Landa Garapenerako Batzordea erabiliko dugu foro egitura-tzaile gisa.

15.- Coworking-guneak garatuko ditugu Euskadiko landaguneetan, balio anitzeko zentro gisa, landa-eremuok dinamizatzen eta Euskadiko landa-ekintzaileek sustatutako proiektuak tutorizatzen eta laguntzen bideratuta, guztia ere LEADER lankidetzan neurriaren esparruan.

16.- Landa Behatokia ezarriko dugu, landa-ingurunean diseinatzen eta gauzatzen diren politika publikoek duten inpaktua ezagutzeko eta aztertzearen tresna gisa.

17.- Landa Garapenerako Euskal Sarea ezarriko dugu, landa-eremuetan lan egiten duten lurralde-garapenerako eragileak koordinatzeko.

18.- Zuraren euskal sektorean balio erantsi handiko konponbideen garapena bultzatuko dugu. Horretarako, hub bat sortuko dugu, eta, han, zuraren sektorearekin zerikusia duten enpresak, start upak, ekintzaileak eta bestelako erakundeak elkartuko dira elkarlanean jarduteko, eta elkarrekintza, lankidetzan eta ezagutza-trukea sustatuko dira enpresa-komunitate horretako kideen artean.

19.- Euskadiko eraikin publikoen eraikuntzan zura lehen-gai gisa erabiltzea lehenetsiko duen araudi bat bultzatuko dugu.



## LEHEN SEKTOREA Euskal landagunearen bihotza

20.- Euskadik lidergo eta laguntza sektoriala bere gain hartzea ahalbidetuko dugu, eta helburua izango da euskal administrazioek sarbidea, komunikazio aukerak, ordezkaritza eta lobby-gaitasuna edukitzea dena delako foroetan euskal basogintzaren eta zurgintzaren sektorearen errentagarritasuna, lehiakortasuna eta etorkizuna defendatzeko, oinarri gisa harturik jasangarritasuna eta sektorearen bereizgarri den berrikuntzarako orientazioa.

21.- Ehiza-jarduerak naturaguneeen kudeaketa egokian duen garrantzia balioesten dugu, lehen sektoreari laguntzeko jarduera gisa, bai eta erregistratu ditugun habitat-aldaketek sortzen dituzten beharrian eta erronken aurrean ere. Ehiza-jarduera ordenatu bat lagungarria izan daiteke espezieen arteko oreka lortzeko, eta desoreka-egoeran dauden naturagune batzuk hobeto kontserbatzea ekar dezake.

22.- Ingurumen-politikak eta natura-ingurunea edo animalien gaineko politikak zentzuz kudeatzearen alde egiten dugu, beste erakunde batzuetatik irits daitezkeen legediak -estatukoak zein Europakoak- Euskadiren beharretara eta berariazko errealitatera egokiturik, inplikaturako eragileek ordezkaritza izan dezaten, baita ehiza-sektoreak ere. Etor-kizunak, gainera, partaidetza-formula berriak eskatzen ditu, eta belaunaldien arteko erreleboak eta teknologia berriek tokia izan beharko dute. Neurri horiek babesa eman beharko diote lehen sektoreari, gero eta premia handiagoak baititu landa-ingurunearen eta habitaten kudeaketan.

## ARRANTZA

### Itsasertzeko Euskadi garatzeko motorra

Euskal arrantza-sektorea ezinbestekoa da elikaduraren ikuspegitik buruaskiak izaten jarrai dezagun eta, horrekin batera “zero kilometroko” eta kalitatezko produktua eman dezagun. Gainera, sektore hori gai da kalitatezko enplegua sortzeko, lehiakortasun-elementuak bermatzen baditugu.

Euskal arrantza-sektoreak, inguruko beste herrialde edo arrantza-komunitate batzuetakoak bezalaxe, zenbait zailtasun ditu aspalditxoan. Europar Batasuneko Arrantza Politikak sektorearen hedapenari ezartzen dizkion mugak dira zailtasun horien arrazoi nagusietako bat, ez baitira justifikatzen beti itsas populazioak babesteko arrazoi objektiboen bidez.

EAJ-PNVren ustean, diskriminatzailea da Europar Batasuneko Arrantza Politika estatuan eta, horrenbestez, Euskadin aplikatzeko araubide berezia, eta, horren ondorioz, jarduera hori garatzea mugatzen duen bi abiadurako Europa bat sortzen da.

Gure apustua da euskal arrantza-sektorea indartzea, euskal kostaldeko hiriguneetako sektore sozioekonomiko gisa. Aldi berean, belaunaldien arteko erreleboa sustatu behar dugu, baita emakumeak sektorean sartzea ere.

Errealitate hori kontuan hartuta, neurri hauek praktikan jaritzeko konpromisoa hartzen dugu:

- 1.- “Kuota-banku” bat garatuko dugu, Euskadiko arrantza-kuotak finkatzeko finantza-erreminta lagungarri gisa. Tresna horri esker, sektoreak arrantza-kuotak eskuratu ahal izango ditu, Euskadin jarraitzeko konpromisoari lotuta.
- 2.- Arrantza-kuoten kudeaketa propioa eskatuko dugu, lehiakortasun- eta jasangarritasun-printzipioei jarraikiz. Antxoaren eta hegaluzearen kuotak banatzeak, itsasontziko edo autonomia-erkidegoetako banakako kuota gisa, arrantzaren kudeaketa hobea bultzatuko du, eta maximitatu egingo da harrapaketen balio ekonomikoa.
- 3.- Basordasko Akuikultura Poloa garatuko dugu Euskadin akuikultura sustatzeko; horretarako, gaur egun erabiltzen ez diren instalazioak aprobeztatuko ditugu, edo hasiera batean jarduera horretarako pentsatuta ez daudenak baina garatzeko baldintza egokiak dituztenak.
- 4.- Itsas akuikulturako negozio-eredu berriak aztertuko ditugu gure kostaldeko itsaso zabalean, hala nola hegalaburra gizentzea.

## ARRANTZA Itsasertzeko Euskadi garatzeko motorra

5.- Itsasoko emakumeen baldintza soziolaboralak hobetuko ditugu; horretarako, haien kotizazio-oinarriak eguneratuko ditugu, beren jardueratik lortzen dituzten benetako diru-sarreretara egokituta.

6.- Belaunaldien arteko erreleboa babestuko dugu prestakuntzaren bidez, eta beharrezko ikastaroak antolatuko ditugu sektorean sartzen diren pertsonen profesionaltasun-zurtagiriak izan ditzaten, haien ezagutza egiaztatzeko.

7.- Kostaldeko udalerrien garapen jasangarria babesten jarraituko dugu, inbertsiorako eta garapen sozioekonomikorako laguntza-planen bidez.

## HIRI-BERRONERATZEA Gure auzoetako bizi-kalitatea hobetzen

Euskadin biztanleria-gune garrantzitsuak ditugu, demokrazia aurreko aldian eraikiak garai hartako bizitoki-premiei erantzuteko. Alabaina, gune horiek ez zuten izan behar adinako plangintzarik eta epe luzerako ikuspeirik, garapen jasangarriaren ikuspegitik kalitatezko hiri-ingurune bihurtzeko.

Euskadik egun bizi duen errealitateari erantzuteko -gero eta etxebizitza gehiago behar dira kuantitatiboki egonkorra den baina etxebizitza/pertsona ratio gero eta txikiagoa duen populazio batentzat-, sekula baino gehiago erreparatu behar diogu eraikitako hiriri, eta formula hori lehenetsi behar dugu, lurraldearen artifizializazioa areagotuko duten hedapen berrien orde. Herri eta hiri trinkoagoak behar ditugu, jasangarriagoak, elkarbizitza-gune gehiagokoak, merkataritza mardulagoa eta elkargune biziagoak dituztenak. Baita hobeto konektatutako herri eta hiriak ere, Euskadi Euskal Hiria bihur dadin.

Hiri-garapeneko eredu berri horretan, auzoaren errealitateak, gizarte-interakzio komunitarioko espazio den aldetik, berreskuratu egin behar du gure herri eta hirien plangintzan eta antolaketan duen eginkizun nagusia, eta, horretarako, funtsezkoa da ziurtatzea gure auzoek badituztela beharrezko elementu guztiak bizi-kalitate handiko espazio izateko.

EAJ-PNVk gure auzoen berroneratze integralaren eta jarraituaren aldeko apustua egiten jarraituko du. Horretarako, konpromiso hauek hartzen ditugu:

1.- Gure auzoen gaineko ikusmolde jasangarriagoa bilduko dugu lurralde-plangintzako tresnak berrikusterakoan, eta, hala, haien garapen sozioekonomiko orekatua eta jasangarria bermatuko dugu, lurraldearen erabilera arrazionalaren bidez.

2.- Udalekin orpoz orpo jardungo dugu lankidetzan, hirigintza-, gizarte- eta ingurumen-alorreko premiazko esku-hartzeak behar dituzten auzoak identifikatzeko.

3.- Open Gela eta halako berroneratze-ereduetan sakonduko dugu, eta eginkizun garrantzitsuagoa emango diegu inplikaturako udalei, haiek izan daitezten berroneratzearen benetako eragile, tokian-tokian duten ezagutzatik abiatu.

4.- Hiri-berroneratze prozesu horiek bizkortuko ditugu proiektu integralen bidez, foku nagusi gisa harturik komunitatearen partaidetza eta kolektibo kalteberenak artatzea.

## HIRI-BERRONERATZEA

Gure auzoetako  
bizi-kalitatea hobetzen

5.- Proiektu horien barruan, energia-efizientziarekin eta energia berriztagarriekin lotutako esku-hartzeak lehenesten alde egingo dugu, gure auzoak gune jasangarriago bihurtzeko eta energia-subiranotasun handiagoa izan dezaten.

6.- Proiektu horietan gizarteratzeko eta laneratzeko programak eta baliabideak txertatuko ditugu, Lanbidek finantzatutako eta tokiko bultzadaren bidez gauzaturako presakuntza- eta enplegu-proiektuen bidez. Programa horiek berronertzen lagunduko dute, eta, aldi berean, gaikuntza-tresna gisa balioko dute, programa horietan parte hartzen duten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko eta enplegu bat lortzeko.

## MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Garraio publikoaren eta mugikortasun  
aktiboaren aldeko apustu irmoa

Euskadik XXI. mendeko erronkei erantzun behar die mugikortasunaren alorrean. Dinamika sozial eta ekonomiko berriek eta larrialdi klimatikoari aurre egiteko garraioaren deskarbonizazioan aurrera egiteko premiak bat egin behar dute gure gizartearen aurrerapenarekin, modernizazioarekin eta garapen kohesionatuarekin.

EAJ-PNVn uste dugu beharrezkoa dela bilakaera bat izatea: mugikortasun-eskaerei azpiegitura berriak sortuz erantzutera bideratutako politika alde batera utzi, eta, horren ordez, lehendik dugun sarea eta haren eskaria efizientzia handiagoz kudeatzea eta, azpiegitura eta garraibide berriei dagokienez, behar-beharrezkoetan bakarrik inbertitzea.

Mugikortasun berriak lerrotatuta egon behar du aukera jasangarrietarantzko trantsizio energetikoarekin, baita trantsizio digitalarekin ere. Ekarpen nabarmena egin behar dio garraio publikoari, eta multimodalitatea eta intermodalitatea sustatu behar ditu. Deskarbonizazio handiagorantz egin behar da, eta ezinbestekoa da emisioak murriztea, bai eta mugikortasun-ereduen jasangarritasun handiagorantz egitea ere. Horretarako, teknologia berriak txertatu eta digitalizazioa bultzatu behar da, ibilgailu elektriko, autonomo eta konektaturantz aurrera egiteko. Horrekin batera, mugikortasun aktiboagoa ere integratu behar da: oinez zein bizikletaz.

EAJ-PNVn, mugikortasun jasangarriagoa eta arduratsuagoa bultzatzen jarraituko dugu. Horretarako, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- 1.- Abiadura Handiko Trena Euskadira ekartzeko azken lanak egingo ditugu.
- 2.- Salgaien trenbide-mugikortasuna sustatuko dugu, eta gure portu nagusietako salgaien trenbide-konexioa bultzatuko.
- 3.- Garraio publikoaren erabilera sustatuko dugu, erabilera-aren araberako deskontu progresiboen bidez.
- 4.- Tarifa-integrazioaren arloan aurrera egiten jarraituko dugu, azken finean, edozein pertsonak izan dezan Euskadin garraio publikoan mugitzeko aukera, txartel bakarrekin ibili ahal izateko edozein garraibide eta lurraldetan.

## MUGIKORTASUN JASANGARRIA

### Garraio publikoaren eta mugikortasun aktiboaren aldeko apustu irmoa

5.- Ibilgailu-parkea berritzea sustatuko dugu, erabilera- eta errenta-irizpideak ezarriz, eta, hala, barne-errekuntzako ibilgailuak erostea erraztuko dugu, askoz ere efizientea- goak diren eta gutxiago kutsatzen duten heinean.

6.- Sentsibilizazio-kanpainak egingo ditugu mugikortasun jasangarriago eta aktiboago baten inguruan.

7.- Eusko Jaurlaritzak portuen eta aireportuen eskumena bere gain hartzea eskatuko dugu, modalitate posible guz- tietan mugikortasun-politika jasangarria, integrala eta kohesionatua diseinatu ahal izateko.

## INGURUMENA

### Gure ingurune naturala eta gure osasuna zaintzen

Ingurumena zaintzea eta klima-aldaketaren aurkako borro- ka daude, gaur egun, munduko biztanleen kezka nagusien artean. Erronka globala dira, eta gai izan behar dugu horiei tokian-tokian erantzuteko.

2019an, Eusko Jaurlaritzak Larrialdi Klimatikoaren Adieraz- pen a egin zuen, eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrak berak berretsi. Adierazpen harekin, gure herrialdearen helburu nagusien artean txertatu zuen klima-aldaketa. Agiri hartan baieztatzen denez, berotze globala zalantzarik gabeko erreali- tate bat da, eta kudeaketa arduratsu egokiak onurak ekartzen dizkio ingurumenari eta pertsonen osasunari. Horretaz gai- nera, hazkunde ekonomiko jasangarriagoa lortzeko aukerak sortzen ditu.

Euskadik ibilbide luzea du ingurumen-politikaren arloan, eta horrek aurrerapen handiak eragin ditu ingurumen-adie- razle nagusietan (airea, ura, lurzorua edo hondakinak). Ala- baina, gaur egungo ingurumen-jasangarritasuneko erronken konplexutasunak eta sistemikotasunak bestelako erantzun politiko eta estrategikoak eskatzen dituzte. Beharrezkoa da ingurumen-politikatik jasangarritasun-politikarantz ebu- luzionatzea. Ingurumen-erronken tamainak funtsezko aldake- tak eskatzen ditu gure gizarte eta ekonomietan, eta horrek ondorioak ditu bizimoduan, enpleguetan, ohituretan... Solu- zio sistemikoak eta bestelako erantzunak behar dira, klima eta biodibertsitatea lehentasun gisa hartuta. Ildo horretan, ekonomiaren deskarbonizazioa eta desmaterializazioa dira helburu horiek lortzeko bideak. Iritsi da modu integrealean jarduteko unea, eta gure herriaren helburu nagusi gisa kokatu behar dugu trantsizio ekologikoaren auzia, Euskadi Europa- ko eskualdeen ingurumen-abangoardian kokatzeko, inguru- men-politikan berritzaileak diren programa eta tresnekin.

EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu arlo horretan:

1.- Azpiegitura berdeen programa anbiziotsu bat diseina- tuko eta ezarriko dugu, eta hala hurbilduko gara lurraldea- ren % 30ari babes juridikoa emateko Europak ezarritako helburura (gaur egun % 24ra iristen gara). Azpiegitura Ber- deen Euskal Estrategia landuko dugu, eremu natural eta erdinaturalen sare bat sortzeko, estrategikoki planifikatua; sare horrek gune babestuen multzo osoa lotuko du, saihe- tu egingo du balio ekologikoa duten eremuak isolatuta ge- ratzea, eta, hala, jarraipena emango zaie berariaz babestu- tzat jotako espazioei.

2.- Naturan oinarritutako soluzio-proiektuak sustatuko ditugu tokian-tokian eta eskualdeetan, eta ekosisteme- tan eta ekosistema horiek ematen dituzten zerbitzuetan oinarritutako ekintzak bultzatuko ditugu, klima-aldake- tari, elikagaien segurtasunari edo hondamendi-arriskuari erantzuteko.

## INGURUMENA

### Gure ingurune naturala eta gure osasuna zaintzen

3.- Ura, airea eta lurzorua batere ez kutsatzeko programa bat garatuko dugu ("zero kutsadura"), poluzioa osasunarentzat eta ekosistema naturalentzat kaltegarriak ez diren mailetara murrizteko. Programak arreta berezia jarriko dio airearen kalitatea hobetzeri, itsasoko zaborra eta mikroplastikoak murrizteari eta lurzorua kalitatea hobetzeri.

4.- Egungo azpiegituren gaitasuna indartuko dugu, murrerako gertaera meteorologikoei erantzun ahal izateko. Horretarako, zenbait neurri hartuko ditugu, hala nola klima-aldaketara egokitzeko jarduerak bultzatzea, alerta goiztiarreko mekanismoak diseinatzea, gure udalerrriak berdetzea eta naturalizatzea, karbono-hustubide izateko gaitasuna handitzen duten habitatak leheneratzea, eta barnean hartuko ditugu hiri-eremuak ere (hiri-berronertze moldagarria eta zirkularra), bereziki lehenetsiz ingurumenaren aldetik kalteberak diren eremuak eta bertako espezieen tokiko barietateak

5.- Gure ibaietan ingurumen-helburuak lortzea bultzatuko dugu, eta gure ahalmen hidraulikoa mantentzeko jarduketak gauzatu ditugu. Ezpondak egonkortzeko, presa txikiak kentzeko (ibaien arteko lotura handitzeko) eta flora-espezie inbaditzaileak kontrolatzeko eta ezabatze jarduerak egingo ditugu; era berean, ibaiertzak basoberrituko ditugu, espezie autoktonoak landatuz.

6.- Euskadin amiantoa desagerrarazteko programa espezifiko bat jarriko dugu abian. Programa horrek amiantoa duten elementuak eta espazioak identifikatuko ditu, eta, horien jarraipena eta kontrola egiteaz gainera, erretiratu ere erretiratuko ditu.

7.- Euskadiko Osasun eta Ingurumen Behatokia sortuko dugu. Behatoki horri esker, One Health (Osasun Bat) ikuspegia txertatu ahal izango dugu, helburu gisa harturik ingurumenetik eratorritako osasunerako arriskuak aurreikustea, ikerketa-ildo berriak identifikatzea, eta ingurumena kontrolatzeko eta zaintzeko sistemen eta ingurumenean eragina duten faktoreen eraginkortasuna hobetzea.

8.- Finantza Jasangarrien programa bat jarriko dugu martxan, euskal enpresen berrikuntza eta lehiakortasun berdea sustatzeko eta ingurumenean eragin positiboa duten inbertsioak erakartzeko. Programa horrek barnean hartuko du Euskadiko Aurrekontu Orokorra jasangarritasunarekin lerrotzea. Horrekin batera, ESG rating bat abiaraziko da euskal enpresetan, eta finantza jasangarriei buruzko master bat jarriko da abian.

9.- Ingurumenari buruzko informazio- eta dibulgazio-sistema ireki eta garden bat ezarriko dugu, euskal herritarrek gure ingurumen-adierazleen bilakaera ezagutu ahal izan dezaten.

10.- Trantsizio ekologikoari lotutako gizarte-berrikuntzako programa bat garatuko dugu, parte hartzeko eta eztabaidatzeko eredu aurreratuak bultzatuko dituen.

11.- Euskadiko ingurumen-zentroen Ekoetxea sarearen aldeko apustua indartuko dugu. Edukiak modernizatu eta egokituko ditugu, eta beste zentro bat sortuko dugu Araban.

12.- Udaletako eta eskualdeetako energia- eta klima-planak bultzatuko ditugu, eta plan horiek Klimaren eta Energiaren aldeko Alkatetzen Europako Itunean sartuko ditugu.

## EKONOMIA BERDEA ETA ZIRKULARRA

### Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak

Jarduera ekonomiko handiagoa lortu behar dugu baliabide material gutxiagorekin. Euskadin kontsumitzen ditugun materialen % 75 inportatuak dira, eta industria-kostuen % 50 inguru lehengaien kontsumoari lotuta dago. Mundu zabalean, gure egungo lehengai-kontsumoak 1,7 planeta beharko lituzke eskaera horri erantzuteko, eta horrek natura saturatzea esan nahi du.

Ekonomia zirkularra da arriskuok arintzeko eta gure ehun ekonomikoa indartzeko hautabideak eskaintzen dituen elementuetako bat da. Beraz, enpresetan zirkulartasun-tresnak aplikatzea funtsezkoa da lehiakortasuna hobetzeko, klima-aldaketari lotutako CO<sub>2</sub> emisioak murrizteko eta zabortegeian amaitzen duten hondakinak murrizteko.

Euskadin gertutik ezagutzen dugu kontzeptu hori. 2020-2024 aldian, nabarmen egin da aurrera arlo horretan, eta zenbait mugarri izan ditugu, hala nola Ekonomia Zirkularreko 2030 Estrategia, Ekonomia Zirkularreko eta Bioekonomiako 2021-2024 Plana, eta Basque Ecodesign Centre edo Basque Circular Hub sortzea. 400 euskal enpresa baino gehiago —horietatik % 80 ETEak— dagoeneko ari dira praktika edo eredu zirkularrak aplikatzen.

EAJ-PNVk ekonomia zirkularrean politika aurreratuenak bultzatzearen alde egiten jarraituko du, Euskadi Europako erreferentzia izan dadin arlo horretan. Horretarako, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- 1.- Ekonomia Zirkularreko eta Bioekonomiako 2025-2028 aldirako Euskadiko Plana onetsiko eta inplementatuko dugu.
- 2.- Euskadiko Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala onetsiko dugu, 2030 Hondakinen Plana betetzen dela bermatzeko.
- 3.- Hondakinak kudeatzeko proiektuak abian jartzea bultzatuko dugu, urtero zabortegetara bideratzen den milioi bat tona hondakini balioa emateko.
- 4.- Basque Green Talent (enplegu berdea) programa jarriko dugu martxan, gazteak ekonomia zirkularren aukeretan trebatzeko.

5.- Kontsumo Arduratsuko programa bat garatuko dugu, Euskadin kontsumo zirkular eta jasangarrirako itun sozial baten esparruan. Programa horrek ahaldundu egingo ditu euskal herritarrak, eskuratzen dituen produktuak eta zerbitzuak aldatzeko palanka gisa duen kontsumitzaile-rolan, eta modu koordinatuan lortu ahalko da ekoizpen-, merkataritza- eta kontsumo-eredu jasangarriago bat. Ituna ingurumen-inpaktu handiena duten kontsumo-esparruetan oinarrituko da: elikadura, ehungintza eta moda, ekipamendu elektriko eta elektronikoak, eta mugikortasuna.

6.- Ingurumen-etiketen garapena bultzatuko dugu nekazaritza- eta abeltzaintza-produktuetarako.

7.- Elikagaiak alferrik ez galtzeko neurriak sortuko ditugu, bai sentsibilizazioari dagokionez, bai kontrolari eta zehapenari dagokienez.

8.- Bultzada berezia emango diogu konpongarritasunari eta negozio-eredu berrien sustapenari, produktuei bigarren bizitza bat eta balio handiko birziklagarritasun-estrategiak emateko.

9.- Publizitatean erabiltzen diren “zuritze ekologikoko” edo greenwashing estrategien aurka borrokatuko gara.

10.- Bizi-zikloa Aztertze Euskal Sarea osatuko dugu. Tresna horren bidez, Euskadin fabrikatutako material eta prozesuei lotutako ingurumen-inbentarioaren datu berriak garatuko, baliozkotuko eta argitaratuko ditugu, eta Europar Batasunak sustatzen duen produktuaren ingurumen-pasaporteen erregistro publikoa sortu eta koordinatuko dugu.

11.- Jasangarritasuna ebaluatze sistema bat sortuko dugu ETEentzat.

12.- Digitalizazioari eta teknologia berriei laguntzeko programa bat garatuko dugu trantsizio ekologikorako, euskal enpresek blockchaina eta halako teknologiak eta produktuaren pasaporte digitala eta beste zenbait tresna balia dituzaten, jasangarritasun-politikan jauzi handi bat egiteko.

## EKONOMIA BERDEA ETA ZIRKULARRA Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak

13.- Plastikoen ekonomia zirkularreko programa bat egingo dugu, zabartegira bideratzen diren plastikozko hondakinak murrizteko, plastikoen eta ontzien arloko legedia betetzeko, eta hondakin horiek behar bezala kudeatzeko aukerak identifikatzeko.

14.- Finantzaketa-lerroak sortuko ditugu material elektrikoetara eta material handiei balioa ematen dieten eta ekonomia zirkularra bultzatzen duten enpresentzat.

15.- Ingurumen-irizpide berriak txertatuko ditugu partaidea hartzeari lehentasuna emateko, bai Euskadin enpresa estrategikoak errotzeko, zeina Finkatuz Funtzaren bidez egiten baita (Finantzen Euskal Institutuak edo Arrisku Kapitalen Kudeaketa Sozietateak eta haren arrisku-kapitaleko funtsek kudeatzen dute funts hori).

16.- Datuen trazabilitate adimenduna ahalbidetuko duten mekanismoak aktibatuko ditugu, hondakinak kudeatzeko.

17.- Urtero eguneratuko dugu Teknologia Garbien Euskal Zerrenda, zerga-ondorioetarako kontuan har dadin eta ekonomia zirkularra erraztu dezan.



OPAROTASUN INKLUSIBOA:  
EKONOMIA SENDOAGOA GIZARTE  
BIDEZKOAGO BATERAKO





## INDUSTRIA

### Euskadi berrindustrializatzea

Azken 40 urteotan, EAJ-PNVk bere sektore nagusien artean izan du Euskadiko ekonomiaren garapena, hazkunderako eta ongizaterako palanka gisa. Herri hau ez litzateke izango gaur egun dena, ekonomiaren arloan lidergo eraginkorrik izan ez balu, ingurune ekonomiko eta enpresarial dinamikoa bat sustatzera bideratua, arreta berezia jarri hazkuntzak, garapenak eta ongizateak osaturiko ekuazioari. Bultzada horrekin, berrikuntza sustatzen da, baita arriskuak neurritz hartzea ere, lidergo-jarrera gisa. Horregatik, Euskadik beti izan ditu presente ekonomia moderno, dinamikoa, garatu eta jasangarri baterako baldintzak, eta aberastasuna sortzea eta banatzea ahalbidetu du kalitatezko enpleguaren bidez. Era berean, beti izan dira ardatz nagusiak zerbitzu publiko sendoak sostengatzea, inor atzean ez uztea bermatzen duten gizarte-politikak garatzea, eta fiskalitate justu eta progresiboa garatzeko baliabideak sortzea.

Eredu arrakastatsu horren gobernantzak erakundeen arteko lankidetzak estua izan du oinarrian, baita lankidetzak publiko-pribatua ere. Gobernantza horren alde egiten jarraituko dugu etorkizunean, ekintza-tresnak eta -erremintak modernizatzen eta hobetzen.

Europak norabide argia hartu du jasangarritasunaren bidean, baita arlo ekonomikoan ere, eta jasangarritasuna gailentzeko eta lehiakortasunerako elementu bihurtu du enpresentzat. EAJ-PNVn, bat gatoz ikuspegi horrekin, eta horregatik bultzatuko dugu Euskadiren berrindustrializazioa lehiakortasun jasangarriantza, funtsezko hiru trantsizio ardatz hartuta: trantsizio energetikoa eta deskarbonizazioa, trantsizio soziala eta teknologiko-digitala. Baliabideak erabiltzeari eta ingurumen-aztarna sortzeari dagokionez, laguntza emango diegu jarduerak jasangarriago baten alde egiten duten enpresei eta proiektuei, baita konpromiso sozialari eusten diotenei ere, hala nola kalitatezko enplegua sortzea, ordainsari bidezkoak, giza baliabideak zaintzea eta garatzea, eta ingurunearekiko interakzioa.

Birlokalizazio-estrategia baztertzen ari da kosta ahala kosta lehiakortasuna bilatzen duen globalizazio zaharra, eta sozialki arduratsua den inbertsioen erakarpenean globalaren alde borrokatzen da. Euskadik prest egon behar du mundu zabalaren aurrean erakargarri izateko, eta, hala, tankera horretako inbertsioak ahalik eta gehien erakartzeko. Horregatik, aktiboki lan egiten jarraituko dugu zenbait arlotan, hala nola azpiegiturretan, segurtasun juridikoan, berrikuntzarako pizgarriak sortzen eta ingurune enpresarial eta zientifiko-teknologiko mesedegarria bultzatzen.

#### 5.0 INDUSTRIA

Beharrezko efizientziaz eta lehiakortasunetik abiatuta, 5.0 Industria bultzatuko dugu, eta are gehiago indartuko

dugu gure ehun ekonomiko eta industrialaren eginkizuna eta ekarpena kalitatezko lan-aukerak sortzeko, betiere ikuspegi jasangarriarekin eta teknologia aurreratuak erabiliz, hala nola adimen artifiziala, robotika eta fabrikazio-sistema kognitiboak. Horren guztiaren helburua da, finean, fabrikazio-prozesu malguagoak, moldagarriagoak eta eraginkoragoak sortzea. Industria arduratsua, inklusiboa, pertsonak jartzen dituena erdigunean.

EAJ-PNVn sendo sinesten dugu lankidetzak publiko-pribatua eta enpresa-sektore indartsu, dinamikoa eta sozialki konprometitu batean, eta % 40an eutsi nahi diogu industriak eta hari lotutako zerbitzuek barne-produktu gordinean duten pisuari. Ekimen hauen bidez helduko diogu industriaren aldeko apustuari:

- 1.- Industria Plan espezifiko bat abiaraziko dugu 2028rako, enpresa txiki eta ertainetan 4.0 eta 5.0 Industria txertatzen laguntzeko. Plan horretan, teknologiaren, berrikuntzaren, azpiegituren, jasangarritasunaren, ekintzaitzaren, nazioartekotzearen, finantza-ketaren eta industriaren ikuspegi sozial berria duten pertsonen kudeaketaren bektoreak jasoko dira.
- 2.- Pertsonekin konprometitutako enpresa-kultura bultzatuko dugu. Konfiantza oinarritutako kultura bat, balioetan oinarrituriko helburu inspiratzailea duena eta erakunde bateko pertsona guztiak fidelizatuko dituena, batez ere talentu gaztea, edozein izanik ere haien adina eta posizioa. Era berean, dibertsitate funtzionala duten pertsonen inklusioa sustatuko dugu.
- 3.- Izapide burokratikoak sinplifikatzeko eta gure enpresen erregulazio-prozesuak arintzeko mekanismoak ezarriko ditugu, enpresetan karga burokratiko arrazionalizatze plan baten bidez.
- 4.- Elkarlaneko eta laguntzako ekosistemaren (klusterrak, ganberak, elkarteak...) eraginkortasuna indartuko eta sakonduko dugu, gure ehun industrial eta ekonomiko osoari babesa emateko (kontuan izanik batez ere enpresa txikiak eta ertainak direla), deskarbonizazioak, digitalizazioak eta trantsizio sozialak eragindako erronka handien eta aldaketa estrukturalen aurrean. Ildo horretan, tankera guztietako arrakalak saihestuko ditugu eta lehiakortasunean sakonduko dugu.

5.- Automobilgintzako Fabrikazio Aurreratu Teknologia Garatzeko Euskal Zentroa jarriko dugu martxan Jundizen -Basque Automotive Manufacturing Center (BAM)-. Proiektu horrek ekoizpen-egitura eraldatzen lagunduko du, automobilgintzaren sektoreko balio-katearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna bultzatuz; eginkizun horretan,

## INDUSTRIA Euskadi berrindustrializatzea

bidelagun izango ditu Mercedes-Benz, Gestamp eta Mon-dragon Korporazioko MB Sistemas.

### INDUSTRIA-LURZORUA BERRONERATZEA

Euskadiko ongizate-estatuari eusteko eta aurrera egiteko, ezinbestekoa da gizarte osoarentzat kalitatezko eta enplegua eta aberastasuna sortuko dituen industria-proiektu berriak garatzea, handitzea eta erakartzea.

Hori dela eta, erabakigarria da proiektu industrial eta zientifiko-teknologikoen ezarpena eta hazkundera erakarri eta erraztu dezaketen azpiegituren sarea indartzea eta zabaltzea Euskadin.

Horretarako, neurri hauek hartzeko konpromisoa hartzen dugu:

- 1.- Industria Azpiegiturak Garatzeko Inbertsio Funts bat sortuko dugu, SPRIri atxikia, zeinak kapital pribatua erakarriko baitu partaidetza publikotik abiatuta industria-azpiegitura berriak garatzeko.
- 2.- Interes industrial eta ekonomikoa izanik ere, erabilezarik gabe egon daitezkeen aktiboak (lurzorua eta azpiegitura industrial) berroneratzeko eta balioztatzekeo estrategian sakonduko dugu, eta ahalik eta gehien murriztuko dugu kokaleku berrietarako lurzoruaren artifizializazioa.
- 3.- Industria berri honen eskura jarriko ditugu 1.250.000 m<sup>2</sup>, guztiak ere erabiltzen ez diren aktiboak berroneratzeko eta berreskuratzeko jarduketetatik eratorritako industria-lurzoruzatiak eta eraikinak.
- 4.- Hirigintza-garapen berrietatik datozen industria-lurzoruzatiak eta eraikinak 1.600.000 m<sup>2</sup> gaituko eta merkaturatuko ditugu.
- 5.- Hirigintza-izapideak arinduko ditugu interes orokorrekotzat jotako proiektuak garatzeko eta ezartzeko, gizartearen eragin positiboa dutelako, eta, ildo horretan, bermeei eutsiko diegu eta nabarmen murriztuko ditugu garapen-epeak.
- 6.- Industria-ehunaren eraldaketan, espezializazioan, hazkunderan eta deskarbonizazioan sakonduko dugu.
- 7.- Enpresei laguntza eskainiko diegu, balio-kateetan duten kanpo-mendekotasuna murrizten eta hornitzaile-kateak Euskadin bertan garatzen.

### ENPLEGUA SORTZEN DUTEN INBERTSIOETARAKO LAGUNTZA

Eusko Jaurlaritzak inbertsiorako eta finantzaketarako tresnak izan behar ditu gure herriko industria-enpresei laguntzeko, industria deskarbonizatuago, teknologikoago eta digitalago bat lortzeko bidean. Erreminta horiek bermatu egin behar ditu gure gizarteari aberastasuna eta balio erantsia sortzen dizkion enpresa-corpusaren erroak, eta behar adinako malgutasuna izango dute enpresek bizi ditzaketen egoera konplexuetara egokitzeko.

Horretarako, EAJ-PNVn laguntza-ildo hauek landuko ditugu:

- 1.- Bultzada berezia emango diogu Finkatuz funtsari, eta, haren bidez, konpromisoa hartzen dugu Euskadira erabakigarritzat jotzen diren enpresen ekonomia- eta industria-ehunean aurrerabidea, hazkundera, errotzea eta trakzioa bermatuko duten inbertsio estrategikoak egiteko. Bultzada hori lortzeko, funtsaren kapitala 1.000 milioi eurora igoko da legegintzaldia amaitzean, eta, era berean, araudia sinplifikatuko da, inbertitzeko eta desinbertitzeko erabakietan arintasuna hobetzeko.
- 2.- SPRI taldeko Euskadiko Arrisku Kapitaleko Sozietatearen eta hark kudeatutako funtsen jarduera indartu eta zabalduko dugu, eta urtean gutxienez 50 milioi euroko zuzkidura ziurtatuko dugu; hala, Finkatuz funtsaren jarduera eta Euskadiko ehun ekonomiko eta industrialari emaniko laguntza osatuko dugu.
- 3.- BasqueFik Finantza eta Inbertsio Klusterraren jarduera babesteko eta indartuko dugu, ikuspegi integrala duten finantza-tresnak eta inbertitzaileak garatzeko, eta, foru-ogasunen kenkari-politika zabalarekin batera, ekonomia- eta industria-ehunaren sustraitzea eta hazkundera bultzatuko dugu. Hala, laguntza eskainiko diogu ehun horri hiru transizio handietatik eratorritako erronken aurrean.
- 4.- Euskadiko batez besteko ongizate-maila baino txikiagoa duten eskualdeetan lehenetsiko ditugu inbertsioak.
- 5.- Euskadiren finantza-gaitasunak lerrokatu eta ardaztuko ditugu, eta, horretarako, zenbait tresna publiko-pribatu baliatuko ditugu, enpresak Euskadin bertan hazteko eta errotzeko industria- eta teknologia-eragiketei ekiteko euskal funts handi bat eratzearen bidez. Horri esker, proiektu ekonomiko eraldatzaile handiak bultzatu ahal izango ditugu, eta Euskadirentzako aukera berriak erakarri merkatu globaletik.
- 6.- Euskal borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak (BGAE) araudia aldatuko dugu, kapitalaren ehuneko

## INDUSTRIA

### Euskadi berrindustrializatzea

bat euskal industria-, enpresa- eta teknologia-ehuna erroztzea eta haztea ahalbidetuko duten proiektuetan inbertitzeko.

7.- SPRIren mendeko “Invest in Euskadi-Basque Country” Unitatea indartuko dugu, enpresa-proiektu berrien erakarpena eta ezarpena indartzeko.

8.- Foru-aldundiekin lankidetzan, pizgarriak ezarriko ditugu sektore estrategikoetako enpresak eta proiektuak erakartzeko —hala nola informazioaren teknologiak, osasuna, energia berriztagarri eta deskarbonizatuak, bioteknologia, manufaktura aurreratua eta sektore aeroespaziala—.

9.- Hazkunde handiko proiektuen eta trakzio-enpresen finantzaketa erraztuko dugu, lurraldean ekimenak errotzea sustatzeko, haien hazkundera eta dibertsifikazioa ahalbidetzeko eta lurraldean hornitzaileen garapena eta gaikuntza posible egiteko.

10.- Ziurtagiri bat bultzatuko dugu, trantsizio global handi batekin edo batzuekin konpromisoa hartzen duten enpresak ikusarazteko. Ziurtagiri hori, foru-aldundiekin lankidetzan, kenkari fiskalen politika batekin uztartuko dugu, eta lan-baldintza bidezkoak eta erakargarriak izatearekin ere lotuko dugu.

11.- Lehentasunezko Jarduketa Eremuetarako Eskualdeko Plan Estrategikoak garatzen jarraituko dugu, helburu gisa harturik aurrera egitea Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri, Oiartzualdea, Aiaraldea, Debarrena eta Busturialdea-Urdaibai eskualdeen suspertze ekonomiko eta sozialean.

#### ENPRESEN INTERNAZIONALIZAZIOA

Euskal enpresen internazionalizazioa funtsezko elementua da industria-garapenerako eta euskal ekonomia-sarearen lehiakortasunerako, kalitatezko enplegua eta ongizatea sortzen baititu. Enpresaren batez besteko tamaina eta internazionalizazioarekin lotutako erroka gero eta handiagoak direla eta, ezinbestekoa da lankidetzaren publiko-pribatua sakontzea, Basque Trade and Investment erakundearen lidergoa baliatuz. Besteak beste, laguntza eskainiko diegu gure enpresei eta haien eskura jarriko ditugu gure atzerri-bulegoak eta bestelakoa tresna eta zerbitzuak, Euskaditik abiatu eta nazioartean handitu ahal izan daitezen. Inguruabar horretan, neurri hauek proposatzen ditugu:

1.- Enpresaren nazioartekotzea sustatzen jarraituko dugu eta, horretarako, SPRIren kanpo-sarea indartuko dugu, na-

zioartekotzen saiatzen diren enpresei laguntzeko, esportazioak, kanpoko ezarpenak eta tokiko banatzaileekiko lankidetzaren estrategiak bultzatuz.

2.- Balio-proposamena indartuko dugu, eta euskal enpresaren esku jarriko ditugu programak, talentua, zerbitzuak eta adimen prospektiboa, gure sektore eta enpresen behar zehatzetara egokituta.

#### TRANTSIZIO ENERGETIKOA EUSKAL INDUSTRIAN

Ezinbestekoa da energia eskuragarriarekin eta garbiarekin lotutako azpiegitura energetikoen ekosistema indartu baten garapenean aurrera egitea, euskal ehun ekonomiko eta zientifikoak energia- eta ingurumen-trantsiziotik eratorritako erroka handiei aurre egin diezaien. Helburua da beharrezko deskarbonizazioan aurrera egitea, Euskadik 2050a baino lehen lor dezan karbono-neutraltasuna, eta, aldi berean, energia-kostuak doitzea, nazioartean enpresa jasangarriak eta lehiakorragoak lortuz.

EAJ-PNVn, sakondu egingo dugu industria-sarearen eraldaketan, hazkundera eta deskarbonizazioan, eta, horretarako, konpromiso hauek hartzen ditugu:

1.- Sare elektrikoa indartzea bultzatuko dugu, eta behar adinako gaitasuna emango diegu elektrifikazioan aurrera egiteko, sorkuntza berriztagarria garatzeko, industria-proiektu berriak ezartzeko eta gure ekonomia deskarbonizatzeke.

2.- Gure industria-ehunaren autohornidura energetikoa bultzatuko dugu energia berriztagarrien bidez. Industrialdeetako energia-komunitateen proiektuak edo autokontsumo-egitasmoak babestuko ditugu, eta, ildo horretan, sinplifikatu egingo ditugu proiektu horiekin lotutako izaipideak eta eskura jarriko ditugu finantzaketa-lerroak.

3.- Portu-inguruneak elektrifikatuko ditugu, eta, hala, erraztu egingo dugu hurbiltasuneko berriztagarriak sortzea eta populazio elektrikoko ontziak gehitzea.

4.- Energia-azpiegituren gaitasuna indartuko dugu, energia-bektore berriekin lotuta -hidrogeno berdearekin, esaterako-.

5.- Net-Zero Basque Industrial Super Klusterra garatuko dugu, bai eta haren jarraipen-plataforma ere, euskal industriaren energia-kontsumoaren deskarbonizazioa bizkortzeko eta indartzeko. Emisio garbiak murriztuko dituzten soluzioak bultzatuko eta garapen teknologikoetarako au-

## INDUSTRIA Euskadi berrindustrializatzea

kerak sortuko ditugu, eta, hala, Euskadin kalitatezko enplegua eta ongizatea sortuko duten industria berria sortuko dugu.

6.- Erregai sintetiko deskarbonizatuen proiektuen garapena bultzatuko dugu, hala nola hegazkingintzan erabiltzeko Syntetic Aviation Fuel, hidrogeno berdetik eta CO<sub>2</sub>-tik abiatuta.

7.- Enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna handitzeko beharrezkoak diren ekoizpen-instalazioen modernizazioari lotutako inbertsioa babestuko dugu, eta arreta jarriko dugu dela prozesuetan, dela sortutako produktu edo zerbitzuetan. Hori guztia dirulaguntzen, foru-pizgarri fiskalen eta finantza-tresna berrien bidez, eta digitalizazioan, efizientzian, deskarbonizazioan eta langileekiko interakzioan sakonduz.

8.- Lankidetzaren publiko-privatua, Europan erreferentzia izango den erreferentziako unibertsitate-programa bat sortuko dugu, sektore energetikoarekin eta deskarbonizazioarekin lotutako karrera teknikoetarako eta errendimendu handiko ikasleentzat, helburu gisa harturik talentua atxikitzea eta beste herrialde batzuetako talentu gaztea erakartzea.

9.- Euskadiko udalekin batera, ekonomia-jardueren gaineko zerga (EJZ) egokitzea sustatuko dugu, erregai fosilen aurrean kontsumo elektrikoetan ager daitezkeen zigorrak saihesteko.

### EKINTZAILETZA

Gaur egun, Euskadi ekintzailtza teknologikoko hub edo nodo gisa aitorturik dago, gorabidean dauden 1.000 enpresa teknologikoen gainera. Enpresa horiek, oro har, 8.000 pertsona baino gehiago enplegatzen dituzte eta 1.500 milioi eurotik gorako balio zenbatetsia lortzen dute.

Enpresa teknologiko berrien ekosistema hori oso lotuta dago gure ekoizpen-sarearekin. Horrenbestez, bereziki handia da ekintzailtza horren eragin soziala eta ekonomikoa; izan ere, zuzeneko enplegua sortzeaz gainera, enpleguari eusten eta garatzen laguntzen du gure ekonomiarako estrategikoak diren sektoreetan.

Egoera ona izan arren, Euskadik pertsona eta enpresa berritzaile gehiago behar ditu, produktu eta zerbitzu berriak eta negozio-ereduak identifikatzeko eta garatzeko. Jarduera ekintzailea kritikoa da enpresa-ehuna birsortzeko eta, beraz, berrindustrializaziorako.

EAJ-PNVn ekintzailtza-eredu propio baten alde egiten jarraituko dugu, etorkizunerako anbizioarekin. Eredu horrek hainbat diziplinako gaitasunak eskaintzen ditu: profesionalak, zerbitzuak, finantzaketa, laguntzak, azpiegiturak, sareak eta zabalkundea... Horiek guztiak esparru arauemaile, fiskal eta instituzional sendo eta fidagarri baten gainean antolatzen dira, helburu gisa harturik ekintzailtzarako euskal ekimenak Euskadin gera daitezzen eta, gainera, nazioarteko ekintzailtza-proiektuak erakarri ahal izateko.

Horretarako, konpromiso hauek hartzen ditugu datozen 4 urteetarako:

1.- Ekintzailtza Erakundearteko 2024-2029 aldirako Plana abiaraziko dugu. Laugarren plan horretan, aukera gisa jorratuko dira ekintzailtzarako herri erakargarri gisa posizionatzeko trantsizio handiak (teknologikoa eta digitala, energetikoa eta ingurumenekoa, eta soziala eta sanitarioa). Gainera, ekintzailtzarako garrantzitsuak diren eragile eta ekimenekin lankidetzan aritzeko espazioak indartuko ditugu.

2.- Ekintzaileek ongizate-gizarterako duten garrantzia balioetsiko dugu. Enpresaburuen eginkizuna aintzatesteko ekimenen buru izango gara, bai eta Euskadiren garapenari eta ongizateari modu sozial eta arduratsuan egiten dioten ekarpena balioesteko ere.

3.- Up! Euskadi marka indartuko dugu, gure ekintzailtza-ekosistema internazionalizatzen jarraitzeko eta enpresa eta ekintzaileei ematen zaien laguntzan sakontzeko tresna gisa.

4.- Titulartasun publikoko BICak (Business Innovation Centers) posizionatzen jarraituko dugu, ekintzailtza-ekosistemara eta hari laguntzeko zerbitzuetara sartzeko ate gisa.

5.- Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko aukera gehiago eskainiko dizkiegu sortzeko, indar hartzeko, hazteko eta sendotzeko ahalmena duten proiektuei. Koordinazioa hobetuko dugu lehendik ere baditugun tresnen (Aurrera, Basque Fondo eta Luzaro) eta finantzaketa pribatuaren artean.

6.- Basque Tek Ventures sustatuko dugu, oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzen laguntzeko tresna gisa.

7.- Ekimen berri bat abiaraziko dugu barne-ekintzailtza-er esparruan, ekimen eta proiektu berriak azaleratzeko, laguntzeko eta babesteko.

8.- Start upak eskalatzeko BIND berrikuntza irekiko ekimenaren esparruan eskaintako zerbitzuak zabalduko ditugu.

## INDUSTRIA

### Euskadi berrindustrializatzea

Euskal korporazio handietan ez ezik, enpresa berri horiek garatu eta hazi ahal izango dira enpresa txiki eta ertainekin eta euskal administrazio publikoekin lankidetzan ere.

9.- Ekintzaitzaren Euskal Ekosistemaren Barometroa zabalduko dugu gizartean, euskal ekintzaitzaren errealitatea eta haren ekarpen ekonomiko eta soziala ezagutarazteko.

10.- Berdintasunezko ekintzaitza inklusiboaren alde egingo dugu, eta arreta eta laguntza berezia eskainiko diegu emakume ekintzaileei.

#### TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

I+G+Baren aldeko apustua da Euskadiren bereizgarria, eta horrek, enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzeaz gainera, aintzatespena eta baliabideak eman dizkio nazioartean eta bereziki Europan. Euskadi da estatu osotik RIS 2023an hobekien kokatuta dagoen lurraldea, eta berrikuntza handiko eskualdeen taldean ageri da. Horretaz gainera, Europako Batzordeak "bikaintasun-polotzat" jotzen du Euskadi eskualdeen artean, goi-berrikuntzako lurralde bat baita berrikuntzamaila ertaina duen estatu batean. Hazten jarraitu nahi dugu, eta berrikuntzan liderra den lurralde bihurtu.

EAJ-PNVn, irmo sinesten dugu lankidetzaren publiko-pribatuan, enpresa-sektore indartsu, dinamiko eta sozialki konprometitu batean, bai eta Berrikuntzarako Euskal Sistema batean ere, lehiakortasunerako eta enpresa-jasangarritasunerako funtsezko elementu gisa, erabakigarritzat jotzen baitugu balio erantsia sortzeko eta Europako batezbestekoaren gainetik dauden per capita errenta-mailak ahalbidetuko dituzten kalitatezko enpleguak bermatzeko.

I+G+Ba babesteko ereduari eusten jarraitzeko, ekintza hauek egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- 1.- Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-ahalegina gutxienez % 6 handituko dugu urtean, I+G+Bko politiketara bideratutako aurrekontu-esleipenean neurtuta.
- 2.- I+Gan eta berrikuntzan eginiko inbertsioaren bolumena bultzatuko dugu, bai eta enpresa berriak berrikuntzan sartzeko ere, eta ahalegin berezia egingo dugu ETEei begira.
- 3.- Euskal enpresa-sareari pizgarriak eta laguntzak emango dizkiogu merkatuan bereizteko eta lehiarako abantailak lortzeko, berrikuntza eta teknologia palanka gisa hartuta, eta arreta eta bultzada berezia jarriko ditugu Euskadirentzat estrategikoak diren esparruetan.

4.- Enpresen I+Gko proiektuak eta horrelako jardueretan enpresen inbertsioa sustatuko duten mekanismoak babestuko ditugu, eta, horrekin batera, teknologiaren transferentzia bizkortuko dugu.

5.- Enpresetan I+G+Bko jarduerak garatzeko gaitasunak sartzeko lagunduko dugu, bai giza baliabide espezializatuei dagokienez (I+Gko langileak), bai baliabide materialei dagokienez (ekipoak/sistemak), eta, ildo horretan, lider teknologikoen trakzio-gaitasuna aprobetxatuko dugu.

6.- Enpresa-berrikuntzako, industrializazioko, eskalatze, prototipoetako, metodologietako eta kontzeptu-probetako proiektuak babestuko ditugu, bereziki ETEenak, funtsezko hiru alderdietan: produktuak, negozio-prozesuak —horien artean ekoizpenarekin loturikoak—, eta kudeaketa-ereduak.

7.- Enpresei lagunduko diegu berrikuntzako lehen urratetan, kudeaketa eta/edo antolaketa eraldatzeko eta hobetzeko proiektu sinpleekin, eta laguntza-ereduak eta -sistemak emango dizkiegu.

8.- Ikerketatik, garapenetik eta berrikuntzatik eratorritako emaitzak balioetsiko ditugu, batez ere ETEenak, eta patenteen, diseinu industrialen edo marken bidez babestuko ditugu.

9.- Optimizatu egingo dugu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareak (ZTBES) euskal enpresa-ehunaren euskarri gisa duen eginkizuna, eta, horretarako, jakintza eta gaitasunak sortuko ditugu, xede gisa harturik Euskadiko lehentasunezko espezializazio-eremuak, emaitzetan bikaintasuna lortzea, inpaktua sustatzea eta euskal enpresa-sarera modu eraginkorrean transferitzea.

10.- Teknologia Zentroen eta Lankidetzako Ikerketa Zentroen bideragarritasuna babestuko dugu modu estrukturalan, bai eta azpiegitura eta ekipamendu aurreratuak eskuratzea ere, beren jarduna jakintzaren muga egin ahal izan dezaten, guztia ere Europako eta/edo nazioarteko homologoekin parekatuz eta euskal enpresei balio erantsi handiko transferentzia ziurtatuz.

11.- Basque Research and Technology Alliance (BRTA Aliantza) indartzen lagunduko dugu, bai eta Europako eta nazioarteko posizionamendua ere, Euskadiren erronkei modu espezializatu eta efizientean heltzeko tresna gisa, guztia ere lankidetzan jardunez eta jakintza sortzeko eta transferitzeko nazioarteko eskakizun-mailei erantzunez.

12.- Laguntza emango diegu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko bitarteko berrikuntza-organis-

## INDUSTRIA

### Euskadi berrindustrializatzea

moei, enpresen eskariak eskaintza zientifiko-teknologikora hurbiltzeko.

13.- Euskal I+G+Ba nazioartekotzea bultzatuko dugu, batez ere, euskal erakundeek Europako Programetan parte hartzea, bolumen handiko eta kalitatezko partaidetza sustatuz (itzulkin ekonomikoak), Europako partzuergoen lidergo-maila handiarekin eta eragile zientifiko-teknologikoek euskal enpresak bultzatuz.

14.- Erosketa publiko berritzailea sustatuko dugu, erosketa horrek funtsezko eginkizuna izan dezan tokiko negozioen sustapenean eta garapen teknologikoan, bereziki ingurumenaren eta bioasunaren sektoreetan.

15.- Euskal gizartea berrikuntzaren arloan sentibilizatzen lagunduko dugu, eta, ildo horretan, zabalkundearen eta arautu gabeko prestakuntzaren arloko ekimenak garatuko ditugu SPRI taldearen, Innobasqueren eta Euskaliten artean.

16.- Foru-ogasunekin batera, I+Gan inbertitzeko zerga-pizgarrien politikak zabalduko ditugu, eta enpresa-berrikuntzari lotutako finantzaketa eskuratzeko bidea erraztuko dugu.

## TALENTUA ETA ENPLEGUA

### Gizarte-politikarik onena

Enplegua da gizarte batek aurrez aurre duen erronkarik kritikoenetako bat. Enplegu-tasa altua izateak erakusten du politika eraginkorrek ezarri direla, ekintzailtza sustatu dela eta inbertsioa erakarri dela hazkunde ekonomikoa sustatzeko.

Garrantzitsua da kontuan izatea enplegua sortzea ez dela helburu isolatu bat. Aitzitik, ikuspegi integrala behar da, faktore ugari lantzen dituen, hala nola hezkuntza, laneko prestakuntza, sektore estrategikoetan enplegua sortzea eta berrikuntza sustatzea. Horretaz gainera, funtsezkoa da sortutako enplegua kalitatezkoa izango dela bermatzea, soldata bidezkoekin eta lan-baldintza egokiekin.

Enpleguaren barruan, indartsu agertzen da "talentu" kontzeptua; hau da, pertsona batek jarduera edo eginkizun bat trebetasunez eta eraginkortasunez egiteko duen gaitasuna. Herri baten talentua zaintzeak eta garatzeak berekin dakar herritarrei hazkunde pertsonal eta profesionalerako aukerak eskaintzea, eta, aldi berean, lehiakortasuna hobetzea.

### TALENTUA

Etengabeko aldaketa teknologikoko testuinguruan enpresa-ingurunean identifikatutako erronkek adierazten dute talentua dela ardatz estrategiko nagusietako bat lehiakortasuna sendotzeko eta indartzeko, bai eta kalitatezko enplegua sortzeko ere.

Euskal erakundeek urte asko daramatzate talentuaren arloan lanean, zenbait tresnaren bidez. Eusko Jaurlaritzak duela gutxi jarri du abian Basque Talent ekimena. Esparru estrategiko horren bidez, talentuaren gaiari heltzen zaio talentua garatzeko, atxikitzeko eta erakartzeko, barnean harturik haren askotariko dimentsioak, hala nola zientifiko-ikertzailea, zuzendaritzakoa, teknikoa eta ekintzailea.

Ildo horretan, funtsezkoa iruditzen zaigu talentuarekin zerikusia duten eragile publiko-pribatu guztiak lerrokatzea, enpresen joeren eta beharren abangoardian egongo den ekosistema bat izateko. Mugitzen gaituen azken helburua da Basque Talent sendotzea, gaur egun eta etorkizunean identifikatzen diren erronkei aurre egiteko tresna ahaltsu gisa, industriako eta, oro har, gure enpresa-ehun osoko talentuari dagokionez.

Xede horrekin, ildo hauetan lan egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- 1.- Gure hezkuntza indartuko dugu, eta curriculumak egoikituko ditugu lan-merkatu gero eta aldakorrago baten eskaerak asetzeko. Lehentasuna emango diogu trebetasun digitalak sustatzeari, pentsamendu kritikoari eta some-

## TALENTUA ETA ENPLEGUA

### Gizarte-politikarik onena

nari. Horretaz gainera, etengabeko prestakuntza eta bir-kualifikazio profesionala sustatuko ditugu, eta bermatuko dugu gure tokiko talentua prestatu dagoela etorkizuneko erronka eta aukerarako.

2.- Gainerako erakundeekin eta enpresa-elkarteekin eta klusterrekin lankidetzan, enpresek eskatutako profilak, gaitasunak eta trebakuntzak identifikatuko ditugu. Konektatu egingo ditugu ekosistemako enpresek, start upek, ZTB eragileek eta abarrek behar dituzten profil profesional berrien eskaintza eta eskaria, barnean harturik profesionalak erakartzea, bereziki RIS3 eremuetan.

3.- Talentuarentzako erakargarritasuna areagotzeko estrategiak ezarriko ditugu, eta bereziki nabarmenduko ditugu bizi-kalitatean, berrikuntzan, jasangarritasunean eta baliuetan ditugun indarguneak.

4.- Aldi berean, enpresei talentu globala erakartzeko eta leialtzeko estrategietan lagunduko diegu, eta, hala, enpresa-ingurune dinamikoa eta erakargarria sustatuko dugu.

5.- Foru-aldundiekin eta udalekin lankidetzan, nazioarteko talentua Euskadin integratzeko beharrezko laguntza-zerbitzuak aktibatuko ditugu, etxebizitzarako eta hezkuntza-zerbitzuarako sarbidea barne. Gizarteratze- eta kultura-programak garatuko ditugu, nazioarteko talentuaren eta haren familien integrazioa errazteko.

6.- Atzerriko tituluen homologazioa erraztuko dugu, behar dugun talentua txertatu ahal izateko.

7.- Graduondoko eta doktoregoko ikasketak egiten dituzten nazioarteko ikasleak erakartzea bultzatuko dugu.

8.- Hori guztia koordinatzeko, Basque Talent Center sortuko dugu; erakunde horri esker, aurrera egin ahal izango da talentuaren garapenean Euskadiko lurralde-lehiakortasunaren eremuan, euskal ekonomia osatzen duten sektore eta eragileen mesedetan.

### ENPLEGUA

Gaur egun, Euskadi da estatu osoan langabezia-tasa txikiena duen lurraldea: % 6,3. Zifra hori Europar Batasuneko herrialdeen batezbestekoaren antzekoa da.

Dena den, egoera horrek ez gaitu eraman behar konformismoa, konparatiboki ona izan arren. Langabezian egotea edo kalitate kaskarreko lana izatea beti da dramatiko egoera hori bizi duenarentzat. Euskadikoaren tankerako ekonomia

lehiakor batek gora egin behar du enplegu-tasan, eta horrek gure jarduera-tasa handitzea eskatzen du.

EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du buru-belarri lan egiteko langabezia ahalik eta tasa txikienera jaisteko, harik eta hain desiratua den erabateko enplegu teknikora iritsi arte eta sorturiko enpleguaren kalitatea azpimarratuta. Bide horretan, beti hartuko ditugu kontuan zenbait faktorek —hala nola teknologiak, globalizazioaren ondorio geoekonomikoek eta enpresa-antolaketaren joerak— eragin handia dutela lan-merkatuan.

Xede horrekin, ildo hauetan lan egiteko konpromisoa hartzen dugu:

1.- Prestakuntza sustatuko dugu, lan-bizitza osoko hazkunde pertsonalaren eta profesionalaren bektore gisa. Prestakuntza hori kalitate gorenekoa izango dela bermatuko dugu, eta akordioak garatuko ditugu unibertsitateekin, Lanbide Heziketako zentroekin eta enpresa-elkarteekin. Prestakuntza horretarako sarbidea erraztuko dugu, eta, aldi berean, teleprestakuntza- eta autoprestakuntza-modalitateak indartuko ditugu, pertsona guztiek jaso ahal izan dezaten trebakuntza, nonanhi bizi direla eta edozer ordutegi dituztela ere.

2.- Sektore espezializatuetakoa langabeei prestakuntza emateko laguntzak bultzatuko ditugu, Lanbide ez duenean eskaintzen zuzenean prestakuntza hori.

3.- Orientazio eta laguntza pertsonalizatua errealitate bihurtuko dugu, Lanbiden zerbitzua emateko modu natural gisa. Langabezia-egoerak ahalik eta laburren izan daitezten, langabea jarriko da enplegu-sistemaren erdigunean, eta behar dituen zerbitzu guztiak eskainiko zaizkio (prestakuntza, orientazioa, enplegurako eta ekintzaitzarako laguntza eta babesa), ahalik eta azkarren. Gure helburua da lanik gabe geratzen den pertsona orok izatea laguntza-zerbitzu pertsonalizatua, langabezian gelditu eta gehienez ere 2 asteko epean.

4.- Orientazio- eta laguntza-zerbitzu hau emango diegu, orobat, lanean jardun arren enplegua hobetu nahi duten pertsonen, baldin eta enplegu hori ez bada behar adinako kalitatekoa egonkortasunari, lanaldiari eta proiektzio profesionalari dagokienez.

5.- Gazteen enplegua babesten jarraituko dugu, lehenbiziko lan-esperientzia lortzeko. Aldi berean, enpresetako praktika-programak kontrolatuko ditugu, tresna horren abusu-egoerak saihesteko.

## TALENTUA ETA ENPLEGUA Gizarte-politikarik onena

6.- Laguntza eta babes espezifiko eskainiko diegu enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboak. Lanbideak arreta berezia eskainiko die 55 urtetik gorako pertsonen kolektiboari, askotan diskriminaturik geratzen baitira “lan-adinkeriaren” ondorioz. Pertsona horiek kontratatzeko pizgarriak indartuko ditugu, eta espazio fisiko eta birtualak ezarriko ditugu pertsona horiek enpresekin konektatzeko.

7.- Enpresekin lankidetzan arituko gara, haien beharrak etengabe ezagutzeko, eta, hala, talentua txertatzen lagunduko diegu; era berean, lankidetzan jardungo dugu pertsonak erdigunean jarriko dituen kudeaketa aurreratua garatu ahal izan dezaten.

8.- Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren arteko lankidetzak sortuko ditugu, prestakuntza-ibilbide integratuak, malguak eta produkzio-sarearen beharretatik hurbilekoak sustatzeko.

9.- Enplegu-zentro bereziak eta laneratzeko enpresak laguntzen jarraituko dugu, desgaitasuna duten pertsonak, iraupen luzeko langabeak eta baztertuta —edo baztertuta geratzeko arriskuan— dauden pertsonak laneratzeko baliabide estrategiko gisa.

10.- Zorrotz jarraituko dugu betetzen dela laneko araudia, batez ere laneko segurtasunari eta osasunari buruzkoa.

11.- Birziklatzeko eta birkualifikatzeko programak garatuko ditugu, etengabeko ikaskuntzaren mentalitatea sustatzeko, eta, horri esker, euskal profesionalek aukera izango dute arin aurre egiteko aurrerapen teknologikoen erronkei eta produkzio-ereduen eraldaketei (digitalizazioa, adimen artifiziala, ekonomia berdea...).

12.- Lanbideren bidez, hobetu egingo dugu langileen eta kualifikazioen egungo eta etorkizuneko eskaerei buruzko informazio-transmisioa, baita produkzio-sektoreen beharren bilakaerari buruzkoa ere. Lan-orientazio integral eta pertsonalizatua indartuko dugu, helburu gisa harturik karrera-plan koherente, moldagarri eta malgu bat garatzeko beharrezko tresnak ematea pertsonari, bai enplegua aurkitzen eta hari eusten laguntzeko, bai enpresen beharrak asetzeko.

## LAN-HARREMANEN ESPARRU PROPIOA Elkarrizketa gehiago, gatazka gutxiago

Euskadin badugu lan-harremanen esparru propio bat. Esparru horrek egoera oso ona izatera eraman gaitu, kalitatezko enpleguari dagokionez.

Hala ere, esparru horrek urteak daramatza etengabeko gatazka-testuinguru baten eraginpean, batez ere sektore publikoan. Aldarrikapen logiko eta bidezkoak baino haratago doa gatazka hori, eta arriskuan jartzen ditu gure ekonomiaren lehiakortasuna eta geure buruari eman diogun kontratu soziala.

EAJ-PNVn, elkarrizketa eta ituna lehenestea proposatzen dugu. Grebak herrialde honetako langileak geratzen zaigun azken tresna saihetsezina izan behar du, elkarrizketa- eta itun-agertokia agortu ondoren baliatu beharrekoa. Era berean, defendatzen dugu lan-harremanen esparru propio horren indarraldia ere. Gizarte-eragileekin parte hartzen duen eredu bat, paritarioa, estatuko esparruaren gainetik dagoen negoziazio kolektiboko esparru autonomoan oinarritua; hala, negoziazio-eskala propio bat osatuko du enpresan, sektorean, lurraldean eta autonomia-erkidegoan, eta kalitatezko enplegua eta lan-baldintza ezin hobek bultzatuko ditu.

Horrenbestez, EAJ-PNVn konpromiso hauek hartzen ditugu:

1.- Etengabeko elkarrizketa eta negoziazioa bultzatuko ditugu eragile ekonomiko eta sozialen artean, kalitate demokratikoaren bereizgarri argia den heinean eta gizarte moderno, aurreratu eta partizipatibo baten nortasun-ezaugarria den aldetik.

2.- Indartu egingo ditugu lan-harremanen euskal sistema eta haren baliabideak (Lan Harremanen Euskal Kontseilua, Elkarrizketa Sozialerako Mahaia, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua...), eragile ekonomiko eta sozialen partaidetza, adostasuna eta lankidetzak bultzatzeko enpresaren eta lanaren munduarekin lotutako politika publikoen plangintzan eta garapenean.

3.- Erne jarraituko dugu, argi eta garbi aplikatu dadin Euskadiko negoziazio kolektiborako esparrua, eta ez estatukoa. Euskadik euskal errealitateari erantzuneko dioten hitzarmen kolektiboak behar ditu, hemen negoziatuko eta sinatuko direnak.

4.- Akordioak eta hitzarmen kolektiboak, sektorialak eta enpresakoak sinatzea bultzatuko dugu, enpleguentzako lan-baldintza zuzen eta ezin hobek bermatzeko, eta, horri esker, gogobetetze, inplikazio eta leialtasun handiagoa sortuko da haien erakundeekiko.



LAN-HARREMANEN  
ESPARRU PROPIOA  
Elkarrizketa gehiago, gatazka gutxiago

5.- Beste negoziazio transbertsal batzuk aktibatzea sustatuko dugu, prestakuntzaren, lan-osasunaren eta genero-berdintasunaren arloko lanbidearteko akordioen bidez.

AUTONOMOAK  
ETA TOKI-MERKATARITZA  
Erresilientziaren aldeko apustua

Merkataritzak eta ostalaritzak erakutsi dute aberastasuna garatzeko eta banatzeko motorra direla. Sektore garrantzitsuak dira euskal ekonomian, haien magnitude ekonomikoarengatik (gure barne-produktu gordinaren % 14,6 eta enpleguaren % 18,9 dira), bai eta gure herriak eta hiriak egituratzeko gaitasunagatik ere, hurbileko jarduera ekonomikoak baitira.

Merkataritza-sektorea etengabe ari da birmoldatzen, eta, egoera konplexu horretan, aldaketak dira nagusi kontsumo-ohituretan, merkataritza digitaleko plataforma handien lehia bizi dute, mugikortasuna ere eraldatzen ari da... Aldaketa horiei dagokienez, desabantaila garbian dago tokiko merkataritza tradizionala. Egokitu egin behar dugu gure merkataritza errealitate horretara, berrikuntzaren aldeko apustua eginez, eta aprobetxatu egin behar da bizileku eta zerbitzu-hartzaile duen gizartearen gertutasuna, kontuan izanik gizarte horretan dagoela txertatuta merkataritza hori.

EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu gure hurbileko ekonomia suspertzeko, toki-merkataritzan bereziki erreparaturik:

- 1.- Merkataritza Jardueraren Lege berri bat onetsiko dugu, egokituko dena euskal merkataritza-sektorearen jarduera garatzen duen testuinguru konplexura eta errealitatera.
- 2.- Euskal Merkataritza Ganberen Legea onetsiko eta garatuko dugu. Lege horri esker, merkataritza-establezimenduek eta ETE guztiek aprobetxatu ahalko dituzte maila globalean eta sarean lan egingo duten ganberak eskaintako zerbitzuak, lankidetzak publiko-pribatua oinarritutako lehiakortasun-politika baten tresna gisa.
- 3.- Merkataritza eta Ostalaritzako Mahaia bultzatuko eta abiaraziko dugu; mahai horretan, funtsezko eginkizuna izango dute sektorea ordezkatzeko duten elkarteek eta euskal udalek.
- 4.- Merkataritza-hiriguneak kudeatzeko elkarte-eredu berri bat garatuko dugu, finantza-nahikotasuna bermatuko duena gune horiek antolatze eta sustatzeko. Business Improvement Districts (BID) izeneko barrutietan oinarritutako eredu bat da, eta aukera ederra eskaintzen du merkataritza irekiagoa eta efizienteagoa izateko bidean aurrera egiteko, sektore publikoarekiko mendekotasun txikiagoarekin eta merkatarien konpromiso handiagoarekin betiere.
- 5.- Tokiko eta eskualdeko merkataritza-bulego teknikoaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu. Merkataritza-sektoreak hobekien baloratzen duen zerbitzu bat da, laguntza tekniko espezializatua eskaintzen baitute sektoreak aurrez aurre dituen erronka berrien aurrean, lehiakortasuna hobetuz eta haien iraupena ziurtatuz.

## AUTONOMOAK ETA TOKI-MERKATARITZA Erresilientiaren aldeko apustua

6.- Hirigune programa bultzatuko dugu, eskaria mantentzeko eta erakartzeko eta udalerrietako merkataritza-gu-neak dinamizatzeko.

7.- Udal-merkatuek gure hiri eta herrien parte izaten jarraituko dutela bermatuko dugu.

8.- Lehia zaintzeko sistema bat izango dugu, inplikaturako eragile guztiek —merkatariek eta ostalariek barne— bertatik bertara ezagutu ditzaten abian diren joerak, aukerak eta esperientzia arrakastatsuak.

9.- Merkataritza eta Ostalaritza Ekipamenduak Modernizatzeko Programa birbideratuko dugu, eta, hala, enpresen lehiakortasuna bultzatuko dugu; ildo horretan, hobeto egokitutako produktuak eta zerbitzuak eskaintzera bideratuko dira enpresak, gero eta zorrotzagoak diren eta kontsumo-eredu heterogeneoagoak dituzten herritarren beharretara moldatu daitezten.

10.- Merkataritza Eskola bultzatuko dugu, eta, horretarako, prestakuntza dualeko metodologia baliatuko dugu, negozio-eredu egokiak garatzeko behar diren gaitasunak dituzten profesionalak prestatzeko, guztia ere tokiko hiri-merkataritza erakargarria eskaintzeko.

11.- Merkataritza eta ostalaritza profesionalizatzen lagunduko dugu, eta bi sektoreek eskatzen dituzten profilak identifikatuko ditugu, sektore horietan lan egiten duten profesionalak prestatzeko eta birkualifikatzeko, batez ere teknologiarri dagokionez. Gordailu ireki bat sortuko dugu, bi sektoreetako profesionalen gaitasunak garatzera bideratutako edukiekin, autoikaskuntza bultzatuz.

12.- Berriz Enpresa programa mantenduko eta bultzatuko dugu, merkataritzako eta ostalaritzako enpresen jarraipena errazteko. Sektoreko eragileekin lankidetzan arituko gara programaren zabalkundea handitzeko eta urteko ondorengotza-kopurua handitzeko; horri esker, establezimenduak ixtea saihestuko da eta bi sektoreak gaztetuko dira.

13.- Merkataritza- eta ostalaritza-establezimendu berezien eta arduratsuen mapak sortzea eta zabaltzea bultzatuko dugu (zero kilometroko tokiko produktuak eta hurbileko zerbitzuak eskaintzen dituztenak), tokian-tokian eta eskualdeetan.

14.- Erosketa-turismoari eta turismo gastronomikoari lotutako produktuak eta esperientziak sortzen lagunduko dugu.

15.- Hurbileko merkataritzari balioa emateko eta kontzientziazteko kanpainak garatuko ditugu Euskadin, eta antzeko kanpainak garatzen lagunduko dugu tokian-tokian eta eskualdeetan.

16.- Egungo mapa komertzialaren diagnostiko bat egingo dugu hornidura gutxiko landa-eremuetan, eta jarduera ekonomikoa sortzea ahalbidetuko duten neurriak bultzatuko ditugu, eremu horiek hornitzeko.

17.- Merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduetan energia-efizientzia areagotzeko dirulaguntzak bultzatuko ditugu.

18.- Ostalaritza-sektorean elikagaien hondakinak murrizteko proiektuak jarriko ditugu abian.

19.- Hiri-inguruneetan salgai-banaketak duen ingurumen-inpaktua murrizteko ekimenak sustatuko ditugu. Azken miliako banaketaren alorrean, aurrerapenak aztertu, partekatu eta sustatuko ditugu.

## TURISMOA

### Jasangarritasunaren eta kalitatearen aldeko apustu irmoa

Turismoa bihurtu da azken hamarkadetan ekonomiaren eta enpleguaren hazkundera ahalbidetu duen sektoreetako bat, eta Euskadiko egitura ekonomikoaren dibertsifikazioa ekarri du.

Gure konpromisoa izango da turismoak gure ekonomian duen inpaktua areagotzea, baina apustu garbia eginda: Kalitatezko Turismo Jasangarriaren alde egitea. Ingurumenarekin arduratsua den turismo-eredu bat, ekonomikoki eta sozialki jasangarria, bisitarien eta bertakoen artean "gizartea aberas-teko" aukera emango duena, alde guztiei mesede eginez.

Turismo Estrategia berriaren definizioa euskal turismo-eko-sistema osatzen duten eragile publiko eta pribatu guztiekin batera landuko da. Estrategia horretarako, EAJ-PNVk helburu hauek proposatuko ditu:

- Turisten guztizko kopuruari eustea. Turismoa ongizate-iturria da, parametro jasangarrietan kokatzen bada. Hala da gaur egun Euskadin (agian, salbuespen puntual batzuekin), eta ez ditugu egin behar saturazio-egoereta iritsi diren beste hiri eta eskualde batzuetako akats berberak.
- Batez besteko egonaldia luzatzea. Gure helburua batez besteko egonaldia luzatzea izango da, eta gaur egungo 4,4 egunetatik 5 egunetara pasatzea.
- Urtaro guztietara hedatzea. Turista gutxien etortzen diren hilabeteetan sarrera gehiago lortzea; urtarrilean, otsailean eta martxoan % 30eko okupazioa lortzea, eta azaroan eta abenduan, berri, % 35ekoa.
- Batez besteko gastu turistikoa handitzea, eta, horretarako, segmentu sozioekonomiko altuagoko turistak erakartzea.
- Turismoa deszentralizatzea. Jomuga barneko mugikortasuna areagotzea eta bisitatutako udalerrien kopurua ugartzea, turistek gaua igarotzen duten udalerriaz aparte.
- Mugikortasun-bide jasangarriak gehiago erabiltzea. Joan-etorri turistikoetan garraio publikoaren erabilera sustatzea eta erraztea.
- Gure kulturarekin, euskararekin eta herri gisa ditugun balioekin lotutako esperientziak areagotzea.

Turismo jasangarriago eta kalitate handiagoko horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Turismoaren aldeko Ituna sustatuko dugu, jasangarritasun- eta kalitate-helburuetan arreta ipinita. Itun hori baliagarria izango da, halaber, modu koordinatuan definitzeko, batetik, aisialdiko jomuga-politikak, eta, bestetik, MICE turismoa (bileren, pizgarrien, biltzarren eta erakusketen

turismoa). Turismo Mahaia bultzatuko dugu, sektorearen partaidetzarako eta lankidetzarako gune gisa.

2.- Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa sustatuko dugu, helmuga jasangarri eta arduratsu bat sortzeko erreminta gisa.

3.- Turismo-produktu eta -zerbitzu jasangarriak sortzen, garatzen eta ezartzen laguntzeko ildoak bultzatuko ditugu, kultura- eta natura-ondarea arduraz erabiltzea sustatzeko, betiere kontu hartuz errespetatzen eta transmititzen direla gure helmugaren balioak eta nortasuna.

4.- Gure garraio publikoko sarea diseinatzerakoan, gehiago hartuko dugu kontuan errealitate turistikoa.

5.- Turismo-garraioaren elektrifikazioa eta turismo-jardueren energia-efizientzia sustatuko ditugu. Ekonomia zirkularra bultzatuko dugu turismo-sektorean.

6.- Informazio Turistikoko Sistemaren erabilera bultzatuko dugu erabaki estrategikoak hartzeko, eta sektoreko eragileen artean zabalduko dugu lortutako jakintza. Gaitasun handiagoa emango diogu Euskadiko Turismo Behatokiari turismo-jardueraren jarraipena gidatzeko eta koordinatzeko, baita jomugako zerbitzuaren kalitatea monitorizatzeko jarduera handiagoa ere, turistek onlineko iritzi-kanal nagusietan ematen dituzten iritzien jarraipena eginez. Adimen artifizialaren erabilera sustatuko dugu, datuak aztertzeko eta bidaiarien portaeran patroiak eta joerak identifikatzeko.

7.- Eredu berri bat definituko dugu turistarekin interakzioan jarduteko jomugan. Bisitatzen gaituztenen behar berrietara egokitutako Informazio eta Turismo Bulego berriak bultzatuko ditugu, eta bidaien aurreko eta ondorengo jardueretan jarriko dugu arreta, gure herrialdea ezagutu duten pertsonetik harreman-elementuak eta lotura emozionala indartzeko.

8.- Segitturrek garatutako jomuga turistiko adimendunen eredia sustatuko dugu, eta enpresetara estrapolatuko dugu, turismo-enpresa adimendun gehiago izan ditzagun. Sektoreari zuzendutako prestakuntza-eskaintza handituko dugu, Basquetour Learning zerbitzuen eta barneko eta kanpoko jardunbide egokien hedapenaren bidez.

9.- Laguntzak eskainiko ditugu sektorea digitalizatzeko eta euskal turismoa IKTetara egokitzeko, bai eta turismo-produktuak eta -zerbitzuak merkatu berrietara egokitzeko beharrezko gastuetarako ere.

10.- Laguntzak bultzatuko ditugu, orobat, eskualdez gaindiko turismo-produktuak eta -zerbitzuak garatzeko.

## TURISMOA

### Jasangarritasunaren eta kalitatearen aldeko apustu irmoa

11.- Turismo-tasa ezartzea erraztuko dugu, sektorea hobetzeko beharrezkoa edo komenigarria den tokietan.

12.- Turismoari lotutako Euskadi Basque Country marka sustatuko dugu. B2C eta B2B kanpainak eta ekintzak egingo ditugu, Basquetourren urteko ekintza-plan baten bidez egikarrituta, zeinak urtean 5 milioi euro inguruko inbertsioa izango baitu. Gure presentzia areagotuko dugu nazioarteko turismoaren alorreko erreferentzia-azoketan. Estrategia bat ezarriko dugu, Euskadirentzat lehentasuna duten merkatu eta segmentuetako preskribatzaile eta komunikabide garrantzitsuenekin harremanetan jartzeko. Sustapen-jarduera horretan, bereziki azpimarratuko dira Euskadik jomuga gisa dituen elementu bereizgarriak (ondarea, kultura, euskara, gastronomia...).

13.- Euskadi emakumeentzat lagunkoia den jomuga bilakatuko dugu (women friendly). Hala, emakumeei segurtasuna eta konfiantza eskainiko dizkien helmuga bat bultzatuko dugu, baita haien beharretara eta lehentasunetara egokitutako turismo-produktuak ere.

14.- Turismoari lotutako ekintzailtza- eta enpresa-espirtua sustatuko dugu. Gazteen artean ekintzailtza turistikoa sustatzeko laguntzak sustatuko ditugu.

15.- Belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko ere lan egingo dugu, eta gazteak turismoaren sektorean sar daitezzen bultzatuko dugu.

16.- Gure tokiko sortzaileetan oinarrituko gara, turismoaren eskaintzan nortasun eta estetika propioa sortzeko.

## AZPIEGITURAK

### Etorkizunerako palanka

#### GARRAIO-AZPIEGITURAK

Garraio-azpiegituren sistema funtsezkoa da bizi-kalitatea hobetzeko, baita lurralde-egituraketa eta -kohesioa eta garapen sozioekonomiko inklusiboa eta jasangarria lortzeko ere. Horretaz gainera, garraioak funtsezko eginkizuna du deskarbonizatutako ekonomia berrian eta mugikortasun gero eta jasangarri bateranzko trantsizioan.

Horregatik, EAJ-PNVn ezinbestekotzat jotzen dugu trenbide-, aireportu- eta portu-azpiegituren eskuduntzak Euskadira transferitzea, eraginkorragoa eta efizienteagoa izan dadin herritarren eta sektore ekonomikoen beharren zerbitzura dauden garraio-bideon guztion kudeaketa. Hori dena aintzat harturik, jarduera hauek garatuko ditugu:

1.- Lehentasuna emango diogu Euskadiko Abiadura Handiko Trenbide Sarea amaitzeari, batez ere estatuaren ardurapeko egikaritze-bideei, Europako Sarearekiko zein Nafarroarekiko konexioari, eta euskal hiriburuetako geltoki berriak eraikitzeari.

2.- Ortuella eta Bilbo arteko hegoaldeko trenbide-saihesbidea eraikiko dugu, Bilboko Portuarekin eta Abiadura Handiko Sarearekin lotzeko.

3.- Salgaien Atlantikoko korridorea (European Transport Networks, TEN-T) bultzatuko dugu, eta, horretarako, Lille-Gasteiz trenbide-autobidea garatuko dugu, Jundizko plataforma multimodala eraikiz; era berean, Lezoko Plataforma Logistikoa garatuko dugu, Pasaiako portuaren trenbide-eraginkortasuna indartzeko.

4.- Hernani-Astigarraga tarte amaitutakoan, Donostia-Atotxa geltoki berria jarriko dugu martxan, eta Tabakalera-Egia-Erdialdearekin integratuko dugu. Halaber, martxan jarriko dugu Astigarraga-Oiartzun-Lezo plataforma berriaren garapena.

5.- Bilboko eta Gasteizko sarbideen eta geltokien garapena bultzatuko dugu. Geltoki berriak eraikitze beharrezko obrei ekingo diegu eta abiadura handiaren hiri-integratioari helduko diogu.

6.- Euskotrenen bidez, Baiona eta Donostia arteko tren-zerbitzua bultzatuko dugu, Donostiako geltokiaren obrak eta Ministerioak Astigarraga eta Irun artean abiarazitako hirugarren errearen obrak amaitu ondoren. Hala, gainditu egingo dugu gaur egungo mugaz haraindiko hesia.

7.- Durangaldea, Bedia, Usansolo, Galdakao, Basauri eta Bilbo lotzeko trenbide-linea berria amaituko dugu (5. linea). Sarratuko erabiltzaileentzat konexioa hobetzeko aukerak aztertuko ditugu.

## AZPIEGITURAK

### Etorkizunerako palanka

8.- Eraikuntza-proiektua amaitu eta Bilbo-Abando, Irala, Errekalde, Basurtu, Zorrotza, Alonsotegi eta Enkarterriren arteko trenbide-linea berria bultzatuko dugu (4. linea).

9.- Donostiako topoaren trenbide-pasabidea amaituko dugu. Horren osagarri diren jarduketak amaituko ditugu, hala nola salgaietarako egokitzea, Easo-Amarako hirigintza-garapena bultzatzea eta Morlans ingurua estaltzeko aukera aztertzea.

10.- Altza-Galtzarabordako topoaren lurpeko zati berria amaituko dugu, egungo trazaduraren oztopo fisikoa eta urbanistikoa erretiratuta. Galtzalabordako geltokiaren eta tunelaren arteko zarata murrizteko eraikuntza-soluzioak aztertuko ditugu.

11.- Loiolako Erriberako geltoki berria eraikiko dugu, Euskotrenek kudeaturiko topoaren eta Renferen zerbitzuen arteko aldageltoki gisa.

12.- Hobekuntzak egingo ditugu Euskal Trenbide Sarearen trenbide-azpiegituretan: Aginagako korta osatuko dugu (Zumaia eta Donostia artean 15 minutuko maiztasuna izateko), Pasaiaiko porturako sarbidea Herrera aldetik (salgaiak zabalera metrikoan), Altzolako saihebidia eta trenbide-pasaguneak kentzea (Amorebieta-Bernabeitia, Euba, Usurbil...).

13.- Euskotrenen Gernika-Bermeoko linearen azpiegitura eta maiztasuna hobetuko ditugu. Murueta ontziolaren parean geraleku berri bat eraikitzeke aukera aztertuko dugu.

14.- Tren-geltoki berriak egingo ditugu: topoaren integrazioa Irungo geltoki intermodal berrian, Astigarragako aldiriko geltoki berria, Anoetako geltoki berria (Donostia) eta Usurbilgo geltoki berria. Zumaia, Gernika, Bermeo eta Lurtzanako geltokien birmoldaketak amaituko ditugu.

15.- Trenbide Zirkulazioa Kudeatzeko Europako Sistemari egokiturik, zirkulazioa automatikoki babesteko sistema berriak bultzatuko ditugu trenbide-sarean, eta elkarreragingarritasuna bultzatuko dugu Europako seinale estandarren bidez. Estandar europarra eta elkarreragingarria dituen trena lortuko dugu.

16.- Aldiriko trenak Eusko Jaurlaritzara transferitzeari esker, hobetu egingo ditugu gaur egun ditugun bost lineetako zerbitzuak, batez ere jende gehien biltzen den tartetan, hala nola puntako orduetan edo ekitaldi berezietan, bai eta asteburuetan ere.

17.- Araban (Araia eta Gasteiz artean, eta Gasteiz eta Manzanos Erriberabeitia artean) eta Bizkaian (Bilbo eta Karrantza artean) aldirietako zerbitzu berriak martxan jartzeko aukera aztertuko dugu.

18.- Gasteizko tranbia Zabalganara eramango dugu. Informazio-azterlana eta eraikuntza-proiektuaren idazketa amaituko ditugu.

19.- Bilboko tranbia Zorrotzaurrera eramango dugu.

20.- Atxuri-Bolueta tranbia-zatian geltoki eta igogailu berri bat jarriko dugu, Santutxuko beheko aldeari zerbitzua emateko.

21.- Forondako, Loiuko eta Hondarribiko aireportuen kudeaketa eskualdatzea aldarrikatuko dugu, baita EAEko hiru aireportuen eta Noaingo eta Biarrizkoen artean koordinatutako eredu bat garatzea ere.

22.- Forondako aireportua Euskadiko erreferentziako aireportu gisa bultzatuko dugu, ozeanoz haraindiko konexioetarako eta salgaietarako.

23.- Presio egingo dugu Forondako aireportuak bitarteko nahikoak izan ditzan, Loituk eguraldi txarragatik desbideratzen diren hegaldiak hartu ahal izateko.

24.- Pasaiaiko Portua interes orokorreko portu gisa deskalifikatzea adostuko dugu, Eusko Jaurlaritzaren eskumen eksklusiboa izan dadin.

25.- Bilboko portuaren kudeaketa transferitzea eskatuko dugu.

26.- Portu-eredua indartzeko tresna bat sortuko dugu, zerbitzuak sortzearen eta ematearen bidez. Kudeaketa eta profesionalizazioa indartzeko balioko du, eta azpiegituraren kudeaketaren eta zerbitzuak ematearen arteko sinergiak bilatuko ditu, baita aisialdiko nautikari lotutakoak ere.

27.- Portuen eta udalerrien arteko elkarrekintza areagotuko dugu Portuko Udal Kontseiluen bidez, azpiegiturak behar bezala funtzionatzeko eta erabiltzeko.

28.- Portu-eremuetako espazioak eta eraikinak modernizatuko eta egokituko ditugu, eta haien jarraipena egingo dugu.

29.- Izotz-fabrikak eraikiko ditugu Ondarroako eta Bermeoko portuetako kofradietan.

30.- Portu-inguruneak elektrifikatuko ditugu, eta, hala, erraztu egingo dugu hurbiltasuneko berriztagarriak sortzea eta propulsió elektrikoko ontziak gehitzea.

31.- Aurrera egingo dugu Euskadiko Kirol Portuak (EKP) aisialdiko sektore nautikoaren operadore gisa ezartzeko bidean.

## AZPIEGITURAK Etorkizunerako palanka

### UREN ARLOKO AZPIEGITURAK

Klima-aldaketak eragindako egungo errealitatean eta etorkizuneko egoeran, ezinbestekoa da hornidura-sistema aurrertua, behar adinakoa eta erresilientea izatea, uraren eskuragarritasuna eta kalitatea bermatuko dituen egungo egoeran eta etorkizuneko lehorte-agertokietan, dela giza kontsumorako, dela jarduera ekonomiko eta produktiboetarako, dela nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretarako.

Gainera, beharrezkoa da ekosistema urtarrak babestea, uraren erabileraren ziklo integralaren kudeaketaren bidez (hornidura, saneamendua, arazketa eta berrerabilpena), baliabide hidrikoen gaineko eskumenak dituzten administrazio guztien eta tokiko erakundeen eta erakunde kudeatzaileen (partzuegoak) artean hitzartuta eta lankidetzan, epe luzera kudeaketa jasangarria egiteko gai izateko. Era berean, ibai-sistemak babestu, zaindu eta kontserbatu behar ditugu, erresilienteagoak izan daitezten eta pertsonak eta ondasunak babestu ditzaten ibaien uholde-arriskuetatik, halakoak ohikoagoak izango baitira klima-aldaketaren ondorioek eraginda.

LURRALDE HISTORIKOA	HORNIDURA	SANEAMENDUA	UHOLDEEN AURREKO DEFENTSA
<b>Araba</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Baia Garaiko hornidura (Zuia eta Urkabustaiz herriak), Zaroko urmaelaren bidez.</li> <li>Agurain-Asparrenako hornidura.</li> <li>Oiongo hornidura-sarea osatzea.</li> <li>Aiaraldeko hornidura hobetzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Alegria-Dulantziko eta inguruko saneamendua (Krispiñako hondakin-uren araztegirako konexioa).</li> <li>Legutioko saneamendua (2. fasea eta ondorengoak).</li> <li>Manzanos aldeko saneamendua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zadorra ibaia, 4. fasea (Gobeoko zubiaren eta Krispiñako hondakin-uren araztegiaren arteko jarduketak).</li> <li>Zadorra ibaia, 3. fasea (Abetxuku-Ihurre tartea).</li> <li>Zalla ibaia, Forondako aireportuaren parean.</li> </ul>
<b>Bizkaia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hornidura-sare berria Busturialdean, Bilbo metropolitarrako sistemara lotzeko (Mungia-Bermeo konexioa).</li> <li>Lea-Artibai interkonexioa eta Durangaldeko sistemarekin lotzea.</li> <li>Ullibarriko konexioa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lamiakoko sistema bateratuko gainezkatzeeen tratamendu-estazioa.</li> <li>Galindoko eta Arriandiko hondakin-uren araztegiak berritzea.</li> <li>Galdamesko San Pedroko eta Aceñako saneamendua, Olakoaga-Zaramillo eta Kadaguako interzeptagailuarekiko lotura.</li> <li>Artziniegako nukleoa Gueñesko hondakin-uren araztegiarekin lotzea.</li> <li>Larrabetzu eta Eretxe sistema orokorrarekin lotzea.</li> <li>Muxika-Gernika kolektorea (Muxika).</li> <li>Bilboko portuko saneamendua (3. fasea).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Abadiño (Traña-Matiena).</li> <li>Zalla (Aranguren).</li> <li>Iurreta-Durango.</li> <li>Galindo.</li> <li>Balmaseda.</li> <li>Sodupe.</li> <li>Dima.</li> <li>Azordoiaga erreka (Alonsotegi).</li> <li>Mungiako hirigunea.</li> <li>Bilbo-Erandio.</li> <li>Gernika.</li> <li>Zubiete zubia ordezteko Gordexolan.</li> <li>Butroe ibaia Gamiz-Fikan.</li> <li>Igorreko Garakoi auzoa.</li> <li>Estepona ibaia Bakion</li> </ul>
<b>Gipuzkoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Errezil, Beizama, Ataun eta Aiako hornidura.</li> <li>Añarbe sistemara eta Petritegiko edateko ura tratatzeko estaziora eramatea gaur egun udal-urez hornituta dauden eremuak.</li> <li>Ibarrako ponpaketa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Loiolako eta Goiaingo hondakin-uren araztegiak handitzea eta berritzea.</li> <li>Atalerrekako hondakin-uren araztegia egokitzea.</li> <li>Mijoa erreka (Mutriku).</li> <li>Elgeta.</li> <li>Mendaro.</li> <li>Elgoibar.</li> <li>Oikia, Zumaiaiko saneamenduarekiko lotura.</li> <li>Aizarnazabal.</li> <li>Errezil.</li> <li>Zelai (Berastegi eta Ibarra artean).</li> <li>Arriaran (2. fasea).</li> <li>Amezketako (1. eta 2. faseak).</li> <li>Albiztur.</li> <li>Zizurkil.</li> <li>Anoetako erreka (1. eta 2. faseak).</li> <li>Pasai Donibane.</li> <li>Txingurri erreka.</li> <li>Antzuola-Bergara lotura.</li> <li>Bidasoa Behereko Eskualdeko Hiri Drainadura Jasangarriaren Plan Zuzentzailearekin lotutako azpiegiturak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Urumea ibaia, Loiolako kuarteletan eta Akarregi-Ergobi tartean (2. fasea), eta Okendotegi (Donostia).</li> <li>Ziako-Andoain erreka (2. eta 3. faseak).</li> <li>Beasain-Ordizia.</li> <li>Tolosa (alde zaharra).</li> <li>Bergara (GI-2632 errepideko zubia ordezteko).</li> <li>Soraluze.</li> <li>Mendaro (Garagartza auzoa).</li> <li>Azpeitia (Ibaieder erreka inguruak eta Errezil eta Urbitarte auzoa).</li> <li>Alegia (Amezketako ibaia).</li> </ul>

## AZPIEGITURAK Etorkizunerako palanka

### EUSKADIKO TEKNOLOGIA PARKEARI LOTUTAKO AZPIEGITURAK

Euskadiko Teknologia Parkea zenbait campusez osaturiko eredu baten arabera kudeatzen da —sei campus finkatu eta beste hiru proiektatuta, hiru lurralde historikoetan banatuta—, eta ekosistema interkonektatua eta kalitatezkoa osatzen du. EAJ-PNVn, ziur gaude Euskadiko Teknologia Parkea funtsezko agertokia dela etorkizuneko Euskadiko proiektuak sortzeko, guztia ere oraina hobetzen lagunduko duten eta gizartearen etorkizuna sortzen parte hartuko duten azpiegitura berde eta adimendunak baliatuz.

2023an campus horien okupazio-indizeak oso altuak izan ziren: % 79 eta % 98 artekoak eraikinen kasuan, eta % 76 eta % 94 artekoak, berriz, partzelen kasuan. Beraz, Euskadiko Teknologia Parkearen campusak handitzen jarraitu behar dugu hiru lurraldeetan.

Euskadiko Teknologia Parkeak hazten jarraitzea helburu gisa harturik —gainazalean, espezializazioan, jarduera zientifiko-teknologikoan eta enpresa-jardueran, kalitatezko enpleguan eta bertan kokatutako enpresei balioa sortzen dieten zerbitzu bereizgarrietan—, ekintza-ildo hauek gauzatuko ditugu:

- 1.- Parkearen Gasteizko sarrera eraikitzea eta abian jartzea; hala, beste campus bat ezarriko da, eta arreta berezia jarriko die I+Gko jarduerari.
- 2.- Eraikuntzak Bilboko Campusaren hegoaldeko eta iparraldeko puntetan, enpresak, teknologia- eta ikerketa-zentroak eta prestakuntza-zentroak ezartzeko.

3.- Abantoko Campusa garatzea, Hidrogenoaren Living Laba eta Hidrogenoaren Mugikortasuneko lurzattia ekonomia deskarbonizatzeke lider gisa hartuta.

4.- Ortuellako Campusera hedatzea.

5.- Hidrogenoaren Living Laba garatzea, gure ekonomia deskarbonizatzeke lider gisa.

6.- Donostiako Campusean, Illunbeko lehenengo eraikina eraikitzea.

7.- Hernaniko Campuseko eraikina amaitzea.

8.- Hondarribiko Campusa sortzeko lehen urratsak.

Handitze-jarduera horietaz gainera, hobekuntza-jarduketak hauek egingo ditugu:

- 1.- 5G konektibitatea ezartzea campus guztietan, ulerturik konektibitatea lehiakortasun-elementu bat dela parkean instalatzen diren enpresentzat.
- 2.- Instalazio fotovoltaikoak hedatzea eta monitorizatzea campus guztietan, eta 2030ean energia berriztagarrien erabilera % 32 handitzea.
- 3.- Geotermia jartzea Bilboko Campusean (Zorrotzaurre).
- 4.- Parkeko azpiegiturak deskarbonizatzea, eraikinetan jarduketak eginez eta kontsumoak monitorizatuz, 2035ean energia-kontsumoa % 35 murrizteko.

## GASTRONOMIA ETA ENOLOGIA Sustraiak dituen herria

Klima-aldaketaren ondorioek, munduko hazkunde demografikoak, elikagaien segurtasuna bermatzeko beharrak eta kontsumo-ohitura berriek erronka handiak sortzen dituzte Euskadirentzat, baina baita aukera handiak ere elikagaien sektorean.

Euskadik punta-puntako aktibo ukiezinak ditu (bikaintasun-eta berrikuntza-ospe globala gastronomian), bai eta beste elementu ukigarri batzuk ere, eta, horiei guztiei esker, lurralde bikainen artean gaude posizionaturik elikagaien sektore berriaren oinarri-iraultzan trebatzeko, ikertzeko, ekoizteko eta, azken batean, lider izateko.

EAJ-PNVn, buru-belarri lan egingo dugu, sektore osoaren aha-lerin partekatuarekin, ekintzailletza- eta berrikuntza-proiektuak bultzatzeko, laguntzeko eta azeleratzeko elikadura-kate osoan. Horretarako, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- 1.- Euskadiko elikagaien interes kulturalako ondasun-gune bat sortuko dugu. Zerbitzuak eskainiko ditugu mundu zabaleko berrikuntza gisa probatu, eskalatu eta aurkeztu ahal izateko bertako enpresak eta ekintzaileak, bai eta Basque Culinary Center edo AZTI zentroek erakarrirako proiektuak ere. Nazioartean erreferentzia diren pertsonak erakarrirako ditugu, proiektu horiek garatzen lagun dezaketen kide bihur daitezten.
- 2.- Komunikazio-estrategia bat ezarriko dugu, Euskadik esparru horretan duen posizionamendua indartzeko. Gure helburua da Euskadi "Culinary Nation" edo gastronomiaren herri bilakatzea.
- 3.- Basque Food marka sortzea aztertuko dugu, gure elikagaiak nazioartean sustatzeko.
- 4.- Tokiko eta nazioarteko ekitaldiak sustatuko ditugu, Euskadi gastronomia- eta elikadura-berrikuntzaren mapan kokatzeko.
- 5.- Euskadi elikaduraren ekintzailletzako, esparru akademikoko eta ikerketako talentuaren nazioarteko epizentro bihurtuko dugu, eta, horretarako, graduondoko ikasketak egiteko bekak bultzatuko ditugu gastronomia eta zientzia batzen dituzten programa aitzindarietan.

6.- Arabako Errioxa Jatorri Deituraren sorrera sustatuko dugu —Errioxa Jatorri Deitura Kontrolatuaren barruan—, eta, horretarako, merkatuak aintzatetsiko eta sarituko duen eredu bakar eta propio bat bereizteko aukera eman-godu duten arau-aldaketak egingo ditugu.

7.- Berrikuntza gastronomikoko proiektu eta programa berriak bultzatuko ditugu, Euskadiren nazioarteko izen onari eta estatusari eusteko zientzia eta gastronomia uz-tartzen dituzten zentro berrietan, gastronomia- eta edari-sektorearen babes gisa, hala nola GOe (Gastronomy Open Ecosystem) eta EDA Drinks & Wine Campus Gasteizen eta Guardian; ildo horretan, nazioarteko kideekin lan egingo dugu eta programa bereziak bultzatuko ditugu ETEei eta euskal enpresei laguntzeko.

8.- Elikagaien erosketa berdea bultzatuko dugu, zuzenean edo zeharka administrazio publikoaren mende dauden jantoki kolektibo guztietan.

9.- Laguntza eskainiko dugu, ostalaritza-sektoreak eta jantoki kolektiboak dituzten enpresa-eremu pribatuko ekimenek tokiko produktuaren aldeko apustua indartu dezaten, hurbiltasuneko eta zero kilometroko produktuak pixkanaka txertatuz.

10.- Nutrizio-hezkuntzako programak areagotuko ditugu, batez ere biztanleriaren sektore gazteenei zuzendurik.

11.- Euskadiko Tokiko Merkatuen Sarea sortuko dugu nekazarien produktuen zuzeneko salmenta errazteko, kontsumitzaileekin lotura zuzena izan dezaten eta gure udalerrietan tokiko elikagai osasungarriak eta seguruak eskuratzeko modua izan dadin.



## DIGITALIZAZIOA

### Teknologia, aukera bikaina

#### DIGITALIZAZIOA

Digitalizazioak aurrerapen nabarmena izan du Euskadin zenbait sektoretan, eta gure gizartea eta ekonomia modernizatzen lagundu du. Digitalizazioak zerbitzu publiko eta pribatuen efizientzia hobetu du, baita berrikuntza bultzatu eta gure lehiakortasuna indartu ere. Alabaina, baditugu bestelako erroka garrantzitsuak ere aurrez aurre, hala nola eten digitala, bereziki landa-eremuetan, eta zibersegurtasuna bermatzeko beharra.

Ezinbestekoa da digitalizazioaren aldeko gure apustua bizkortzea, eta, bide horretan, herri-estrategia funtsezko bihurtzea eta Euskadi azpiegitura eta zerbitzu digitalen hub bilakatzeko, hala lortuko baita teknologiak eskaintzen digun aukera bikain hau aprobetxatzea, bai lehiakortasun ekonomikoari dagokionez, bai garapen sozialari dagokionez. Tren hori ezin dugu inola ere galdu.

EAJ-PNVn, jarduteko konpromiso hauek hartzen ditugu, Euskadik esparru digitalean duen posizionamendua indartzeko:

- 1.- Eraldaketa Digitalerako Euskadi 2030 Estrategia berria egingo eta ezarriko dugu.
- 2.- Enpresa txiki eta ertainei digitalizazio-prozesuak bizkortzen lagunduko diegu, eta orientazio espezializatua eskainiko diegu, ahalik eta etekinik handiena atera ahal izateko eskura dituzten programa publiko gutzietan.
- 3.- Proiektu berezi berriak sortuko eta atzemango ditugu, batetik, gure sektore digitalari nazioartean garrantzia emateko, eta, gainera, euskal enpresen eraldaketa digitaleko prozesuari laguntzeko. Proiektu horiek datozen urteetarako lehentasunezko hiru lan-esparruren inguruan ibiliko dira: Basque Microelectronics Huba; datuen eta satellite-irudien arloko ekimen berri bat; eta konputazio kuantikoaren erabilera bultzatzea euskal enpresan, Basque Quantumekin koordinatuta.
- 4.- Komunikazio-azpiegituren garapena babestuko dugu, zuntz optikoa hedatzearekin loturik egin den bezala, helburu gisa harturik estaldura zabala eta enpresa-erabilerako 5G zerbitzuak lortzea, enpresek soluzio aurreratuetan ezarri ahal izan ditzaten teknologia horren inguruan.
- 5.- Datuaren ekonomia sustatuko dugu; horretarako, horren inguruko enpresa eta negozio-eredu berrien garapena babestuko dugu eta gizartearen eta enpresen eskura jarriko ditugu administrazio publikoek kudeatutako datu ez-sentikorak. Datuaren gobernu-eredu bat definituko eta ezarriko dugu, Euskadiko erakunde gutziak bilduko dituen eta arlo horretan egindako ahaleginen aniztasuna gutxituko duena.
- 6.- Adimen artifizialeko soluzioen garapena erraztuko dugu, bai eta enpresek soluzio horiek ezartzea eta erabiltzea ere, eta, horretarako, azpiegitura seguruak eta datuen gordailuak sortuko ditugu algoritmo berriak entrenatzea edota informazioa konfiantzazko ingurune batean ustiatzea ahalbidetzeko, bai eta enpresen eskura jarri ere.
- 7.- ROBOTEKIN Robotika eta Automatizazio Poloak bultzatuko dugu, sektoreko balio-kate gutziarekin lankidetzan.
- 8.- Gaitasun digitalak bultzatuko ditugu, ekonomia globalizatzean Euskadiren garapen ekonomikorako eta lehiakortasunerako ezinbesteko elementu gisa.
- 9.- Ekintzaitza digitala sustatuko dugu, eta, horretarako, digitalizaziotik eratorritako soluzio digital eta negozio-eredu berriak garatuko dituzten start up eta enpresa berritzaileak sortzen lagunduko dugu. Hori erabakigarria izango da gure produkzio-sare helduenak modu errazean beregana ditzan digitalizazio-teknologia aurreratuenak.
- 10.- Euskal enpresen zibersegurtasuna indartzeko programa espezifikoak ezarriko ditugu, eta ETEen eskura dauden baliabideak eskainiko ditugu.
- 11.- Ziurtapen-programak ezarriko ditugu, soluzio digitalen inplementazioan bikaintasuna aitortzeko eta sustatzeko, helburu gisa harturik bezeroek eta bazkide komertzialek euskal enpresetan duten konfiantza handitzea.
- 12.- Lege-esparrua egokituko dugu ekonomia digitala babesteko, barnean harturik datuen babesa, segurtasun zibernetikoa, merkataritza elektronikoa eta adimen artifizialarekin loturiko etika.
- 13.- e-Administrazioan sakontzen jarraituko dugu. Administrazio-prozesu berriak digitalizatuko ditugu, eta ziurtatuko dugu erraz eta seguru egin daitezkeela izapide horiek.
- 14.- Puntu digitalak emango ditugu baliabide fisikorik ez duten herritarrek administrazio-izapideak modu autonomoan egin ahal izateko.
- 15.- Prestakuntza eta laguntza-zerbitzuak eskainiko ditugu, eten digitala saihesteko duen digitalizazio inklusiboa lortzeko.
- 16.- Nomada digitalen lehentasunezko helmuga gisa bultzatuko dugu Euskadi (urrunetik lan egiteko tresna digitalak erabiltzen dituzten profesionalak).

## DIGITALIZAZIOA

### Teknologia, aukera bikaina

17.- Urte anitzeko laguntza-programak sortuko ditugu enpresen produktibitatea hobetzea helburu duten Key Enabling Technologies edo oinarrizko teknologia gaitzaileak ezartzeko eta sustatzeko.

#### ADIMEN ARTIFIZIALA

Adimen artifizialak hazkunde nabarmena izan du Euskadin zenbait arlotan, hala nola industrian, osasunean eta ikerketan.

Hori horrela, ahalmena du hainbat sektore eraldatzeko eta gure bizi-kalitatea hobetzeko. Dena den, kontu handiz heldu behar diogu, eta kontuan hartu behar dira haren arriskuak, erabilera arduratsua eta etikoa bermatzeko.

Politika sendoen, inbertsio estrategikoaren eta sektore publiko-privatuen arteko lankidetzaren konbinazioak lider gisa posizionatuko du Euskadi adimen artifizialaren alorrean, prozesuen efizientzia hobetzeko, erabakiak hartzen laguntzeko eta berrikuntza bizkortzeko. Erronka horiei aurre egiteko eta adimen artifizialarekin bizikidetzeta jasangarria izango duen etorkizun baterantz aurrera egiteko, EAJ-PNVk jarduera hauek garatzeko konpromisoa hartzen du:

1.- Politika eta erregulazio espezifikokoak ezarriko ditugu adimen artifizialaren inplementazio etikoa lortzeko. Horrek barnean hartuko ditu gardentasuna, kontuak ematea eta adimen artifizialaren erabileran ekitatea sustatzen duten arau-esparruak garatzea.

2.- Adimen artifizialaren arloko gaikuntza bultzatuko dugu askotariko kolektiboei zuzendurik: goi-mailako ezagutzak dituzten ikertzaileei eta teknikariei, bikaintasun teknikoa, akademikoa eta intelektuala lortzen laguntzeko, baita herritar guztiei ere, gai izan daitezen gure egunerokoan txertatuko diren adimen artifizialeko soluzio berriak ulertzeko eta maneiatzeko.

3.- Datu-biltegi bat sortzea babestuko dugu, Euskadiko eta Europako balioetan eta arauetan oinarritutako adimen artifizial fidagarri bat gauzatu ahal izateko.

4.- Adimen artifizialaren inguruko kontzientzia-areagotuko dugu, herritarrek erabaki logiko eta zuzenagoak hartu ahal izan ditzaten, adimen artifizialak gure bizitzan presentzia handiagoa izango duen testuinguru honetan.

5.- Adimen artifiziala baliatzeko adopzio-programa bat ezarriko dugu, adimen artifizialeko sistemen kontratazio publikoa bultzatzeko.

6.- Euskadik egungo Europako hodeiaren definizioan presentzia eta eragina izan dezan lortuko dugu, gure datuak hodei horren barruan ustiatzen direla ziurtatzeko.

7.- Eragile publiko eta pribatuekin lan egingo dugu, Euskadi erreferentziatzeko nodo gisa posizionatzeko adimen artifizialaren alorrean.

8.- Lankidetzan jardungo dugu Adimen Artifizialeko Euskal Zentroarekin, adimen artifizialaren ezarpena eta erabilera modu etiko eta seguruan bizkortzeko, industriaren sektore guztietan.

9.- Datu-guneen proiektu pilotuak bultzatuko ditugu; horietan, industria-enpresek modu seguruan partekatu eta ustiatu ahal izango dituzte datuak, adimen artifizialaren bidez beren negozioen produktibitatea eta efizientzia optimizatzeko.

10.- Euskararen presentzia digitala sustatu eta babestuko dugu, eta, horretarako, modu aktiboan eta metodikoan sortuko dugu Euskararen Corpus Digitala, hizkuntza-baliabide digitalen Europako esparrura konektatuta, gure hizkuntza presente egon dadin ingurune digitaletan, beste hizkuntza ofizial batzuen baldintza berberetan.

## EUSKAL GIZARTE-SEGURANTZA Euskal eredu jasangarria

EAJ-PNVk defendatzen du Gizarte Segurantzaren sistema funtsezko erreminta dela pertsonen babes soziala bermatzeko. Pobrezia-arriskua saihestuko duen tresna bat, aurreikusgarria eta elkartasuna eta justizia soziala sustatuko dituen; sistema horrek izaera publiko argia izango du, bai finantzaketan, bai kudeaketan.

Beti kezkatu eta arduratu izan gaitu Gizarte Segurantzaren sistema hobetzeak. Halaxe erakutsi genuen pentsioen errealizazioari buruzko 2018ko martxoaren 1eko Akordioa bultzatu genuenean. Beharrezkoa zen, baina ez nahikoa, eta horretan sakondu beharko dugu gizarteari kohesionatuta eutsi nahi badiogu.

Ondotxo dakigu Gizarte Segurantzaren Sistemarekin zerikusia duen guztiak adostasun politiko handia eta ikuspegi zabalak eskatzen dituela, eta, beraz, erabakitasunez eta erantzukizunez egingo dugu aurrera arlo horretan, itxaropen faltsurik sortu gabe. EAJ-PNVk neurri hauek hartzeko konpromisoa hartzen du arlo honetan:

1.- Euskal Gizarte Segurantzaren sortuko dugu. Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren eskumenak eskualdatzea lortuko dugu, Gernikako Autonomia Estatutuan jasotakoari jarraikiz. Hala, enplegu-politika aktiboak eta pasiboak jardun-unitate bakarria izatea lortuko dugu, eta, horrekin, efizientzia areagotuko dugu.

2.- Sistemaren hobekuntzan sakonduko dugu, eta nahikotasuna, jasangarritasuna, gardentasuna, elkartasuna eta ziurtasuna oinarri duten pentsio publiko duinak bermatuko ditugu. Horretarako, irmo jardungo dugu sistemaren diru-sarreraren eta gastuen gainean.

3.- Eskumen-funtsa berritzea bultzatuko dugu, euskal erakundeek gizarte-babeserako eta -segurantzako politika publiko propioak eta osoak garatu ahal izan ditzaten, elkartasun- eta lankidetzaz-esparru baten barruan.

4.- Gutxieneko pentsioak duintzeko lanean jarraituko dugu. Pentsio baxuenak osatzen jarraituko dugu, gure herritarren bizi-baldintza duinei eusteko, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Lege berriaren jarraibideen arabera, zeina gehiengo zabalaz onetsi baitzen Eusko Legebiltzarrean.



ELKARREKIN BIZITZEA:  
ESKUBIDE BERBERAK,  
BETEBEHAR BERBERAK



## GOBERNANTZA

### Eusko Jaurlaritza ireki eta efizientea; burokrazia gutxiago, eta hurbiltasun handiagoa

EAJ-PNVn defendatzen dugu erakundeak eta zerbitzu publikoak funtsezkoak direla gure gizarteak egokiro funtzionatzeko. Konpromiso irmoa dugu arlo publikoarekin, bai eta erabateko bokazioa ere zerbitzu publikorako.

Buru-belarri jarraituko dugu lanean erakundeen kalitatea hobetzeko, Euskadin hazkunde ekonomikoa eta gizarte-kohesioa bermatzeko funtsezko alderdi gisa. Ezinbestekoa da erakundeen kalitatea, herritarrengan konfiantza sortzen baitu, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzen baititu, herritarrei eskubideak bermatzen baitizkie eta erraztu egiten baitu zerbitzu publikoetan berrikuntza txertatzea. Horretarako, azpiegitura instituzional sendoak eta eraginkorrak behar ditugu.

Herritarren partaidetzara irekitako administrazio batean sakonduko dugu, zeinak kontuak emango baitizkie herritar horiei; hala, kudeaketan gardentasun handiagoa izateko esparrua garatuko dugu, herritarrek politika publikoetara hurbiltzeko eta haietan parte hartzeko aukera izan dezaten.

EAJ-PNVn, kudeaketa-esperientzia handia dugu, bai Jaurlaritzan, bai foru-aldundietan eta udaletan. Esperientzia horretan, lortu dugu proiektuetatik errealitate ukigarriak eraikitzen igarotzea. Gai izan gara kalitatezko zerbitzu publikoak ezartzeko, euskal herritarren bizitza egunetik egunera errazteko eta hobetzeko. Eta erakunde publikoek behar duten dinamizazio-jarduna garatuz lortu dugu hori guztia, eta kudeaketa hurbila, eraginkorra eta efizientea eskaini dugu, gardena, partaidetzan oinarritua eta arduratsua.

Gure helburua izango da irekitasun, lankidetzeta eta efizientzia indartzea. Horretarako, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- 1.- Euskal administrazioa desburokratizatzeari ekingo diogu, eta mekanismo berriak aztertuko ditugu modu eraginkorrean, arinean eta mota guztietako pertsonen egokিতා yarduteko. Erantzun- eta zerbitzu-epe azkarragoak lortu behar ditugu.
- 2.- Hobetu egingo ditugu kontuak emateko dauzkagun mekanismoak. Kudeaketa-aldiko lehen 100 egunetan, Gobernu Plan bat egingo dugu, legegintzaldian lortutako konpromiso nagusiak jasoko dituen. Plan horrek Gobernuak herritarrekin dituen konpromisoak eta euskal gizartearekin duen ituna jasoko ditu, gizarte gisa aurrera egin dezagun eta herritarren ongizatea lortzeko, kohesio soziala abiapuntu gisa hartuta. Programa horri esker, hartutako konpromisoen berri eman ahal izango zaio gizarteari. Horretarako, jarraipen publikoa izango du.
- 3.- Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzko lege bat onetsiko dugu.

4.- Euskadi Gardena gardentasun-atariaren edukia zabalduko ditugu, eta borondatezko informazio berria argitaratuko dugu, euskal herritarrei interes handiena pizten dieten gaiekin. Eduki ulergarriagoak egingo ditugu, eta, horretarako, errazago irakurtzeko irizpideak baliatuko dira.

5.- Gure kudeaketa-datuak herritarrei zabaltzen jarraituko dugu, eta, horretarako, Open Data Euskadi ataria indartuko eta sustatuko dugu.

6.- Dauden partaidetza-bideak indartuko ditugu, eta bultzada berezia emango diegu deliberazio-demokraziako tresnei.

7.- Gure osotasun instituzionaleko sisteman sakontzen jarraituko dugu. Erakundeekiko konfiantza funtsezkoa da populismoei atea ixteko eta erakundeak kudeatzen inplikaturako gizarte izateko.

8.- Modu planifikatuan helduko diogu datoen urteetan gertatuko den belaunaldi-erleboari, eta hori erronka garrantzitsua izango da Eusko Jaurlaritzarentzat. Profesional kualifikatuak dituen funtzio publiko baten alde egingo dugu, gaitasunean eta profesionalizazioan oinarritua. Ildo horretan, funtzio publikora sartzeko prozesuak bultzatuko ditugu, zerbitzu publikoan pertsonarik onenak izateko. Era berean, karrera profesionala arautuko dugu eta garai berrietara egokitutako etengabeko prestakuntza taxutuko dugu.

9.- Eusko Jaurlaritzako langileei zuzendutako prestakuntza-eskaintza indartuko dugu, erakunde berritzaileago, malguago eta dinamikoago baterantz aurrera egiteko funtsezko tresna gisa; horrek egungo eta etorkizuneko erronketara egokitzea erraztuko du, betiere eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatean arreta jarri.

10.- Gainerako euskal erakunde publikoekiko konbergentzia teknologikoa eta elkarreragingarritasuna bultzatuko ditugu.

11.- Euskadiko Administrazio Orokorren egitura optimizatuko dugu; bide horretan, zaharkituta geratu diren eremuak birformulatuko ditugu eta, haien orde, etorkizuneko erronkei aurre egiten jarraitzeko beharrezko tresnak jarriko ditugu.

12.- Herritarrei aurrez aurre eta online ematen zaion arreta hobetuko dugu, guztiok izan dezagun administrazioarekin interakzioan aritzeko modua, ematen diren zerbitzuak ezagutzeko eta zerbitzu horiek eskuratzeko. Zerbitzu publikoen katalogo erraz eta irisgarri bat diseinatuko da.

## GOBERNANTZA

Eusko Jaurlaritza ireki eta efizientea; burokrazia gutxiago, eta hurbiltasun handiagoa

13.- Eraldaketa digitalaren esparruan lan egingo dugu, eta, aldi berean, arrakala digitala gainditzeko beharrezko ekin-tza guztiak egingo ditugu; hala, lurralde osoko konektibitate eta ingurune digitalean zailtasun handienak dituzten pertsonen prestakuntza bultzatuko da.

14.- Kalitate demokratikoaren behatokia bultzatuko dugu, erakunde publikoen kalitate demokratikoa etengabe eba-luatzeko eta euskal herritarren kultura politiko demokra-tikoa aztertzeko.

15.- Elkarlaneko gobernantzari buruzko lege berri bat pro-posatuko dugu, administrazio publikoaren, gizarte zibila-ren eta gizarte antolatuen arteko eztabaida-guneak indartzeko eta instituzionalizatzeko, helburu gisa harturik euskal sistema demokratikoa indartzea.

## SEGURTASUNA

Lurralde seguruagoa

Segurtasuna funtsezko zutabea da edozein gizarteren ongi-zatean, egonkortasunean eta aurrerapenean. Kontzeptu ho-rrek askotariko alderdiak biltzen ditu: herritarrak mehatxu fisikoetatik babestea, edo oinarrizko eskubideak eta osotasun emozionala eta psikologikoa bermatzea. Polizia eta legeak funtsezko zutabeak dira gizarte baten segurtasunari eusteko.

Legeek osatzen dute bizikidetzaren soziala arautzeko esparrua, eta pertsonen eskubideak eta erantzukizunak bermatzen dituzte; horretaz gainera, ondorioak ezartzen dituzte arauak hausten dituztenentzat. Estatuak arautzen du zuzenean poli-ziazen jarduna, edo are delituak zigortzen dituen araudi juri-dikoaren parte handi bat. Prozedura Kriminalaren Legeak eta Zigor Kodeak baldintzatu egiten dute segurtasunaren arloan egiten dugun lana.

Poliziak berebiziko garrantzia du herritarren babesean eta delituen prebentzioan. Haien presentziak eta jardunak eza-rritako arauetara errespetua sustatzen dute, eta uxatu egiten dituzte segurtasuna eta bake publikoa arriskuan jar ditzake-ten jokabideak. Poliziak aurrea hartu behar die delitu-moda-litate berriei, eta, horretarako, egokitu egin behar ditu anto-lamendua, giza baliabideak eta baliabide teknologikoak eta funtzionamendua. EAJ-PNVn, Ertzaintza defendatzen dugu polizia integral gisa, eta, udaltzaingoekin orpoz orpo lanki-detzan, delituak prebenitzeko eta kriminalitate murrizteko lan egiten du. Gure ustean, Euskal Polizia funtsezko zutabea da gure gizartean.

Euskadi herri seguru da gaur egun. Baina are seguruagoa izatea lortu behar dugu. Egungo eta etorkizuneko segurtasun-erronkei aurre egiteko, EAJ-PNVn konpromiso hauek hartzen ditugu:

1.- Euskadiko Segurtasun Plan berri bat garatuko dugu, Euskal Segurtasun Publikoaren Sistema osatzen duten erakundeak errealitate sozial eta kriminologiko berrira egokitzeko, eta pertsonen segurtasuna izango da azken helburua.

2.- Euskadiko Polizia Koordinatzeko Sistema bat ezarriko dugu, informazioa denbora errealean partekatzeko aukera emango duena, eta, hala, unean-unean Euskadiko Segur-tasun Publikoaren Sistemak dituen premiei erantzunez banatuko dira baliabide operatiboak.

3.- Lege-aldaketak sustatuko ditugu, errealitate kriminolo-giko berrien aurrean polizia-agenteen segurtasun juridikoa bermatzeko. Segurtasun Saila akusazio partikular gisa aur-keztuko da Ertzaintzako agenteen aurkako indarkeria-ka-suetan. Babestu egin behar ditugu babesten gaituztenak.

## SEGURTASUNA Lurralde seguruagoa

4.- Ertzaintzaren lan-baldintzak arautzen dituen akordioa berrituko dugu, Ertzaintzako langileen produktibitateak, indize zuzentzaileak eta garapen profesionaleko sistema eguneratzeko.

5.- Ertzaintzak erabiltzen dituen azpiegiturak eta tresnak berrituko ditugu, eta, ildo horretan, nabarmentzekoak dira Durangoko ertzain-etxea berritzea, helikoptero-flota erabat berritzea eta ibilgailuak berritzea eta modernizatzea.

6.- Ekipamendu eta Material Batzordeak bultzatuko ditugu, eta Ertzaintzako langileen ordezkarien parte-hartzea indartuko dugu.

7.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari eutsiko diogu eta garatu egingo dugu, Euskal Polizia prestatzeko erakunde nagusi gisa. Etengabeko prestakuntza indartuko dugu lanbide-etapa osoan, gure poliziek beren ezagutzak eguneratu ditzaten errealitate kriminologiko aldakorren aurrean.

8.- EAJ-PNVk 2022ko Zigor Kodean babestutako erreformaren emaitzak ebaluatuko ditugu, behin baino gehiagotan izaniko berrerortze- eta -ebasketa-delituen kasuan. Gutxiegi izaten jarraitzen badu, Zigor Kodearen beste erreforma bat bultzatuko dugu, gaur egun aurreikusitako zigorrak gogortzeko.

9.- Sortzen ari diren delituekin lotutako ikerketa-unitateak indartuko ditugu, hala nola delinkuentzia antolatuarekin lotuak.

10.- Banakako kamerak emango dizkiegu polizia-agenteei, segurtasun juridikoa emateko, agintaritza judizialari delitu penal baten aurrean froga-elementuak emateko eta haien jardueren gardentasuna bermatzeko.

11.- CyberZaintza garatuko dugu, Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia, modu integral eta transbertsanean aurre egiteko Interneten eta teknologia berrien erabilerak Euskadin eragindako mehatxuei.

12.- Haur eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko, detektatzeko eta goiz lantzeko programak garatuko ditugu, berariazko estrategia baten bitartez.

13.- Larrialdiak Kudeatzeko Euskal Sistema (112) eguneratzeari, modernizatzeari eta hobetzeari ekingo diogu langileen eta azpiegituren arloan, eta, horretarako, teknologia berriak eta adimen artifiziale aplikatuko ditugu.

14.- Ertzain-etxeak egokituko ditugu, espazio inklusiboak izan ditzaten.

15.- Konpromiso irmoa dugu genero-ikuspegia kontuan hartzen duen kontratazioarekin.

16.- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako arreta koordinatua indartuko dugu, espedienteen kudeaketa integratuaren eta elkarreragingarritasunaren bidez, eta biktimaren babesa eta ongizatea egituratuko ditugu lehentasunezko elementu gisa, biktima berronertzea eta erreparatzea errazteko.

17.- Gizarte zibilaren, herritar-elkarteen eta kolektiboen arteko harreman-sare baten sorreran sakonduko dugu, komunikazio-bide egonkorrak ezartzeko; bide horietatik jasoko ditugu herritarren eskaerak, eta denbora errealean helaraziko dugu eragin diezaieketen gertakariei buruzko informazioa.

18.- Indartu egingo dugu euskal segurtasun-sistemak babes zibileko eta polizia-lankidetzako nazioarteko esparru eta agentzietan duen posizioa.

19.- Etxeko eta genero-indarkeriaren aurkako EBA sistema egokituko dugu arrisku-balorazio berrietara, indarkeria matxistako kasuak identifikatzeko eta horiei aurrea hartzeko.

20.- Polizia-jarduera digitalizatuko dugu, eta teknologia berriak aplikatuko ditugu gizartearen eskaera berriei erantzuteko.

21.- Konprometiturik gaude jasangarritasunarekin. Ertzain-etxeetako klimatizazio-sistemen efizientzia energetikoa hobetuko dugu, plaka fotovoltaiakoak instalatuko ditugu eta emisio kutsatzaileak murriztuko ditugu, saileko ibilgailuetan teknologia hibridoa eta elektrikoa erabiliz.

22.- Euskalmet indartuko dugu, eguraldi txarraren aurrean prebentzioa hobetzeko eta alerta goiztiarraren kontzeptua hobetzeko.

## JUSTIZIA

### Justizia-administrazio propioa, azkarra eta hurbilekoa

EAJ-PNVn, justizia propio, elebidun, eraginkor, arin eta humanizatua sinesten dugu; nahi dugun eredu horretan, pertsonak egongo dira erdigunean, batez ere ahulenak.

Euskadiko antolamendu judiziala Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian amaitzea defendatzen dugu, eta haren aurrean agortu beharko lirateke ondorengo instantzia prozesalak, kasazio-errekurtsoak edo jurisdikzio-ordena guztietako azken instantzia barne, Auzitegi Gorenaren jurisdikzioa izan ezik.

Justizian efizientzia eta arintasuna sustatzen duten egitura-eta prozesu-aldaketak babesten ditugu. Justiziarako sarbidea erraztu nahi diegu bereziki kalteberak diren edo justizia eraginkorra lortzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen. Ezin baita hartu justiziatzat justizia geldoa edo pertsona kalteberak babesten ez dituenak.

Beraz, justizia-sistema propioa, elebiduna, eraginkorra, arina eta humanizatua garatzeko, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

- 1.- Justiziaren Euskal Kontseilua sortuko dugu, Euskadiko botere judizialaren gobernu-organo gisa.
- 2.- Justizia-administrazioa oso-osorik Euskadin kudeatzeko lan egingo dugu. Justizia Administrazioko letraduen kidegoko langileen atxikipena eskualdatzeko eskatuko dugu, Euskadiri dagokion bulego judizialeko zuzendaritza-eginkizunarekin koherentzia gordeta.
- 3.- Aurrera egingo dugu justizia euskalduntzeko bidean. Euskara modu ohikoan erabiltzeko aukera eskaintzen duen justizia-eredu batean sinesten dugu, justiziara jotzen dutenak ez daitezen egon gaztelania erabiltzera behartuta edo ez dezaten interprete bat eskatu behar beren burua defendatu ahal izateko.
- 4.- Euskal udalerriak elkartean integratuko ditugu ikuspegi judizialek, pertsonengana zuzendutako justizia-administrazioaren eredu baterantz igaro ahal izateko. Eraldaketa horri esker, herritarrengandik gertuago jarriko dira zerbitzu judiziala eta erregistrala, baita haien izapideak ere.
- 5.- Beharrezko inbertsioak egingo ditugu, barruti judizialeko egungo eta etorkizuneko beharrak beteko dituzten gune judizial berriak izateko.
- 6.- Justiziaren digitalizazioan sakonduko dugu, eta saihestu egingo ditugu, batetik, eten digitala eta, bestetik, teknologiak beharrezko berehalakotasuna eta hurbiltasuna kentzea justiziari.
- 7.- Doako laguntza juridikorako eskubidearen aitortpena arinduko dugu, eta duindu egingo dugu abokatuek, produktoreek eta gizarte-graduatuak egiten duten lana; hala, beharrezkoak diren erreformak babestuko ditugu doako justiziaren eta defentsa-eskubidearen erregulazioan.
- 8.- Ezabatu egingo ditugu desgaitasuna duten pertsonen eta adinekoen justizia eskuratzeko dituzten oztopoak. Pertsona horientzako prozesu judizialean laguntzak eta egokitzapenak sustatuko dituzten programak garatuko ditugu, eta, horretarako, bideratzaileen figura txertatuko dugu. Justizia irisgarria bultzatuko dugu, justiziara hurbildu behar duten haur eta nerabeentzat.
- 9.- Gazte Justiziako VI. Plana jarriko dugu martxan, zeinak neurriak ezarriko baititu adikzioen edo jokabide-nahasmenduen kasuetan behar terapeutiko espezifikoerantzuteko.



## ESPETXEAK

### Sistema propioa, birgizarteratzea ardatz harturik

Espetxe-sistemek berebiziko garrantzia dute justizia-administrazioan eta segurtasun publikoaren kudeaketan. Hala ere, haren funtzioa ez da arau-hausleak zigortzea bakarrik, baizik eta kontuan hartu behar du, orobat, delituak egin dituzten pertsonen birgaitzea eta gizarteratzea ere. Gizarteratzea onuragarria da bai gizabanakoentzat, bai gizarte osoarentzat.

2021ean eskumenak eskualdatu ondoren, euskal espetxe-sistemak profil guztietako presoak artatzeko sistema integral bihurtu behar du, eta, era berean, bermatu behar du Euskadiko preso guztiak Euskadin bertan artatzen direla.

Gure ustez, Euskadiko espetxe-sistemak erregimen irekia bultzatu behar du —askatasunaz gabetzeko zigorrak betetzeko modalitate bidezkoena, eraginkorra eta gizatiarrena den aldetik—, erantzuna eman behar die espetxeetan egoera bereziki kalteberan dauden kolektiboen behar espezifikoiei, eta genero-ikuspegia duten espetxe-estrategiak garatu behar ditu. Era berean, uste dugu beharrezkoa dela justizia errestratzailearen eredu bat eratzen jarraitzea, delituen biktimen beharrei eta interesei erantzungo diena, eta, horrekin batera, gizartea modu eraginkorrean babestuko duena gizarteratu nahi ez duten eta delituak egiteari utzi nahi ez dioten pertsonetarik.

Beraz, gizarteratzean ardaztutako espetxe-sistema propio eta integral bat garatzeko, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

- 1.- Zigor-arloko betearazpen-zerbitzuen antolaketa eta funtzionamendurako erregelamendu bat egingo dugu Euskadirako, eta hark arautuko ditu euskal espetxe-administrazioko eta espetxeetako zerbitzu zentralen egitura organiko eta funtzionala, bai eta gizartearen eta herritarren parte-hartzea ere, espetxe-sistemari eta gizarteratzeari loturik.
- 2.- Azpiegitura berriak sortuko ditugu euskal espetxeetako plazen eskaintza egokitzeko Euskadiko edo Euskadirekin lotura soziala duten presoek eskarira.
- 3.- Lehendik ditugun azpiegiturak egokituko ditugu espetxeetako biztanleriaren profil heterogeneora, kolektibo kalteberenen behar espezifikoak azpimarratuz.
- 4.- Gizarteratzeko Euskal Plana indartuko dugu, nazioartean arrakasta izan duten kasuak erreferentziatzat hartuta.

## MEMORIA HISTORIKOA

### ETA BIZIKIDETZA

### Bakea, justizia eta ongizatea

Elkarbizitza-eredu sendo eta bidezko bat sustatzeari dagokionez, EAJ-PNVn proposatzen dugu funtsezko lau zutabetan oinarritutako ikuspegi bat bultzatzea, laurak ere gizarte justuagoa, ekitatiboagoa eta baketsuagoa eraikitzeke oinarri gisa harturik.

Zutabe horietako lehenbizikoa da indarkeriari zilegitasuna kentzea. Printzipio horren arabera, erabat bidegabetzat jo behar da indarkeria mota oro, dela fisikoa, dela emozionala, dela estrukturala. Beharrezkoa da indarkeriaren onarpen soziala desagerraraztea, gatazkak konpontzeko edo ideiak inposatzeko bitarteko gisa.

Bigarren zutabearen ardatza da eskubideak urratutako biktimen guztien aintzatespen integrala. Aitortza horrek, lege- eta erakunde-esparruak ez ezik, eremu soziala, morala eta sinbolikoa ere hartzen ditu barnean. Bistaratu egin behar dira bidegabekeriak jasan dituzten pertsona guztiak, eta gizartearen babesa eta elkartasuna jaso behar dute berroneratzeko eta erreparatzeko prozesuan.

Hirugarren zutabea memoria inklusiboa, kritikoa eta etikoa eraikitze bideratuta dago. Horrek esan nahi du historia ikuspegi askotatik berrikusi eta berrinterpretatu behar dela, eta ahotsa eman behar zaiela historikoki baztertu edo isildu izan diren taldeei. Memoria kolektiboak hausnarketarako eta ikaskuntzarako gune izan behar du, eta adiskidetzeari eta etorkizuneko gatazken prebentzioari lagundu behar dio.

Azkenik, laugarren zutabe gisa, printzipio eta balio etiko eta demokratikoak ageri dira. Printzipio horiek harreman sozial eta politikoetarako gida gisa jarduten dute, eta sustatzen dituzten balioen artean ageri dira giza duintasunarekiko errespetua, eskubide- eta aukera-berdintasuna, justizia, elkartasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzea erabakiak hartzerakoan.

Oro har, lau zutabe horiek dira pertsona guztientzako bakea, justizia eta ongizatea sustatzea helburu duen bizikidetzaren oinarria. Horiek ezartzeko, beharrezkoa da gizarte osoaren konpromisoa eta lankidetzak, eta ezinbestekoa da, orobat, funtsezko printzipio horiek islatuko eta sustatuko dituzten politika publikoak eta egitura instituzionalak eraikitzea.

Beraz, bizikidetzaren eredu sendo eta justu bat sustatzeko, EAJ-PNVk neurri hauek bultzatuko ditu:

- 1.- Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea garatuko dugu, batez ere biktimen aintzatespenari eta erreparazioari buruzko kapituluetan; memoria demokratikoari buruzko pedagogia soziala; desagertutako pertsonak

## MEMORIA HISTORIKOA ETA BIZIKIDETZA Bakea, justizia eta ongizatea

bilatzea, hobitik ateratzea eta identifikatzea; egia argitzea ikerketa gehiagoren eta toki-maparen bidez; eta Euskadiko memoriaren espazioak eta ibilbideak.

2.- Gogoragunea erakusketa-gunea garatuko dugu.


3.- Bakearen Museo berria jarriko dugu martxan Gernikan.

4.- Martxoaren 3ko Memoriala garatuko dugu Gasteizen.

5.- Giza eskubideak eta haien kultura gizarteratuko ditugu, Euskadiko DNA osatzeko elementu gisa, eta Euskadiko esparru guztietan txertatuko dugu haien defentsa eta bermea.

6- Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko Legea onetsiko dugu, aniztasunaren balioarekiko errespetu proaktiboaren eta diskriminazio-mota guztien aurkako borrokaren printzipioaren berme gisa.

7.- Oinarri etiko baten onarpen politikoa bultzatuko dugu, herri honetako bizikidetza indartzeko gutxieneko funts gisa.



## IDENTITATE ETA AINTZATESPEN NAZIONALA



## AUTOGOBERNUA Ongizatearen sinonimoa

Bizi garen une hauetan, nekez pentsa dezakegu euskal autogobernuaren etorkizunean, Europar Batasunaren esparruan kokatu eta ulertu ezean. Europako erakundeek gaur egun beren gain dituzten eskumenak ikusirik, Batasuneko botere politiko handi berri bat sortu da, eta orain arteko estatu-esparruak sorpasso demokratikoa izan du.

Inguruabar hori kontuan izanik, EAJ-PNVk defendatu egiten du Europar Batasunaren sorreraren ideia; hau da, kontinentea bateratzeko proiektu politikoa. Egitasmo hori beharrezkoa da etorkizuneko proiektu partekatutako batean elkar hartuko duten Europako nazioen federazio bat eraikitzeko.

Egungo sistema europarrak sortu duen sistema horren ondorioz, Europar Batasuna estatu kideen kudeaketa-ildo nagusiak marrazten dituen administrazio-erakunde gisa baino ez da ikusten. EAJ-PNVn, aldarrikatzen dugu beharrezkoa dela Euskadik eta Europako gainerako herri eta nazioek protagonismo politikoa berreskuratzea, Europaren integrazioaren bidean aurrera egiteko.

Gure ustez, europagintzak une erabakigarria bizi du. Europar Batasunak egitura federalerantz egin behar duen jauzi kualitatibo horretan, Batasunaren konstituzio-ondarearen oinarri gisa, beharrezkoa da subjektu politikoa gisa aitortzea Europako errealitate nazional guztiak; era berean, babestu egin behar dira kultura- eta hizkuntza-aniztasuna, bai eta bertako kideen oinarritzko giza eskubideak eta eskubide politikoak ere.

Europako federazioak arautu beharko du, halaber, subiranotasunaren alorreko lurralde-gatazkak konpontzeko aukera, elkarrizketaren, bitartekaritza politikoaren eta Europar Batasunaren printzipio demokratikoen bidez. Zuzentarau argitzaille batek ezarri behar du bitartekaritzarako eta gatazkak konpontzeko mekanismo arautu, demokratiko eta aitortu bat.

Europako federazioak barne-zabalkunderako mekanismo bat aitortu eta arautu beharko du, are gehiago, gaur egungoaren moduko kanpo-hedapena bizi duen une batean, Kopenhageko Irizpideak deiturikoei dagoeneko ezarrita eta araututa daukaten prozesuaren bidez.

### EUSKAL AUTOGOBERNUA EGUNERATZEA

Euskal autogobernua eguneratzeak barnean hartu behar du gure eskumenak berritzea eta euskal gizartearen egungo eskaera eta beharretara egokitzea. Euskal autogobernua mugatzen duten eskumen-oinarriak birplantatzea, alderdi hauek ahalbidetzeko:

- 1.- Egungo Estatutua egikaritzen amaitzea.
- 2.- Esperientzia autonomikoan murriztutako autogobernua berreskuratzea.
- 3.- Eskumenen quantuma areagotzea, indarrean dagoen estatutuan aurreikusitako eskumen guztiei dagokienez, eta eskuduntzen katalogo propioan sartzea euskal herritarren eskubide politiko, ekonomiko, sozial, linguistiko eta kulturalak bermatzeko beharrezko eskumen guztiak.

Igarotako denbora guztiaren ondoren, eta sakoneko gatazka politikoa konpontzeko bide gisa, ezinbestekoa da estatuaren lurralde-ereduari buruzko eztabaidari luze-zabal heltzea. Ildo horretan, beharrezkoa da, nahi eta nahi ez, estatuaren plurinazionaltasuna eta, ondorioz, errealitate nazional aitortuak erabakitzekeo eskubidea aitortzea.

Autogobernu hau eguneratzea eta areagotzea formalizatu ahal izateko, ezinbestekoa da negoziazio-esparru batean hitzartu beharreko soluzio posibleei buruz hitz egitea, eta horretarako bide politikoak eta demokratikoak topatu behar dira. Ildo horretan, uste dugu iritsi dela garaia, inolako atzerapenik gabe, euskal autogobernuak lehenbailehen ekiteko beste garapen- eta zabaltze-fase bati.

Hori dela eta, konpromisoa hartzen dugu etorkizuneko autogobernua Euskadin eta estatuan negoziatzeko eta onesteko, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian (foru-lurraldeen eskubide historikoak babestea) eta Gernikako Estatutuaren xedapen gehigarrian (subiranotasun-erreserba) aurreikusitako ahalak baliatuz.

Euskadiren nazio-aitorpena, euskal eskumenen babesa eta aldebikotasunean eta foraltasunean oinarritutako berme-sistema izango dira elkarrizketaren eta negoziazioaren oinarritzko eremuak, betiere kontuan hartuta lortu beharreko akordioak Eusko Legebiltzarraren gehiengoaren eskaerei erantzun beharko diela, Gernikako Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, hark ordezkatzeko baititu legitimoki Euskal Herria.

Hazi egin behar dugu politikoki eta instituzionalki; hala nahi dugu euskaldunok, eta hala behar du Euskadik. Eta, horretarako, beharrezkoa da estatuarekin harreman politikoetarako estatus berri bat finkatzea, egungo menderakuntza-eskema atzean utzita. Euskal Herri gisa bizirik iraungo dugula ziurtatzeko proiektu politiko bat, eskumenen aldetik berritutako autogobernu oso bat garatzeko, eta, haren bidez, hazkunde ekonomikoan eta justizia sozialean oinarrituriko euskal gizarte bat eraikitzen jarraitzeko.

## AUTOGOBERNUA Ongizatearen sinonimoa

Estatus berriaren proposamenak elementu berezi eta zentralizat hartu beharko ditu honako hauek:

- 1.- Euskadi naziotzat aitortzea. Euskal autogobernua eguneratzeko etorkizuneko akordioak Euskal Herriaren nortasun nazionala aitortzea proposatzen dugu. Aitorpen horrek euskal gizartean oso partekatua den nazio bateko kide izatearen zentzua jasoko du.
- 2.- Aniztasuna errespetatzea. Euskadi errealitate nazional irekia eta plurala da, XXI. mendeko nazioek ezaugarri duten moduan. Beraz, Euskadiren instituzionalizazioak errespetatu eta aitortu egin behar ditu kide-entimendu batzuk zein bestek.
- 3.- Erabakitze eskubidea. Gure ustez, Euskal Herriaren Eskubide Historikoak erabat gauzatzeko, autogobernuaren adierazpen instituzional gisa, demokratikoki adierazitako herritartasun askea erabakitze eskubidearen bidez azaleratzen da, eta eskubide hori egikaritzea estatuarekin hitzartu behar da.
- 4.- Aldebikotasuna. Euskadiren eta estatuaren arteko harremanak. Euskadiren eta estatuaren arteko harremanek aldebikoak izan beharko dute, eta printzipio hauen arabera arautuko dira: elkarrekiko aitortpena, leialtasuna, errespetu instituzionala, lankidetzaren koordinazioa eta berezko gaien berezitasunak babesteko eskumena eta mekanismo zein tresnak. Aldebiko topaketarako bi tresna gaituko ditugu, Kontzertu Politikoko eta Lankidetzarako Batzorde Mistoa eta Arbitraje Batzorde bat, jurisdikzio-bidearen aurreko instantzia, estatuaren eta Euskadiren arteko eskumen-gatazkei heltzeko eskumena duena.
- 5.- Euskadi, ahots berri bat Europan. Egungo autogobernuak gaintu egin behar du Euskadi-Estatua esparrua, hala lortuko baitu Euskadiren ahotsa bermatzea Europako erakundeetan, eskumen propiotzat aitortzen zaizkion gai guztietan.

## KULTURA Euskadi, abangardia maite duen antzinako nazioa

Kulturak forma ematen die gure bizimoduari, beldurrei, asmoei, itxaropenei eta pozei. Kulturak egiten gaitu gizaki, haren bidez egiten gara komunitate, eta funtsezko zeregina du norbanakoaren, taldearen eta herrien nortasuna etengabe garatzeko, egokitze eta transmititzeko.

Kultura ezinbesteko faktorea da gizakiok garatzeko, eta, horregatik, funtsezkotzat jotzen dugu gure ekintza instituzionalaren erdigunean jartzea. Kultura herri-errotka bat da; izan ere, norbanakoaren autonomia eta gaitasun kritikoa, komunitate kultural eta politikoen indarra, gure hizkuntzaren bizitasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta pertsonen arteko aniztasuna jorratzen ditu.

Bestalde, kultura esparru ekonomikoa ere bada. Kultura- eta sormen-industriek gero eta garrantzi handiagoa dute ekonomian, enpleguan eta berrikuntzan. Ildo horretan, kulturaren esparruan ere funtsezkoa da lankidetzaren publiko-pribatua, eta, horregatik, politika publikoek, kultura-jarduera sustatzeaz gainera, lankidetzaren hori bultzatu behar dute.

EAJ-PNVn buru-belarri lan egingo dugu talentu kulturala garatzeko aukerak areagotzeko, eskaintza kulturala bultzatuko dugu gizartera hurbiltzeko, memoriaren eta ondare kulturalaren transmisioa bultzatuko dugu, jauzi digitala bultzatuko dugu, eta genero-berdintasuna zein hizkuntza-berdintasuna lortzeko jardungo dugu, gobernantza kulturalerako eredu berrien bidez. Horretarako, ekimen hauei ekiteko konpromisoa hartzen dugu:

- 1.- Artista eta sortzaileentzako prestakuntza-programak eta egoitzak sustatuko ditugu, batez ere nazioartean.
- 2.- Kulturako profesionalen profesionalizazioa hobetuko eta sendotuko dugu hiru alderditatik: fiskalitatea, kontratatze baldintzak eta artisten errolda egitea.
- 3.- Jardunbide egokien gida zabalduko dugu kultura-ekimenetako kontratazioetarako.
- 4.- Euskarazko kultura-sorkuntza sustatuko dugu, beken eta dirulaguntzen bidez.
- 5.- Euskal kultura eta ikus-entzunezko ekoizpenak bultzatzen jarraituko dugu, "Euskadi Basque Country" marka mundu osoan zabaltzeko, EiTbren laguntzarekin.
- 6.- Erantzuna emango diegu kultura- eta sormen-industriari behar berriei.
- 7.- Irakurketa sustatzeko ekintza-plan bat sustatuko dugu, euskal gazteei zuzenduta.

## KULTURA

Euskadi, abangoardia maite duen antzinako nazioa

8.- Euskal artisten lanak eramango ditugu mundu zaba-lean antolatzen diren azoka, jaialdi eta merkatuetara, bereziki Euskadirentzat estrategikoak diren herrialdeetara, Etxepare Institutuarekin lankidetzan.

9.- Kultura-jarduera tradizionalak bultzatuko ditugu belau-naldien arteko berrikuntza eta iraupena ziurtatzeko, hala nola euskal dantzak edo abesbatzak.

10.- Inbertsioak bultzatuko ditugu gure herrialdeko kultu-  
ra-ondarean, eta konpromisoa hartuko dugu ondare hori obra publikoak finantzatzeko aurrekontu-partiden % 1 izan dadin gutxienez.

11.- Kultura Sistemaren Legea garatuko dugu, erakundeek kulturaren arloan dituzten eskumenak definitzeko eta etorkizunari begira kultura-sistema sendo eta koordinatu baten oinarriak ezartzeko.

12.- Adimen artifizialak kulturaren duen eragina aztertze-ko lantalde bat sortuko dugu.

13.- Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin batera, Gasteiz Hiriburu Planean parte hartuko dugu.

14.- Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin batera, Gasteizko Principal Antzokia eraberritzen eta han-ditzen parte hartuko dugu.

15.- Donostiako Udalarekin elkarlanean arituko gara Gi-puzkoako hiriburua Europako kultura-erreferentzia gisa posizionatzeko, eta zenbait proiektu aztertuko ditugu, hala nola Victoria Eugenia Antzokiaren espazio teknikoa hobe-tzea eta berritzea edo egoitza artistiko bat sortzea.

16.- Irungo Plaiaundiko naturagunea birgaitzeko eta hango kirol-azpiegiturak Txenpereneara eramateko proiektuari laguntzeko formulak aztertuko ditugu, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Irungo Udalarekin lankidetzan.

17.- Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, Guggenheim Urdaibai Museoa bultzatuko dugu. Museo horrek Gug-genheim Bilbao Museoaren egungo erakusketa-, kultura-eta hezkuntza-funtzionamendua hedatuko du integra-zio-eredu berritzaile baten bidez, eta ekoizpen artistikoa, ekologia, teknologia, gizarte-konektagarritasuna eta iker-keta uztartuko ditu.

## KIROLA ETA SELEKZIO NAZIONALAK Nazio bat, selekzio bat

EAJ-PNVk euskal kirol-ekosistemaren ikuspegi integrala de-fendatzen du, eta ekosistema hori osatzen duten erakunde, eragile eta elementu bakoitzaren jarduera-eremua bultzatzen eta errespetatzen du. Gure ustez, kirolaren arloko politika publikoek uztartu egin behar dituzte kirol-jarduera lehiako-rrerako laguntza eta osasun publikoaren sustapena eta gizarte-kohesioa. Uste dugu, gainera, kirola nazioarteko proiektzio-faktorea dela Euskadirentzat.

### EUSKADI NAZIOARTEKOTZEA ETA SELEKZIO NAZIONALAK BULTZATZEA

Euskadiko kultura- eta kirol-ondareak nazioarteko aintzates-pena merezi du, eta, horregatik, irmo defendatzen dugu gure selekzioen ofizialtasuna. Euskadiko berezko kiroletan selek-zioak izateaz gainera —herri-kiroletan edo euskal pilotan, kasu—, uste dugu aplikagarria dela gure selekzioen ofizialta-sunaren defentsa kirol-praktika guztietan, eta halaxe defen-datu behar dela.

EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu, euskal selekzioen ofizialtasuna eta Euskadiren nazioartekotzea gauzatzeko:

1.- Estatuko eta nazioarteko erakundeen aurrean euskal se-lekzio guztiak koordinatzeaz eta ordezkatzeko arduratuko den erakunde bat sortuko dugu. Erakunde horrek ofizial-tasunerantz aurrerapenak egin ditzaketan kirol-diziplinak identifikatuko ditu, eta euskal selekzioen eta beste selek-zio ofizial batzuen arteko kirol-ekitaldiak sustatuko ditu.

2.- Corpus juridiko bat sortuko dugu erakunde eskudunen aurrean aurkezteko, euskal selekzioen ofizialtasuna babes-tuko duten berariazko proposamenekin.

3.- Negoziazio- eta lankidetzaprozesuak garatuko ditugu nazioarteko kirol-erakundeekin, gure selekzioek mundu-ko lehiaketetan parte hartuko dutela ziurtatzeko.

4.- Sentsibilizazio-kanpainak ezarriko ditugu, euskal he-rritarrak gure selekzioen ofizialtasunaren garrantziaz in-formatzeko eta kontzientziazteko. Gizartearen babes akti-boa bilatuko dugu, euskal selekzioekin identifikatzea eta selekzioek parte hartzen duten kirol-ekitaldien jarraipena egitea sustatzen duten ekimenen bidez.

5.- Nazioarteko erreferentziazko kirol-ekitaldiak erakartze-ko eta kudeatzeko lan egingo dugu, gure nazio-nortasu-na garatzeko eta Euskadiren kanpo-proiektzioarako aukera gisa, eta, hala, Euskadi Basque Country marka sendotuko dugu.

## KIROLA ETA SELEKZIO NAZIONALAK

### Nazio bat, selekzio bat

6.- Gure kirol autoktonoen etengabeko hobekuntza eta kalitatea sustatuko ditugu, nazioartean presentzia handiagoa lortzeko ikuspegi estrategikoarekin: euskal pilota, arrauna eta herri-kirolak.

### JARDUERA FISIKOA ETA BALIO SOZIALAK SUSTATZEA KIROLAREN BIDEZ

Jarduera fisikoaren eta haren onuren gaineko ikuspegi orokorra kontuan harturik, uste dugu funtsezko helburua dela gizarte osoak egitea kirola modu ohikoan, bai eta bizitza osasungarria izateko ohiturak hartzea ere. Kirol-jarduera bultzatze aldera, neurri hauek ezartzeko konpromisoa hartzen dugu:

1.- Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Legearen arau-garapena amaituko dugu, baita Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren Legearena ere, eta, horri esker, bi legeon potentziala zabalduko dugu.

2.- Kirola eta bizitza aktiboa sustatuko ditugu. Jarduera Fisikoko Euskal Plana (BAPPA, Basque Plan of Physical Activity) sortzea mugarri bat izango da bizitza aktiboa sustatzeko. Plan horrek, euskal gizartearen osasuna indartzeaz gainera, bizitza aktibo eta osasungarri baten erreferentzia gisa posizionatuko ditu gure selekzioak.

3.- Berdintasuna eta ekitatea sustatuko ditugu kirolean eta kirol egokitan, federazio konbentzionaletan sartzea sustatuko baitugu. Berdintasunezko kirolak eta kirol inklusiboak ordezkatzeko dituzten gure berdintasun- eta kohesio-balioak.

4.- Kirolarientzako Egoitza eta Fadura Hobekuntza Zentroa erreferentziazko gune bihurtuko ditugu Europan. Azpiegiturak hobetzeaz gainera, goi-mailako euskal kirolaren garapenaren epizentro gisa proiektatuko dugu. Areagotu egingo dugu teknifikazio-zentroekin dugun lankidetzaz.

5.- Bekak indartuko ditugu goi-mailako kirol-errendimendua sustatzeko, bai eta euskal kirolariek nazioarteko lehiaketetan dituzten garapen- eta proiektzio-aukerak indartzeko ere -besteak beste, Parisko 2024ko Olinpiar eta Paralinpiar Jokoetan-.

6.- Anoeta Berria. Aurrera eramango dugu Anoetako eta Illunbeko kirol-hiriaren eraldaketa integrala Donostian, Donostiako Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin orpo orpo lankidetzan.

7.- Orbeldi Ur Bizietako Maialen Chourraut Kanala eraikiko dugu Usurbilen.

8.- Ikerketa-estrategia bat garatuko dugu erakunde akademikoekin lankidetzan, eta, horretarako, jarduera fisiko eta kirola babesten dituen oinarri zientifikoa indartuko dugu eta euskal gizartearen zabalduko ditugu lortutako emaitzak.

9.- Jarduera fisiko sustatzeko estrategia babesten jarraituko dugu, bizitza osasungarria izateko gako gisa, eta Mugimint Kirol Txartela euskal udalerriri guztietara zabaltzea bultzatuko dugu.

## EUSKERA Edonoiz, edonon

Zorionez, eta EAJ-PNVk euskal gizarte osoaren eskutik bul-tzatutako ekintza instituzionalari esker, euskaraz badakiten pertsonen kopuruak nabarmen egin du gora azken hamarkadetan. Orain, ordea, beste erronka bat daukagu: euskararen erabilera soziala areagotzeko baldintzak sortzea.

Mundua aldatzen ari da, eta aldatzen ari da, orobat, gizakiok aurrez aurre nahiz digitalki harremanetan jartzeko dugun modua. Eleaniztasuna gero eta hedatuago dagoen inguruabarretan bizi gara, eta hori aukera bikaina da gure hizkuntzarentzat. Kultura soziolinguistiko berri baten atarian gaude; gure gizarte honek elebitasun orekatua bilatzen du eta, gainera, hiztun eleaniztunen aniztasuna aintzatetsi nahi du.

Aurrera egin behar du euskara biziberritzeko prozesuak. Eta, horretarako, ezinbestekoa da hiztun aktiboen kopurua biderkatzea. Gure helburua da euskaraz komunikatzeko esparru gehiago lortzea: familia, kalea, ikastetxea, aisialdia, kirola, lan-esparrua, osasun- eta zaintza-guneak, ingurune digitala...

Euskararen oinarriturik egin nahi diogu ekarpena Euskadiren eraldaketa sozialari. Ez da identitate-kontu hutsa, eta ez gara ari sentimenduei edo ereduie buruz bakarrik. Bada justizia-, legezotasun- eta eskubide-kontua ere. Euskara ofiziala da Euskadin, gaztelaniarekin batera. Gure helburua da Europan ere ofiziala izatea euskara.

EAJ-PNVn, aurre egiten diegu euskararen egungo erronkei, helburu gisa harturik erabilera areagotzeko baldintzak hobetzea. Nahitaez egin beharreko urratsak dira, esaterako, euskararen presentzia handiagoa duen eskolaz kanpoko gazte-ekosistema bat lortzea, gure hizkuntzak ingurune digitalean duen presentzia indartzea, eta gure lanbideak inguruabar eleaniztunetan garatzeko aukerak areagotzea. Horretarako, jarduera hauek egiteko konpromisoa hartzen dugu:

1.- Edozein pertsonari eskainiko diogu euskara doan ikasteko aukera, mailaz maila, eta urrats guztietan (A1etik C2ra). Gainera, autoikaskuntza-aplikazio bat jarriko dugu martxan euskara-maila guztietarako.

2.- Euskarazko prestakuntza espezifikoak emango diegu migratzaileei, premia bereziak dituzten ikasleei eta eremu pribatuan (ostalaritza, zerbitzuak, merkataritza...) herritarrekin harreman zuzena izateko jardueretan lan egiten dutenei.

3.- Helduei euskara irakasteko sistema finantzatzen lagunduko dugu, euskaltegiak finantzatzeko ohiko deialdien bidez, guztia ere irakasleen lan-baldintzak hobetzeko.

4.- Kirol-entrenatzaileak eta -epaileak trebatuko ditugu, entrenamendu-saioak eta partidak euskaraz ere egin daitezten.

5.- Izen handiko kirol-taldeetara joko dugu, euskararen erabilerearen erreferentzia bihurtzeko, batez ere neska-mutuei zuzendutako ikastaro eta jardueretan.

6.- Kirol- eta musika-munduko pertsonen hizkuntza-lidergoa indartuko dugu.

7.- Neurriak hartuko ditugu, gainerako erakundeekin batera, euskara izan dadin ohiko hizkuntza 16 urtetik beherako haur eta gazteentzat antolatzen diren eskolaz kanpoko jardueretan.

8.- Euskara hizkuntza-teknologietan txertatzen jarraituko dugu, eta askotariko tresnak garatuko ditugu, konparazio baterako, ahotsa ezagutzeko sistemak (transkripzioa), elkarrizketa automatikoko sistemak (txatbotak), zuzentzaile ortografiko eta gramatikalak, hizkera ez-sexista baliatzeko zuzentzaileak...

9.- Euskaraz eskainiko ditugu aholkularitza eta laguntza teknikoak enpresak euskalduntzeko, eta lehentasuna emango diegu herritarrei arreta eskaintzen dieten zerbitzu-enpresa handiei.

10.- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen jarraituko dugu administrazio publikoarekiko komunikazio eta harremanetan, eta aktibatu egingo ditugu zerbitzu publikoen kontsumitzaileak eta erabiltzaileak, euskara normaltasunez erabil dezaten eta hizkuntza-estresa saihestu ahal izan dezaten.

11.- Turismo-gidariei itzulpen-zerbitzu automatikoak gomendatuko dizkiegu.

12.- Euskarazko azpitoluak eta bikoizketak sustatzen jarraituko dugu, nazioarteko ahalik eta ikus-entzunezko ekoizpen gehienetan.





## EUSKADI MUNDUAN



## KANPO-HARREMANAK

### Euskadi, munduari begira dagoen Europako nazioa

EAJ-PNVn, Euskadik historian zehar izaniko izaera defendatzen dugu: mundurantz zabalduko herri bat. Hori horrela, airtortzen dugu etengabeko erronka dela gure nazioarteko posizionamendua mantentzea, Euskadiren interesen defentsaren funtsezko pieza gisa, bai esparru politikoan, bai enpresa- eta kultura-arloan. Gure mundua eta Europa erronka globalez beterik ageri dira, eta, Euskadi haietan txertatuta egonik, beharrezkoa da ahots propioa izatea nonahi, euskal herritarren ongizateari laguntzeko.

Euskadik nortasun propioa du, eta bereizi egiten gaitu Europan eta munduan. Konpromiso historikoa dugu multilateralismoarekin eta nazioarteko arkitekturarekin, eta horrek erreferentzia gisa kokatzen gaitu lankidetzaren, jasangarritasunaren, humanismoaren eta balio demokratikoen esparruan. Printzipio horiek baliatzen ditugu iparroratz gisa, nazioartean Euskadi eta euskal herritarrentzako, enpresentzako eta erakundeentzako aukerak aurkitzeko.

Mundu zabalera irekitako Euskadi eraikitze bide horretan, ezinbesteko rola daukagu gutako euskaldun bakoitzak. Nazioarteko erakundeetan presentzia izatea ez da konpromiso hutsa. Euskadik datozen belaunaldi guztientzako etorkizun oparoa eraikitze eginiko ekarpena da, lan planifikatu, koordinatu eta ordenatu baten bidez lortua, guztia ere kanpoan eragiteko eta aukerak sortzeko eta Euskadira erakartzeko. Horretarako, EAJ-PNVk neurri hauek garatzeko konpromisoa hartzen du:

1.- Europar Batasunean dugun eginkizuna indartzea. Modu aktiboan parte hartuko dugu Europako foro eta erakundeetan eta Atlantikoko Makroeskualdea sortzeko prozesuan. Gure ustean, Euskadik hitza eta botoa eduki behar ditu gure eskumen-eremuko erabakiak hartzen diren foro guztietan. Era berean, corpus juridikoen proposamenak egingo dizkiegu Europako erakundeei, estatuaren Europa herrien eta nazioen Europa bihurtu dadin.

2.- Lanean jarraituko dugu Atlantikoko Makroeskualdea aintzatesteko, Euskadik Europan duen posizioa eta interesak ahots propioz defendatzeko. Europako bosgarren makroeskualdea izango gara.

3.- Ordezkaritza berriak irekiko ditugu Afrikan eta Asiako hego-ekialdean, eta berrikusi egingo ditugu Europan eta Amerikan ditugunak, munduan dugun presentzia indartzeko eta herrialde eta eskualdeetan sortzen ari diren aukerak aprobetxatzeko tresna estrategiko gisa.

4.- Diplomazia ekonomikoa bultzatuko dugu, gure enpresak nazioartean laguntzeko eta sustatzeko eta Euskadira inbertsioak erakartzeko.

5.- Euskal kultura-sortzaileei laguntza emango diegu, euskal kultura mundu zabalean erakusteko.

6.- Nazioarteko esparruan, euskal nazioaren existentzia eta gure ezaugarri bereizgarriak defendatuko ditugu, hala nola gure eredu kooperatibo bakarra, gure enpresa-ekosistema, gure eskumen fiskalak eta gure gaitasun industrialak. Gure lurraldea herrialde erakargarri gisa zabalduko dugu, negoziak eta inbertsioak ezartzeko.

7.- Beste pertsona, erakunde eta lurralde batzuekiko lokalitate gisa jardungo dugu maila globalean, diplomazia publiko berritzaile baten bidez. Alderdi kultural, politiko, ekonomiko, artistiko eta literarioak biltzen dituen narratiban oinarrituko dugu gure diskurtsoa. Hala, munduak gu zuzenean ezagutzea lortuko dugu, eta presentzia sendoagoa izango dugu nazioartean.

8.- Joera Geopolitiko Globalen Prospekzioarako Behatoki bat sortuko dugu, eta, hari esker, nazioarteko funtsezko dinamika aurreratu eta ulertu ahalko ditugu. Tresna horrek indartu egingo du gure egokitzeko gaitasuna, eta eragile proaktibo gisa posizionatuko gaitu etengabe aldatzen ari den mundu honetan. Behatoki horren bidez, Euskadi hobeto egongo da prestatuta, sortzen ari diren erronkei aurre egiteko eta esparru globaleko aukerak kapitalizatzeke.

9.- Modu aktiboan sartuko gara maila globaleko berrikuntzako think tank eta nodoetan. Gure gaitasunak partekatuko ditugu eta nazioarteko praktikarik onenak ikasiko ditugu; hala, gure garapena eta bikaintasuna lortzen laguntzen dutenak hartuko eta egokituko ditugu.

10.- Gure komunitate akademikoa maila globaleko jakintza-sare abangoardistetan kokatuko dugu. Nazioarteko balio-sareak sortzen lagunduko dugu, etorkizuneko euskal belaunaldiek aukera izan dezaten bikaintasuneko inguruneetan ikasteko eta ikertzeko.

## DIASPORA Zortzigarren herrialdea

Errealitate konplexu eta desafiatailea dugu aurrez aurre Euskadin, eta Euskal Diasporaren funtsezko eginkizuna ez da behar bezala aprobetxatu. Diaspora horrek eman dezake bestelako ikuspegi bat, erakunde sendoetatik haratago, eta eskain dezake pertsonak, aniztasuna eta errealitate migratzaile berriak ardatz dituen ikuspegi bat.

Sorterritik kanpo egon arren, Euskadirekin lotura handia duten norbanakoek eta komunitateek osatzen dute Euskal Diaspora. Definizio horren barruan sartzen dira atzerriratuak eta bigarren eta hirugarren belaunaldiko migratzaileak.

EAJ-PNVn uste dugu beharrezkoa dela paradigma aldaketa bati ekitea, Euskal Diasporaren egungo ikuspegiari loturik. Aurrera egin behar dugu elkartzeko eta topatzeko gune gisa funtzionatzen duten Euskal Etxeetan oinarritutako egungo esparrutik, eta bestelako esparru bat behar dugu, gure Diaspora osatzen duten pertsonen beharretara eta Euskadiren garapenari ekarpena egiteko gaitasunera bideraturik. Gure ustean, euskal herritarrok aukera bikaina dugu diasporan etorkizuneko erronka handiei aurre egiteko, hala nola erronka demografikoari edo migrazio-krisiei. Horretarako, herri gisa dugun esperientzia migratzailea baliatuko dugu egungo erronkei heltzeko. Talentua erakartzetik hasi eta eskulan kualifikatua kudeatzeraino, gure migrazio-historian oinarrituko gara erronka horiei modu eraginkorrean aurre egiteko.

Testuinguru honetan, bereizi egingo ditugu kanpoko euskal komunitate historikoa eta diaspora berria. Egokitu egingo ditugu gure politikak eta programak, bi taldeen behar espezifikoiei heltzeko, eta haien inklusioa eta parte-hartzea sustatuko ditugu.

Hori dela eta, neurri hauek ezarriko ditugu gure diasporak Euskadiren etorkizunerako jakintza-, talentu- eta aukera-iturri gisa duen potentziala aprobetxatzeko:

1.- Euskal Diasporaren Interpretazio Zentro bat sortuko dugu, Euskal Diasporaren historia eta Euskadiri egiten dion ekarpena zaintzeko eta zabaltzeko. Zentro horrek

hezkuntza- eta kultura-gune gisa balioko du, eta etorkizuneko belaunaldiak haien herentziarekin lotuko ditu. Hedapen-ekimen berriak bultzatuko ditugu gizartean eta esparru akademikoan, Euskal Diasporari buruzko kontzientzia sortzen laguntzeko eta haren garrantziaren inguruko ulermen eta estimu handiagoa sustatzeko.

2.- Kanpoko euskal herritarrentzako zerbitzu-zorro espezifiko bat garatuko dugu, lege-laguntza, laguntza psikologikoa, hezkuntza-zerbitzuak eta networking-aukerak barne.

3.- Irailaren 8a finkatuko dugu Euskal Diasporaren Nazioarteko Eguna gisa, diasporak euskal gizarte osoari egiten dion ekarpena aitortzeko eta ospatzeko.

4.- Berrikusi eta eguneratu egingo dugu egungo legeria (8/1994 Legea), Euskal Diasporak dituen errealitate eta erronka berrietara egokitzeko. Horrek barnean hartuko du migrazio-profilen aniztasuna kontuan hartzea.

5.- Itzulera-politika integrala eta leihatila bakarra garatuko ditugu, prozesu horiek errazteko. Enplegu-bilaketan, legeholkularitzan eta birgizarteratze-zerbitzuetan laguntzeko programa bat sartuko dugu Euskadira itzuli nahi duten euskal herritarrentzat.

6.- Euskal Etxeekin lankidetzan aritzeko modu berriak ezarriko ditugu, hala nola kultura-trukeak, hezkuntza-programak eta elkarrekin garatzeko proiektuak.

7.- HAN-HEMEN plataforma sendotu eta handituko dugu, Euskal Diasporaren eta Euskadiren arteko loturari etengabe eusteko. Plataformarekin batera, ekitaldi birtualak, onlineko baliabideak eta lankidetzaukerak izango dira.

8.- Euskal Etxeei gazteen eta emakumeen integrazioan lagunduko diegu, talde horien behar eta erronka partikularak landuko dituzten programa espezifikoien bidez.

## NAZIOARTEKO SARE ETA ERAKUNDEETAN PARTE HARTZEA Euskadi, ahots propioarekin

Egungo egoera globalean, funtsezko premia gisa ari da azalartzen Euskadik nazioarteko sareetan duen parte-hartze aktiboa.

Hain zuzen, aliantza eta proiektu garrantzitsuak sustatuko dituen partaidetza aktiboan sinesten dugu, baliagarria baita Euskadi ekimen globalen erdigunean jartzeko, eta, horretaz gainera, gure nortasuna eta balioak nazioartean proiektatzeko. Euskadiren kanpo-politikak gainditu egin behar du ordezkaritza diplomatiko hutsa, eta euskal gizartearentzat balioa sortzen duten ekintza zehatzen katalizatzaile bilakatu behar du.

Helburu horrekin, konpromiso hauek hartzen ditugu Europan eta munduan dugun ahotsa zabaltzeko:

- 1.- Nazio Batuen 2030 Tokiko Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza iraunkorraren presentzia sendotuko dugu epe luzera —bulego horrek Euskadin du egoitza—. Beharrezko baliabideak emango dizkiogu bulego horri, eta haren agindua eta lan-plana indartuko ditugu, haren azpiegitura fisiko eta intelektuala erabakigarri bihur dadin Euskadi kanpoan proiektatzeko.
- 2.- Euskal Rosterra sortuko dugu. Nazioarteko euskaldunak eta prestigiodunak identifikatuko ditugu, eta lankidetzaz zehatzak ezarriko ditugu haiekin, gure herrialde-marka sustatzeko eta nazioarteko sare eta erakundeetan ate berriak irekitzeko.

3.- Euskadi nazioarteko erakundeen polo gisa sendotuko dugu. Euskadi nazioarteko polo gisa posizionatuko dugu, Nazio Batuen sistemako eta Europar Batasuneko beste nazioarteko erakunde batzuk kokatzeko. Horretarako, 2030aren osteko agenda global bat zehazteko prozesuan, estatu azpiko eragileen bozeramaile gisa posizionatuko dugu Euskadi, eta, hala, nazioartera zabalduko dugu giza eskubideekin eta garapen jasangarriarekin dugun konpromisoa.

4.- Garapenerako lankidetzako sareak indartuko ditugu eLankidetzaz plataformaren bidez, nazioarteko harreman sendo eta konprometitua ezartzeko duten ahalmena aitortuz.

5. - Aldebiko aliantzak eta harremanak zabalduko ditugu. Euskadik hirien eta eskualdeen nazioarteko sareak planifikatzeko eta koordinatzeko organoetan duen eginkizuna berrituko dugu, eta geure ahotsa zabalduko dugu Euskadiren etorkizunerako garrantzi handiena duten gaietan eragiteko eta erabakitzeko.

6.- Kanpo-ekintzari baliabide ekonomikoak emango dizkiogu arlo estrategikoetako proiektuak finantzatzeko, eta dirulaguntza-deialdiak aktibatuko ditugu, euskal eragileek gehiago parte har dezaten nazioarteko proiektu eta sareetan.



indar berria  eaj  
pnv